



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

f23b4f28fac521c47825132f55dfec95c51477182f45fca7327209d1433f26af

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO OTSAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2024.02.29

Tolosako Udaletxean, 2024ko otsailaren hogeita bederatzian, 18.30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzaria bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburua Korporazioko alkate-lehendakaria Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Josune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)

Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)

Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-

PSOE)

Ez bertaratutako zinegotziak:

Leire Zubeldia Ugalde(EAJ-PNV)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2024ko urtarrilaren 25eko ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea 2023 urterako Tolosako Udaleko langileen ordainsarrietan % 0,5eko igoera.



3. Onartzea Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren aldaketa.
4. Onartzea "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkartearen ondorengo kredituen judizioz kanpoko aitortpena.
5. Onartzea Itxitako ekitaldiko fakturak.
6. Onartzea Tolosako Udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida kontratuaren espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea, eta espedientea ebazteko gehieneko epea etetea.
7. Onartzea Tolosako Udaleko Iruzuraren Aurkako Planaren eta bere eranskinen eguneratzea.
8. Hasierako onespina ematea Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoaren aldaketari.
9. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (RASD) 48. urteurreneko adierazpen insituzionala.
10. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2024KO URTARRILAREN 25EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA 2023 URTERAKO TOLOSAKO UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIETAN % 0,5EKO IGOERA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

UNITATEA	GIZA BALIBIDEAK
XEDEA	2023 URTEKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN HIRUGARREN IGOERAREN APLIKAZIOA ONARTZEA

IKUSIRIK

Lehena.- 2022ko abenduaren 24an Estatuko Aldizkari Ofizialean 31/2022 Legea argitaratu zen; bertan, 2023 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren eta



txosten honi dagokionez, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak eta dedikazioz aritzen diren korporazio kideen ordainsariak arautzen dira.

Aipaturiko Legea aplikagarria zaie udaletxe guztiei; izan ere ordainsariei dagokienez, oinarrizko araudizat hartzen da, eta gainera, legeak «sektore publiko» gisa honako entitateak biltzen ditu 19.Bat artikuluan:

“Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:

- a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.
- b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.
- c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes**.
- d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.
- e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.
- f) Las sociedades mercantiles públicas, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea superior al 50 por ciento. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.
- h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.
- i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.
- j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB).”

Hortaz, lege hau aplikagarri izango zaio Tolosako Udaleko langileriarri.

Bigarrena.- 2023 urtean, sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako goiera izateko aukera izango dute, aipatutako 19.BI artikulua baita:

Dos. 1. En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **2,5 por ciento** respecto a las **vigentes a 31 de diciembre de 2022**, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

2. Asimismo se aplicarán, en su caso, los siguientes incrementos respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos, en ambos casos, de 1 de enero de 2023:

- a) Incremento vinculado a la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado (IPCA). Si la suma del IPCA del año 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 fuera superior al 6 por ciento, se aplicará un incremento retributivo adicional máximo del 0,5 por ciento.



A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.

b) Incremento vinculado a la evolución del Producto Interior Bruto (PIB) nominal en el año 2023. Si el incremento del PIB nominal igualase o superase el estimado por el Gobierno en el cuadro macroeconómico que acompaña a la elaboración de la presente ley de Presupuestos, se aplicará un aumento retributivo complementario del 0,5 por ciento.

A estos efectos, una vez publicados por el INE los datos de avance del PIB de 2023, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE.

3. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2022. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Tres. En el sector público se podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos siempre que no se supere el incremento global fijado en el apartado anterior.

Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.

Se exceptúan, en todo caso:

- a) Las prestaciones e indemnizaciones de la Seguridad Social.
- b) Las cotizaciones al sistema de la Seguridad Social a cargo del empleador.
- c) Las indemnizaciones correspondientes a traslados, suspensiones o despidos.
- d) Las indemnizaciones o suplidos por gastos que hubiera realizado el trabajador.

Hirugarrena.- Tolosako udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an udal langile zein dedikazioz aritzen diren korporazio kideei % 2,5eko ordainsarien igoera onartu eta aplikatu zuen; guztia 2023ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita eta 2022ko abenduaren 31n zituzten ordainsariekiko.

Laugarrena.- Era berean, Tolosako udalbatzak 2023ko urriaren 26an udal langileei % 0,5eko ordainsarien igoera onartu eta aplikatu zuen; guztia 2023ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita eta 2022ko abenduaren 31n zituzten ordainsariekiko. Kasu honetan, igoera hau Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPI) bilakaerarekin lotutako igoera aurreikusten zuen.



Bosgarrena.- Aurrekontu lege berberak, Barne Produktu Gordinak (BPG) 2023an izandako bilakaerari lotutako igoera aurreikusten du. BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen legea egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaindituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko dela xedatzen du. Honela, INEk 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez eta BOEn argitaratuko da.

Hala, 2024ko otsailaren 8ko ebazpen bidez, Estatuko Aldizkari Ofizialean Ministro Kontseiluaren erabakia argitaratu da. Bertan, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak % 0,5 igotzea onartzen da, 2023 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrek 19 BI.2 b) artikuluan aurreikusten duen bezala.

Ebazpen honetan adierazten denez, batetik, Estatistika Institutu Nazionalak ziurtatu du 2023 urtean BPGren hazkundea % 8,6koa izan dela eta bestetik, Gobernuak aurrekontuen legea egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan BPG nominalaren % 6a izango zela aurreikusi zuen.

Hortaz, 2023 urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrek ezarritako % 6ko muga gainditzen du eta ordainsarrietan % 0,5eko igoera aplikagarria da.

Seigarrena.- Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikuluen arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duenak, 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko da. Zentzu honetan, gai hau 2024ko otsailaren 23an negoziatu zen ordezkari sindikalekin.

Zazpigarrena.- Igoera aplikatu ahal izateko, 2024 urteko aurrekontuan jadanik konsignazioa badago.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko otsailaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, ahobatez honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:



Lehenik.- 2023 urterako Tolosako Udaleko langileen (funtzionario, lan kontratudun zein behin-behineko langile) ordainsarrietan % 0,5eko igoera onartzea, 2022ko abenduaren 31n zeuden ordainsariak oinarri hartuta, eta 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

Bigarrenik.- Igoera aplikatu ahal izateko, 2024 urteko aurrekontuan konsignatua dagoen 55.000 eurotako gastua onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balardi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du 2023 urterako Tolosako udaleko langileen ordainsarrietan % 0,5eko igoera.

3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

UNITATEA	KONTUHARTZAILETZA
XEDEA	Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra

IKUSIRIK

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra 2017ko uztailaren 7an argitaratu zen GAO n (130 zk).

Ordenantza Orokorra indarrean sartu zenetik zenbait arau-aldaketa egin zirela ikusita, iaz, ordenantza berrikustea erabaki zen. Aldaketa horiek kontuan dituen Ordenantzaren testu berria 2023ko apirilaren 11n sartu zen indarrean (GAO 68 zk.).

Egun indarrean dagoen Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra beste behin berrikustea proposatu nahi da. Izan ere, lehia bidezko



dirulaguntzen administrazio-jardueraren eraginkortasuna handitzeko aukera identifikatu da.

Tolosako herritarren beharretara egokituta dauden lehia bidezko dirulaguntzak emateko prozedura erraztu eta arintzeko helburuarekin, dirulaguntzen oinarriak arautzen dituzten ordenantza espezifikoak indargabetu eta oinarri espezifiko berriak sortu nahi dira, urteko deialdiarekin batera argitaratuko direnak.

Lehia bidezko dirulaguntzen oinarriak, Tolosako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokor honetan oinarrituta daudenez, beharrezkoa litzateke horietan aldaketak egin ahal izateko lehendabizi Ordenantza Orokorra aldatzea.

Aipatutakoaz gain beste aldaketa batzuk ere egitea proposatu nahi da Ordenantza Orokorrean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak, 28.artikuluari, interesdunek administrazio-prozeduran aurkeztutako agirien inguruan hitz egiten du. Bertan jasoa dagoena, esaterako, ez dator guztiz bat Ordenantza Orokorrearekin eta egokitzeko beharra du.

Aurrekoaz gain, Ordenantza Orokorra aldatzeko proposamen hau aprobetxatu nahi da argibide gehiago behar dituzten paragrafoak hobetu edota zuzenketa egiteko beharra ikusten bada horiek egiteko.

KONTUAN HARTURIK

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena; Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legea; eta Ikha, Berdintasuna, Euskara, Idazkaritza eta Kontuhartzailatza sailetatik jaso diren proposamenak, ondorengo aldaketa hauek egitea proposatzen da:

Izenburua aldatzea:

<i>Indarrean dagoen testua:</i>	<i>Onartzea proposatzen dena:</i>
TOLOSAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA	TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA



Izenburuaz gain, ordenantzan zehar «..eta/edo bere erakunde publikoen...» esaldia kentzea proposatzen da.

3. artikuluko 1 eta 2 atalen idazlanari dagokionez honela uztea proposatzen da:

«1.Tolosako Udalaren aurrekontuaren kontura zuzenean emandako dirulaguntzak ordenantza honetara egokituko dira.

2.Tolosako Udalaren sektore publikoko merkataritza-sozietateek eman ditzaketen dirulaguntzei ere aplikagarria izango zaie Ordenantza Orokor hau, betiere Udalaren berezko bitartekotzat hartzen badira.»

4. artikulua. Araubide juridikoa

Kendu egin da 4. artikuluko 3. paragrafoa, ordenantza honetatik kanpoko ustezko "berezko oinarri arautzailea" aipatzen baitu. Salbuespenak Ordenantza Orokorrean bertan araututa daude, eta aurreikusten da lehia-araubidean emandako dirulaguntza guztiek beren oinarri arautzaileak izango dituztela; beraz, atalak nahasmena sor dezake berezko dirulaguntzak arautzeko Sail bakoitzari ematen zaion ahalmenarekin.

10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak eta baldintza horiek frogatzeko modua.

Ikha saileko teknikariaren txostenean jasota dagoen moduan, artikulua honetako edukia beste era batean antolatzea eta bi artikulutan banatzea proposatu da (ikusi eranskina).

10.artikulua bi artikulutan banatzea proposatu denez, indarrean dagoen ordenantzako 11.artikulutik aurrera artikuluen zenbakiak aldatu egingo dira. Aldaketa horretaz gain, ordenantzako artikulua bati erreferentzia egiten dieten artikulua zenbakiak ere eguneratu egingo dira.

11. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

<i>Indarrean dagoen testua (11.artikulua):</i>	<i>Onartzea proposatzen dena (12.artikulua):</i>
<i>«2. Ordenantza espezifikoek, deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotzen dituzten berariazko obligazioak kontuan hartu gabe, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen onuradunek bete beharreko obligazio orokorrak honako hauek izango dira:...»</i>	<i>« 2. Oinarri arautzaileek, deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotzen dituzten berariazko obligazioak kontuan hartu gabe, Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen onuradunek bete beharreko obligazio orokorrak honako hauek izango dira:...»</i>

BSKU6Fc9717e-ccce-4861-a937-95fd31e95213



<p>«e) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dagoela ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Korporazioarenak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak betetzeari dagokionez, ordenantza honen 10. artikuluekin bat etorrita.»</p>	<p>«e) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak, ordenantza honen 10. eta 11. artikuluekin bat etorrita.»</p>
--	---

13. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Indarrean dagoen testua (13.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (14.artikulua):
<p>«2. Diruz lagundutako jarduera pertsona edo entitate onuradunaren baliabide propioekin finantzatuko da dagokion zenbateko edo proportzioan, baldin eta hala xedatuta badago dagokion ordenantza espezifikoa, deialdian, emakida-ebazpenean edo hitzarmenean.</p> <p>...</p> <p>«3. Oro har, eta ordenantza espezifikoa, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean xedatzen denari kalterik egin gabe, ordenantza honekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza ...»</p>	<p>«2. Pertsona edo entitate onuradunaren baliabide propioekin finantzatuko da diruz lagundutako jarduera, dagokion zenbateko edo proportzioan, baldin eta hala xedatuta badago dagokion oinarri arautzaileetan, deialdian, emakida-ebazpenean edo hitzarmenean.</p> <p>...</p> <p>«3. Oro har, eta oinarri arautzaileetan, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean xedatzen denari kalterik egin gabe, ordenantza honekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza ...»</p>

15. artikulua. Udalaren dirulaguntza jardueraren publikotasuna.

Indarrean dagoen testua (15.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (16.artikulua):
<p>«2. Era berean, Tolosako Udalak eta bere erakunde publikoek emandako dirulaguntzak Tolosako Udalaren web-orrian argitaratuko dira, zehatz adierazirik zein diren dirulaguntza horien zenbateko, helburu edo xedea eta</p>	<p>«2. Era berean, Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko dira, zehatz adierazirik zein diren dirulaguntza horien zenbateko, helburu edo xedea eta onuradunak, kalterik egin gabe oinarri</p>



onuradunak, kalterik egin gabe ordenantza espezifikoak, deialdiak, dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak, kasuan kasu, ...»	arautzaileak , deialdiak, dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak, kasuan kasu, ...»
--	--

16. artikulua. Bermeen araubide orokorra.

Indarrean dagoen testua (16.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (17.artikulua):
<p>«2.b) Pertsona edo entitate onuradunek edo entitate laguntzaileek haien gain hartutako konpromisoak beteko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen bada, eta ordenantza espezifikoa, deialdian, emateko ebazpenean edo hitzarmenean hala aurreikusita badago.</p> <p>3. Ordainketa aurreratuen kasuetan edo, halakorik badago, konturako ordainketen kasuetan, bermeak eratuko dira ordainketa horien zenbatekoarekin, gehi ordenantza espezifikoak, deialdiak, emateko ebazpenak edo hitzarmenak agintzen duen portzentajea, zeina ez baita inoiz 100eko 20 baino handiagoa izango, eta bermeak estali beharko du ordainketa aurreratuaren zenbatekoa edo, konturako ordainketen kasuan, zenbateko hori gehi sor litezkeen berandutze-interesen zenbateko aintzatetsia. »</p>	<p>«2.b) Pertsona edo entitate onuradunek edo entitate laguntzaileek haien gain hartutako konpromisoak beteko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen bada, eta oinarri arautzaileetan, deialdian, emateko ebazpenean edo hitzarmenean hala aurreikusita badago.</p> <p>3. Ordainketa aurreratuen kasuetan edo, halakorik badago, konturako ordainketen kasuetan, bermeak eratuko dira ordainketa horien zenbatekoarekin, gehi oinarri arautzaileek, deialdiak, emateko ebazpenak edo hitzarmenak agintzen duen portzentajea, zeina ez baita inoiz 100eko 20 baino handiagoa izango, eta bermeak estali beharko du ordainketa aurreratuaren zenbatekoa edo, konturako ordainketen kasuan, zenbateko hori gehi sor litezkeen berandutze-interesen zenbateko aintzatetsia. »</p>

17. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

Indarrean dagoen testua (17.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (18.artikulua):
<p>«1. Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da. Prozedura horretan aurkezturiko eskabideen alderaketa egin behar da haien hurrenkera ezartzeko, ordenantza espezifikoa aldez aurretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera,</p>	<p>«1. Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da. Prozedura horretan aurkezturiko eskabideen alderaketa egin behar da haien hurrenkera ezartzeko, oinarri arautzaileetan zehaztutako balorazio irizpideen arabera, dirulaguntzak</p>



<p>dirulaguntzak baloraziorik altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz. ...»</p>	<p>baloraziorik altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz. ...»</p>
--	--

18. artikulua. Prozeduraren hasiera

Indarrean dagoen testua (18.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (19.artikulua):
<p>«1. Dirulaguntzak norgehiagoka emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, udal Kontuhartzaitzak txostena egin ondoren ordenantza honetan edo ordenantza espezifikoa zehaztutako organo eskudunak onaturiko deialdiaren bitartez, eta deialdian garatuko da deitutako dirulaguntzak emateko prozedura, bat etorrita ordenantza honekin, DLOren I. Tituluko II. Kapituluarekin eta DLOa garatzeko Araudiarekin eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarritzko legeriarekin, bai eta aplikagarri den Ordenantza espezifikoa araututakoarekin ere.»</p> <p>...</p> <p>«4. Deialdiak honako eduki hau izango du ezinbestean:</p> <p>a) Adieraziko da zein osoko bilkuratan hartutako erabakiz onartu diren eta zein aldizkari ofizialetan dauden argitaratuta Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokor hau eta deialdiaren oinarri-arautzaileak onartu dituen Ordenantza espezifikoa.»</p> <p>«f) Indicación de la posibilidad de que la persona solicitante de la subvención opte por autorizar al órgano gestor para que éste pueda recabar el certificado o documento acreditativo</p>	<p>«1. Dirulaguntzak norgehiagoka emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, udal Kontuhartzaitzak txostena egin ondoren, oinarri arautzaileetan zehaztutako organo eskudunak onaturiko deialdiaren bitartez, eta deialdian garatuko da deitutako dirulaguntzak emateko prozedura, bat etorrita ordenantza honekin, DLOren I. Tituluko II. Kapituluarekin eta DLOa garatzeko Araudiarekin eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarritzko legeriarekin, bai eta aplikagarri den oinarri arautzaileetan araututakoarekin ere.»</p> <p>...</p> <p>«4. Deialdiak honako eduki hau izango du ezinbestean:</p> <p>a) Oinarri arautzaileak argitaratuta dauden aldizkari ofiziala adieraztea, horiek deialdiarekin batera onartu eta argitaratzen direnean izan ezik.</p> <p>«Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.»</p> <p>...</p> <p>Oinarri arautzaileak deialdiarekin batera</p>



<p>de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.»</p> <p>5.</p> <p>e) ... «Halaber, balorazio irizpideei dagokienez, dirulaguntzaren xedearen arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bada, oinarri arautzaileetan honako baldintza hauetako bat edo batzuk sartzea proposatzen da: pertsonekin lotutako balorazio-irizpideen artean, puntuazio gehigarri bat ematea proposatzen da dirulaguntzaren hartzailea emakumea (edo guraso bakarreko familia) bada, edo emakumeen edo indarkeria matxistaren biktima izandako emakumea bada.»</p>	<p><i>onartu eta argitaratzen badira, deialdian ez dira sartuko oinarri horietan arautzen diren edukiak.»</i></p> <p>5.</p> <p>e) ... «<i>Emakumeen eta gizonen berdintasuna dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta alderdi garrantzitsua bada, oinarri arautzaileetan honako baldintza hauetako bat edo batzuk sartzea proposatzen da: pertsonekin lotutako balorazio-irizpideen artean, puntuazio gehigarri bat ematea proposatzen da dirulaguntzaren hartzailea emakumea (edo guraso bakarreko familia) bada, edo emakumeen edo indarkeria matxistaren biktima izandako emakumea bada.»</i></p>
---	---

19. Artikulua. Prozeduraren instrukzioa

Indarrean dagoen testua (19.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (20.artikulua):
<p>«3. Instrukzioan ekintza hauek egingo dira nahitaez:</p> <p>Eskabideen ebaluazioa, ordenantza espezifikoan eta deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera eginga. Ordenantza espezifikoan eta deialdian aurretiatzko ebaluazio fase bat ezarri ahal izango da, dirulaguntzaren onuraduna izateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko. »</p> <p>...</p> <p>«4. Behin eskabideak ebaluatu eta haien gaineko txostena eginez gero,</p>	<p>«3. Instrukzioan ekintza hauek egingo dira nahitaez:</p> <p>Eskabideen ebaluazioa, <i>oinarri arautzaileetan</i> eta deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera eginga. <i>Oinarri arautzaileetan</i> eta deialdian aurretiatzko ebaluazio fase bat ezarri ahal izango da, dirulaguntzaren onuraduna izateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko. »</p> <p>...</p> <p>«4. Behin eskaerak ebaluatu eta haien gaineko txostena egin ondoren, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak</p>



<p><i>instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak dirulaguntzak emateko proposamena egin eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, hark irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da. »</i></p>	<p><i>dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio kide anitzeko organoari, honek dirulaguntza emakida-proposamena egin diezaion organo emaileari.</i></p> <p><i>Kide anitzeko organoaren osaera oinarri arautzaileek ezartzen dutena izango da. Bertan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.»</i></p>
--	---

20. artikulua. Prozeduraren ebazpena

<p><i>Indarrean dagoen testua (20.artikulua):</i></p>	<p><i>Onartzea proposatzen dena (21.artikulua):</i></p>
<p><i>«2. Ebazpena arrazoituko da bat etorri ordenantza honetan, ordenantza espezifikoan eta dirulaguntzaren deialdian xedatutakoarekin, eta, edonola ere, prozeduran egiaztaturik geratu behar dute harturiko ebazpenaren oinarriek... »</i></p>	<p><i>«2. Ebazpena arrazoituko da bat etorri ordenantza honetan, oinarri arautzaileetan eta dirulaguntzaren deialdian xedatutakoarekin, eta, edonola ere, prozeduran egiaztaturik geratu behar dute harturiko ebazpenaren oinarriek... »</i></p>

26. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratzea.

<p><i>Indarrean dagoen testua (26.artikulua):</i></p>	<p><i>Onartzea proposatzen dena (27.artikulua):</i></p>
<p><i>«1. Azpikontratazioa onartuko da, non eta ordenantza espezifikoak, dirulaguntzaren deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak espresuki debekatzen ez badu... »</i></p>	<p><i>«1. Azpikontratazioa onartuko da, non eta oinarri arautzaileek, dirulaguntzaren deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak espresuki debekatzen ez badu... »</i></p>

27. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

<p><i>Indarrean dagoen testua (27.artikulua):</i></p>	<p><i>Onartzea proposatzen dena (28.artikulua):</i></p>
---	---



<p>«1. Dagokion ordenantza espezifikoa, deialdian, ebazpenean edo hitzarmenean zehaztuko da zein gastuk jaso dezaketen dirulaguntza, bat etorririk artikulu honetan, DLOren 31. artikuluan eta DLOren 83. artikuluan ezarritakoarekin.»</p>	<p>«1. Dagokion oinarri arautzaileetan, deialdian, ebazpenean edo hitzarmenean zehaztuko da zein gastuk jaso dezaketen dirulaguntza, bat etorririk artikulu honetan, DLOren 31. artikuluan eta DLOren 83. artikuluan ezarritakoarekin.»</p>
---	--

28. Artikulua. Udalaren dirulaguntzen justifikazioa

<p><i>Indarrean dagoen testua (28.artikulua):</i></p>	<p><i>Onartzea proposatzen dena (29.artikulua):</i></p>
<p>«2. Justifikazioa laguntza eman duen organoaren aurrean egingo da. Ordenantza espezifikoa batean, hitzarmenaren testuan edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean zehaztuko da dirulaguntzak justifikatzeko modua, eta era hauetako bat izango da:</p>	<p>«2. Justifikazioa laguntza eman duen organoaren aurrean egingo da. Oinarri arautzaileetan, hitzarmenaren testuan edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean zehaztuko da dirulaguntzak justifikatzeko modua, eta era hauetako bat izango da:»</p>

29. Artikulua. Justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta (30.artikulua orain) eta 30. artikulua. Justifikatzeko kontu erraztua (31.artikulua orain)

Horietan zuri ketarako aurkeztu behar den jarduera-memoriak ondorengo hau bete behar duela adieraziko da:

«1/2023ko Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko Legearen testu bateginan jasotzen den moduan, memorian sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren onuradunen edo azken erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.»

Onuradunek zuri ketarako aurkeztu beharreko dokumentuen artean diru-sarreraren eta gastuen balantzea gehitzea proposatzen da (30.1.2 eta 31.2.b artikulua).

35. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa egiaztatu eta onartzea



Indarrean dagoen testua (35.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (36.artikulua):
«1. Behin onuradunak justifikazioa aurkeztuz gero, dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak egiaztatu beharko du aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela ordenantza honetan, ordenantza espezifikoa eta dirulaguntzaren deialdian, hitzarmenean edo zuzenean emateko ebazpenean ezarritako baldintzak.»	«1. Behin onuradunak justifikazioa aurkeztuz gero, dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak egiaztatu beharko du aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela ordenantza honetan, oinarri arautzaileetan eta dirulaguntzaren deialdian, hitzarmenean edo zuzenean emateko ebazpenean ezarritako baldintzak.»

37. artikulua.- Gastua egiteko prozedura

Indarrean dagoen testua (37.artikulua):	Onartzea proposatzen dena (38.artikulua):
«6. b) Onuraduna estatu- eta udal-ogasunekiko eta Gizarte Segurantzaren aurreko zerga-betebeharren betekizunean egunean dagoela eta, ordenantza honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza itzultza behartzen duen ebazpen baten ondorioz zordun ez dela egiaztatzen duen agiria.»	«6. b) Onuraduna estatu- eta udal-ogasunekiko eta Gizarte Segurantzaren aurreko zerga-betebeharren betekizunean egunean dagoela eta, ordenantza honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza itzultza behartzen duen ebazpen baten ondorioz zordun ez dela egiaztatzen duen agiria.»

Bigarren xedapen gehigarri moduan ondorengo testu hau gehitzea proposatzen da.

«Tolosako Udaleko Alkatetzari ahalmena ematen zaio Ordenantza hau aldatzeko, baldin eta nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondoriozkoak badira, eta eskakizunak aldatu beharra edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu beharra badakarte. Aldaketetan beren-beregi adieraziko da hori. Aldaketa horien berri, berehala emango zaio udalbatzari, berrets ditzan.»

Azken xedapenean epea aldatu beharko litzateke.

Indarrean dagoen testua:	Onartzea proposatzen dena:
«Tolosako Udalaren dirulaguntzen ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onartu eta hurrengo egunean.»	«Tolosako Udalaren dirulaguntzen ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari



	<i>Ofizialean argitaratu eta 15 egun baliouduneko epea igaro ondoren.»</i>
--	--

- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko 23/1998 Legea indargabetu egin da, eta horren ordezt, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legea dago indarrean. Aldaketa hori egitea proposatzen da.
- Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen aipamena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuagatik ordezkatu da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Jose M^a Villanueva Telleria, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Beraz, aho batez onartu da proposamena, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako hau onartzea proposatzen zaio:

IRIZPENA

Lehena.-Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra hasierako izaeraz aldatzeko proposamena onartzea (I eranskinean dago jasota).

Bigarrena.- Ordenantza horren aldaketa eta dagokion espediente informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

Hirugarrena.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

Laugarrena.- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

Bostgarrena.- Ordenantza Orokorra behin-betikoz onartu eta indarrean sartzen denean, Tolosako udaleko sail ezberdinek aukeratu ahal izango dute orain arteko berezko Ordenantzekin jarraitu, ala urte bateko iraupena izango duten Oinarri Arautzaileak izapidetu. Azken kasu honetan, Alkatetzari ahalmena ematea proposatzen da, dagokion



dirulaguntzaren ordenantza partikularra indarrrik gabe utz dezan. Ordenantza hori oinarri arautzaileek ordezkatu dute, eta horiek urtebeteko indarraldia izango dute.

Erabaki hori oinarri arautzaileak onartzearekin batera hartu beharko da, arau-hutsunerik egon ez dadin. Erabaki indargabetzaileak korporazioko osoko bilkuran aurkeztu beharko dira, egiten duten lehenengo bilkuran, berrets daitezten.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orrokorra hasierako izaeraz aldatzea.

4. ONARTZEA “ASOCIACIÓN PROTECTORA DE ANIMALES Y PLANTAS DE GIPUZKOA” ELKARTEAREN ONDORENGO KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

IKUSIRIK

"Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak animaliak biltzeko zerbitzuari dagozkion ondorengo 4 faktura aurkeztu ditu, baina horien gastua ez da behar bezala izapidetu:

Faktura zk.	Fakturaren data	Kontzeptua	Zenbatekoa	Partida
087/2023	2023/09/30	TXAKUR ETA KATUEN BILKETA. IRAILA	2.277,83	1 0700.227.07.311.00 2023
170/2023	2023/11/30	HILEKO KUOTA FINKOA: AZAROA 2023	997,04	1 0700.227.07.311.00 2023
131/2023	2023/12/28	TXAKUR ETA KATUEN BILKETA. ABENDUA	825,83	1 0700.227.07.311.00 2023
185/2023	2023/12/29	HILEKO KUOTA FINKOA: ABENDUA 2023	997,04	1 0700.227.07.311.00 2023
		Guztira	5.097,74	



Faktura horietan sartutako gastuek ez dute aurrekontu-kontsignaziorik 2023ko ekitaldian, eta kontratu txikien atalasea gainditu duen gastu errepikakor baten aurrean gauden arren, zerbitzua ez dago lizitatuta.

KONTUAN HARTURIK

Jarduneko kontu-hartzaileak egindako txostena. Bertan, honako hauek jasotzen dira:

1.- Kontuhartze eginkizunak agerian jarri du egindako gastuak ez dituela bete eranskinaren oinarriko betekizun hauek: 2.4.9.01 (aurrekontu kreditu egotea) eta 2.4.9.04 (obligazioak aldeko fiskalizazioa jasotako gastuei dagozkiela).

Alde batetik, 2023ko ekitaldiko aurrekontuan ez dago kreditu egoki eta nahikorik, lotura juridikoari dagokionez, "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako lau fakturei dagokien gastua onartzeko.

Honen inguruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 19.3 artikulua ere honela dio:

"3.- Toki administrazioak ematen dituen erabaki, xedapen, ebazpen eta egintzek, beraien bitartez gastuen orrian baimendutako muga izaerako kredituen zenbatekoa baino gehiagoko zenbatekoko gastu-konpromisoak eskuratu nahi direnean, zuzenbide osoko baliogabetasuna izango dute, sortzen diren erantzukizunei kalte egin gabe."

Bestalde, gastua kontratu txiki bidez izapidetu da, SAREKO aplikazioan egindako eskarien bidez. Baina, aurkeztutako faktura hauek, eta baita urtean zehar aurkeztu diren gainontzekoak ere, prestazio errepikakor baten ondorio dira, eta Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen 28.8 artikulua araberan, prestazio horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun.

Kontratu txiki baten bidez ezin bada gastu hau tramitatu, aldeztatik fiskalizatu behar da.

2.- Zerbitzu honi buruz 2023ko otsailaren 22an egindako fiskalizazio 39/2023 txostenean eta 2023ko martxoaren 1eko 2023/466 Alkatetza Dekretuan Idazkariak egindako eginbidean adierazten zen zerbitzu hau ezin zela kontratu txikien bidez tramitatu eta lizitazio prozedura hasi beharra zegoela.

Zerbitzuaren lizitazioa abian jartzeko denbora emate aldera, 2023an ez da txostenik egin "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako fakturei buruz. Baina, egia esan, nahitaezko lege-prozeduraren arabera izapidetzen ez den zerbitzu bat ematen jarraitzen dugu. Beraz, lizitazioa lehenbailehen martxan jartzea derrigorrezkoa da.



3.- Aurrekontu bakoitzeko kredituen kargura, aurrekontu-ekitaldiaren urte naturalean egiten diren gastuetatik eratorritako obligazioak bakarrik hartu ahal izango dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da, ordu arte onartutako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

Hala ere, ordenamendu juridikoak aurreko ekitaldiei dagozkien obligazioak onartzeko aukera ezartzen du, indarrean dagoen aurrekontuaren kargura, kredituen judizioz kanpoko aitorpenaren mekanismoaren bidez. Formula hau salbuespenez erabili behar da eta soilik jatorrizko aurrekontura egozteko bidegabeki konprometitu ziren obligazioak, erabateko deuseztasuneko kasu bat sortzen duenean. Eskumena udalbatzarena da.

Kredituen judizioz kanpoko aitorpen bat izapidetuz gero, egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna aztertu beharko da. Horretarako, saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, adieraziz, prestazioak egin diren eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.

Bestalde, egiaztatu behar da aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela 2024ko aurrekontuan. Honen inguruan, gastu honi aurre egiteko badago nahiko kreditua 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidan.

4.-Kontuhartze-eginkizunaren funtzioaren emaitzari buruz, aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 70. artikulua, besteak beste, honela dio:

“1.- Kontu-hartze eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

.....

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren onarpenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebatzen den arte, betiere honelakoetan gertatzen denean:

a) Oinarria kredituaren askiezintasunaren edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean.

b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.



d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.

4.- Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

Aurrekoa eragotzi gabe, desadostasuna dagoenean, toki entitateko lehendakariak txostena egiteko eskatu ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiko kontrol organoari, erregelamenduz jasotzen den prozedurari jarraituz

5. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ingerak honelakoak direnean udalbatzak ebatzi beharko du eztabaida:

a) Kredituaren askiezintasunaren edo ezegokitasunaren ondoriozkoak.

b) Berak onetsi behar dituen betebeharrei edo gastuei dagozkienak.”

Abenduaren 27ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuak ere honela dio 12.2 eta 12.3 artikuluetan:

“2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespeneri edo xedapeneri, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.”

Kasu honetan, kreditu nahikoa eta egokia ez dagoenez, Udalbatzari dagokio erreparoa ebaztea.



Saileko arduradunak egin beharreko txostena ez dagoenez, bozkatu behar den irizpen proposamenaren onarpena baldintzatuta egongo da aldeko txosten teknikoa izatera.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, baldintzatutako irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Jose M^a Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Abstentzioa: Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa

Beraz, gehiengoz onartu da proposamena, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako hau onartzea proposatzen zaio:

IRIZPENA

LEHENA.- Udalbatzak erreparoa altxatzea.

BIGARRENA.- “Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa” elkartearen ondorengo kredituen judizioz kanpoko aitortpena onartzea:

Faktura zk.	Fakturaren data	Kontzeptua	Zenbatekoa	Partida
087/2023	2023/09/30	TXAKUR ETA KATUEN BILKETA. IRAILA	2.277,83	1 0700.227.07.311.00 2023
170/2023	2023/11/30	HILEKO KUOTA FINKOA: AZAROA 2023	997,04	1 0700.227.07.311.00 2023
131/2023	2023/12/28	TXAKUR ETA KATUEN BILKETA. ABENDUA	825,83	1 0700.227.07.311.00 2023
185/2023	2023/12/29	HILEKO KUOTA FINKOA: ABENDUA 2023	997,04	1 0700.227.07.311.00 2023
		Guztira	5.097,74	

HIRUGARRENA.- Onarpena baldintzatuta uztea zerbitzuaren arduradunaren aldeko txosten teknikoa izatera.

LAUGARRENA.- Kreditu horiek ekitaldi honetako 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu-partidaren kargura aplikatzea.

BOSTGARRENA.- Errekerimendua luzatzea Udaltzaingoari dagokion lizitazio prozedura abian jarri dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du “Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa” elkartearen ondorengo kredituen judizioz kanpoko aitortpena onartzea.

5 ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

UNITATEA	KONTUHARTZAILETZA
XEDEA	Itxitako ekitaldiko fakturen onartpena

IKUSIRIK

2023ko abenduaren 29an jarraian zehazten diren fakturak jaso zirela eta 2019, 2020 eta 2022 ekitaldietako faktura data dutela, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2023/12/29	2019/11/12	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	2019/70	Iragazketa ezabatzea udaletxeko estalkiaren leihoan	147,40 €
2023/12/29	2020/12/29	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	2020/106	Iragazteko, probak egiteko eta konpontzeko Errotan egindako lanak	567,49 €
2023/12/29	2022/06/07	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	2022/56	Udaletxeko teilatuko kanal-kaxa aldatzea	4.099,48 €

Aipatutako fakturek dagokion sailaren oniritzia jaso zutela 2024ko urtarrilaren 12an.



KONTUAN HARTURIK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2023ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturari dagozkion obligazioak onartu gabe zeuden eta 2024ko aurrekontutik onartuko dira.

Faktura horiek onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkek: Jose M^a Villanueva Telleria, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Beraz, aho batez onartu da proposamena, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari honako hau onartzea proposatzen zaio:

IRIZPENA

Itxitako ekitaldietako faktura hauek onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2023/12/29	2019/11/12	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	2019/70	Iragazketa ezabatzea udaletxeko estalkiaren leihoan	147,40 €
2023/12/29	2020/12/29	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	2020/106	Iragazteko, probak egiteko eta konpontzeko Errotan egindako lanak	567,49 €
2023/12/29	2022/06/07	PAGOLA ERAIKUNTZAK S.L.	56/2022	Udaletxeko teilatuko kanal-kaxa aldatzea	4.099,48 €



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu ditu Itxitako ekitaldiko fakturak.

6. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA KONTRATUAREN ESPEDIENTEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOARI HELARAZTEA, ETA ESPEDIENTEA EBAZTEKO GEHIENENKO EPEA ETETEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua
Unitate sustatzailea	Kirolak Saila
Espedientea	2021CSER0002

II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Hirugarrena.- 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.



Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak.

Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI, S.L.U. enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua formalizatzen denetik kontaktzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta -baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Seigarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2022ko otsailaren 23an, udalbatzak onartu zuen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000euro.

Zazpigarrena.- Adjudikazio ebazpena lizitatzaille eta hautagai guztiei legearen arabera jakinarazi eta gero, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak kontratazio-arloko errekurtsio berezi bat jarri zuen ebazpenaren kontra.

Zortzigarrena.- Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak, 2022ko uztailaren 5eko 116/2022 (EB 2022/050) Ebazpenaren bidez, aipatutako errekurtsio hori ezetsi eta esleipen prozeduraren etendura kentzea erabaki zuen. Horrenbestez, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari jakinarazi zitzaion Tolosako Udalarentzat zerbitzuak emateko azken eguna 2022ko uztailaren 31 izango zela eta, halaber, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresa kontratista berriari jakinarazi zitzaion 2022ko abuztuaren 1ean formalizatuko dela dagokion kontratua eta egun horretatik aurrera hasi beharko duela Tolosako Udalarentzat lanean.

Bederatzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko uztailaren 8an, 2022-8036 sarrera zenbakiarekin, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek idatzi bat aurkeztu zuten Udalean aipatutako data hori hilabete atzeratzeko eskatuz.

Hamargarrena.- 2022ko uztailaren 15ean Kirolak Saileko teknikariak, enpresek eskatutakoaren aldeko txostena igorri zuen, ondo oinarrituta baitago aurkeztutako eginkizun-plangintza.

Hamaikagarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen Tolosako Udalaren eta BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresaren artean zegokion kontratua.



Hamabigarrena.- Udalbatzak, 2023 azaroaren 14an, aparteko osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: Tolosako Udalaren kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzua emateko kontratua suntsiarazteko jardunbideari hasiera ematea eta bai emakidadunadi, baita erakunde abal-emaileari ere, entzunaldi izapidetzea ematea.

Hamahirugarrena.- 2023ko abenduaren 4an sarrera izan zuen udal-erregistroan, 14907-2023 zenbakiarekin, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak aurkeztutako alegazioa. Horiek guztiak 2023EJEC0014 espedientean daude jasota eta horiei egiten zaie erreferentzia zuzena beharrezkoak ez diren errepikamenak sahiestearren.

III.- ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Herri Administrazioaren ahalmenak

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 190. artikuluan xedatzen ditu Herri Administrazioaren ahalmenak administrazio-kontratuetan. Horrela, kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko ahalmena. Bestalde 191. artikuluan ahalmen horiek aplikatzeko prozedura ezartzen du Legeak; horien artean, kontratistari entzunaldia:

Subsección 2.ª Prerrogativas de la Administración Pública en los contratos administrativos

Artículo 190. Enumeración.

Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.

Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la presente Ley para cada tipo de contrato. En ningún caso dichas facultades de inspección podrán implicar un derecho general del órgano de contratación a inspeccionar las instalaciones, oficinas y demás emplazamientos en los que el contratista desarrolle sus actividades, salvo que tales emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En tal caso, el órgano de contratación deberá justificarlo de forma expresa y detallada en el expediente administrativo.

Artículo 191. Procedimiento de ejercicio.

1. En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas establecidas en el artículo anterior, deberá darse audiencia al contratista.

...

3. No obstante lo anterior, será preceptivo el dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos



y respecto de los contratos que se indican a continuación:

a) La interpretación, nulidad y resolución de los contratos, **cuando se formule oposición por parte del contratista.**

b) Las modificaciones de los contratos cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido, y su precio sea igual o superior a 6.000.000 de euros.

c) Las reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros. Esta cuantía se podrá rebajar por la normativa de la correspondiente Comunidad Autónoma.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak ebazpen-proposamenaren aurkako alegazioa aurkeztu duenez, **nahitaezkoa da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.**

2.- Ebazteko gehienezko epea etetea.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 22.1.d) artikuluan hau xedatzen du:

Artículo 22. Suspensión del plazo máximo para resolver.

1. El transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se podrá suspender en los siguientes casos:

d) Cuando se soliciten informes preceptivos a un órgano de la misma o distinta Administración, por el tiempo que medie entre la petición, que deberá comunicarse a los interesados, y la recepción del informe, que igualmente deberá ser comunicada a los mismos. Este plazo de suspensión no podrá exceder en ningún caso de tres meses. En caso de no recibirse el informe en el plazo indicado, proseguirá el procedimiento

Beraz, kasu honetan eta arestian azaldutakoagatik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena nahitaezkoa denez, ebazteko gehieneko epea eteteko baldintzak ematen dira.

IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada



aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.570.531,22 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gehiago da; gainera, kontratuaren iraupena lau urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Gogorarazi behar da hemen, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak hau esaten duela 47.2 artikuluan:

2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:

j) Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

Tolosako Udalaren kasuan, aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 20a 6.525.380 euro dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsiak aipatutako atalase hori gainditzen ez duenez, Udaleko Osoko Bilkurak onartu beharko du lizitazioa **gehiengo soilarekin** eta ez gehiengo osoarekin.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazábal.



Abstentzioak: Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

Beraz, gehiengoaz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Onartzea Tolosako Udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren suntsiarazpenean enpresa kontratistak aurkeztutako alegazioak direla eta, kontratazio jardunbidearen espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea SPKLren 191. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bigarrena.- Onartzea, espedientea ebazteko gehieneko epea etetea 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 22.1.d) artikuluan hau xedatutakoarekin bat etorriz eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena nahitaezkoa delako.

Hirugarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea enpresa emakidadunari, Kirolak Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea eta ebazteko gehieneko epea etetea.



7. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO PLANAREN ETA BERE ERANSKINEN EGUNERATZEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

UNITATEA	IDAZKARITZA
XEDEA	UDALBATZA OSOARI AURKEZTEN ZAION IRIZPENA
GAIA	TOKOSAKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO PLANA EGUNERATZEA

IKUSIRIK

LEHENA.- 2022ko uztailaren 28an, Ohiko Osoko Bilkuran, Tolosako Udalbatza Osoak Tolosako Udaleko Iruzuraren Aurkako Plana onartu zuela.

BIGARRENA.- 2023ko urtarrilaren 24an, HFP/55/2023 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa onartu zela eta Tolosako Udalaren Iruzuraren Aurkako Planak eta bere eranskinek egokitu egin behar dutela Agindu horretara.

HIRUGARRENA.- 2024ko otsailaren 15ean, Tolosako Udaleko Iruzurra Kontrolatzeko Organoak on ikusia eman ziola Iruzuraren Aurkako Plana eta horren eranskinak eguneratzeari.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Tolosako Udalaren Iruzuraren Aurkako Planak, besteak beste, honako aldaketak izan dituela:

Salaketen kanalaren inguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak irekitako salaketa anonimoko barne-kanalak gaitzeko sistema informatikoa kontratatzeko espedientera atxikitzea eginda dagoela.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa osatzen duten kideen eguneratzea.

III. eranskinean jasotako arrisku matrizea osatzea.

HFP/55/2023 Agindura egokitzeko egindako aldaketak. Hala nola Agindu horretan jasotzen den Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpen eredu berria txertatzea.

BIGARRENA.- Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mendeko Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gida izeneko dokumentua egin zuen 2022ko otsailaren 24an. Dokumentu horretan gomendio hau egiten da:



“De conformidad con el artículo 6.5 de la Orden de gestión del PRTR, la aprobación de los planes de medidas antifraude compete a las entidades decisoras y ejecutoras definidas en el Anexo I de la Orden, si bien no se concreta el órgano o autoridad dentro de las misma que ha de aprobarlos.

En aras de garantizar la homogeneidad y la coherencia en sus respectivos ámbitos competenciales, sin perjuicio de los principios de cooperación, coordinación y colaboración entre Administraciones Públicas¹³ y del respeto a sus competencias en materia de organización de las diferentes unidades y órganos administrativos¹⁴, se recomienda que los órganos encargados de la aprobación de los planes de medidas antifraude en el ámbito de las entidades decisoras y ejecutoras sean los siguientes:

(...)

c) En el ámbito de entidades que integran la Administración Local, los máximos órganos o autoridades de gobierno en la respectiva Entidad Local.”

Gomendio hau jarraituz, eta 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituanak, bere 22.2. artikulua a) eta d) ataletan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako udalaren iruzurraren aurkako plana onartzeko organo eskuduna Osoko Bilkura da.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, **aho batez**, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalaren Iruzzurraren Aurkako Planaren eta bere eranskinen eguneratzea, irizpen honetan eranstean zaizkion dokumentuen arabera.

BIGARRENA.- Argitaratzea Planaren testu osoa eta bere eranskinak udal honen egoitza elektronikoa eta gardentasun atarian.

HIRUGARRENA.- Bidaltzea Iruzzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari onartutako Iruzzurraren Aurkako Plana.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udalaren Iruzuraren Aurkako Planaren eta bere eranskinen eguneratzea.

8. HASIERAKO ONESPENA EMATEA TOLOSAKO HIRI ORDENAZIOKO PLAN OROKORRAREN KATALOGOAREN ALDAKETARI.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko otsailaren 20ko irizpena

I.- AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Alkatearen probidentzia	2023/07/03	
Aurretzako kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan:	2023/11/13 - 2023/12/13	
Aurretzako kontsulta publikoaren iragarkia web orrian eta gardentasun atarian:	2023/11/13	
Egin edota aurkeztutako ekarpenak:	2023/12/11 E.L.G. 2023/12/12 L.G. 2023/12/12 S.L.C. 2023/12/12 A.U.P. 2023/12/12 M.R.C. 2023/12/12 E.B.G. 2023/12/12 M.A.	
Txosten juridikoa, informazio aldiari buruzkoa.	2024/01/09	Zazpi ekarpen aurkeztu dira
Udaleko Idazkariaren ziurtagiria, informazio aldiari buruzkoa.	2024/01/29	Zazpi ekarpen aurkeztu dira

- Aurkeztutako ekarpenek, besteak beste, honakoa jasotzen dute:



1. *“El presente documento se trata de un índice en el que se recogen las direcciones de los edificios y elementos urbanos del callejero de B5M infraestructura de datos espaciales de Guipúzcoa, para su estudio e inserción en el catálogo del Plan General de la Villa de Tolosa.*

En este índice se recoge un gran número de elementos, de distinta tipología, para su estudio. Dada la insuficiencia del catálogo actualmente vigente y viendo el alto riesgo de desaparición de muchos de los edificios y elementos de mobiliario urbano que han constituido la imagen y la esencia de la Villa de Tolosa a lo largo del tiempo, se considera muy necesaria la urgente redacción de un Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido del municipio. Esta herencia recibida del tiempo y la historia ha de ser preservada, puesta en valor, restituida, mejorada y legada a las generaciones venideras.

El futuro plan deberá estudiar debidamente cada uno de los elementos atendiendo al contexto arquitectónico, histórico, sociológico, cultural y artístico en el que fue construido. Analizar sus características constructivas, estilísticas y el nivel de conservación que presentan; y acorde a ello establecer un grado de protección adecuado y correspondiente.

Con el estudio de este inventario, que no contempla la totalidad de los elementos a proteger pero si enumera un gran número de ellos, se podrá observar que se recogen edificios de muy distinta tipología y época.

Especial mención merecen, los pocos ejemplos de villas residenciales pertenecientes al periodo industrial. Estas son el ultimo testigo de esa época tan importante en el desarrollo de Tolosa y de la que apenas han sobrevivido una veintena, -los escasos ejemplos del Paseo San Francisco, Cuesta del Conde, Avenida Zumalacárregui- y sobre todo las cinco villas del arrabal de Santa Clara que conforman el frente urbano hacia el Rio Oria a su paso por el Puente Nuevo. Es verdaderamente urgente que el Ayuntamiento promueva la protección de estos elementos, sobre todo atendiendo al paulatino proceso de deterioro que están sufriendo dos de ellas.

Además, el arbolado de gran porte que se alza en sus jardines constituye el telón de fondo del Rio Oria tras el Puente Nuevo, en toda la vista que se abarca desde El Tinglado y armoniza el entorno de los edificios fuera de escala que se levantan tras él.

Importante mención también a los puentes citados en este índice, muchos de ellos del siglo XVII. A destacar, el Puente Nuevo, de estilo secesión vienesa, como primer puente de tablero de hormigón realizado en la Villa.

Los edificios que se recogen en este índice, pertenecientes a épocas posteriores a la década de los años 50, constituyen en algunos casos ejemplos destacados de la arquitectura contemporánea local. Otros forman conjuntos reconocibles dentro del paisaje urbano susceptibles de perder sus valores arquitectónicos debido a la práctica indiscriminada de la rehabilitación energética (fachadas ventiladas y SATE), con la consiguiente homogeneización de la ciudad.

Por último, los jardines y parques relevantes, inventariados por la Diputación Foral, como el de Zaballarreta, Elosegui, Prado Pequeño y Prado Grande, junto con su arquitectura y mobiliario urbano, constituyen un valor indiscutible y de gran potencial que Tolosa debe poner en valor y cuidar para el disfrute de los tolosarras. (...).”

2. *“Me gustaría que Tolosa no perdiese su esencia y por eso me gustaría que ciertas cosas permanecieran como están, como :El Prado Pequeño, El puente Nuevo, Las tres villas que lindan con Ibarra, El Archivo , La villa de las monjas de San Francisco, la Iglesia de los franciscanos, que no siga la misma suerte que los Corazonistas, las villas del paseo nuevo”.*



3.

“

Solicito, de cara a mantener intacto nuestro patrimonio historico cultural para las proximas generaciones, la inclusión en el catalogo urbanistico, además de los ya existentes:

- * Zumardi Txiki
- * Zumardi Aundi
- * Puente nuevo
- * Convento sata Clara
- * Parroquia Sta María
- * Parroquia san Francisco
- * Edificio Archivo Provincial
- * Parque zabalarreta
- * la Misericordia y sus campas
- * Parque infantil del paseo de los fueros
- * ...y cualquier otro edificio y/o espacio natural que siendo imagen cultural o historica de la villa merezca ser respetado y conservado para las próximas generaciones.

”

4./ 5. / 6. “ TOLOSAKO KATALOGOA. PROPOSAMENAK.

Multzo Arkitektonikoetarako ingurumen-babesa

Euskal Ondareari buruzko maiatzaren 6eko 6/2019 Legearen arabera, bere Arrazoen Azalpenaren III. paragrafoan:

“...Ingurunearen kontzeptuaren definizio orohartzaille berri bat ere ezarri da, haren izaera instrumentala islatuz, ondasuna integratzen den paisaia-, hiri- eta arkitektura testuinguruari eusteko. Gainera, egungo joera eta sentsibilitate berriekin bat etorritz, kutsadura bisuala eta akustikoa arautzen dira.”

Aurkezten dugun proposamenaren abiapuntua, balio eztabaidaezina duten arkitektura-multzo unitarioetan esku-hartzeko puntualak egiteak ekar ditzaken ondare-, kultura- eta historia-balioen galera da. Kasu hauetan ondasuna eraikin-multzoa da, 6/2019 Legeak aipatzen duen testuinguru bera, bertako zati baten aldaketak dakarren arazoarekin.

Neurri egokiak hartu beharko genituzke lengoia arkitektonikoa errespetatzen duten esku-hartzeak

gauzatu daitezen.

Adibide gisa, Berazubi auzoko Martin J Iraola 2. zenbakian egindako fatxada aldaketa. Gauzatu denak errespetatzen ditu jatorrizko arkitekturaren ezaugarri eta balioak, hain zuzen ere multzoaren irakurketa bateratua ahalbidetzen dutenak? Nahikoa da aldaketa hori guztien artean adostu izana? Urteetan mantendu daiteke gaur egungo egoera.

Udalak nahikoa lege-tresna izan behar ditu errespetuzkoak ez diren esku-hartzeak ez baimentzea

argudiatzeko. Horretarako, existitzen diren multzo guztiak identifikatu eta definitu behar dira (Izaskun

auzoa, Berazubi auzoa, Larramendi 2-4-6, San Estebango Zuberoa auzunea, Amaro, Lurre...), esku

hartzeko tokian tokiko irizpide egokienak ezarri ahal izateko.

Ingurune esanguratsuetarako ingurumen-babesa

Multzo arkitektonikoez gain -eta arestian adierazi den bezala, 6/2019 Legean jasoa dator-, badaude hiri eremu esanguratsuak, elementu babesturen bat izan dezaketenak, gure ustez mantendu beharko lirakeenak, hain zuzen ere ondasuna eremuaren irakurketa bateratu horren baitan dagoelako. Tolosako adibiderik garbiena Zerkausia, Napar Zubia, Zumardi Txikia eta Zubi Berria elementu segidak osatzen duten eremua litzateke.

Fatxaden birgaikuntzak. Irizpideak ezartzea

Klima-aldaketaren aurrean -beranduegi eta modu eskasean- hartzen ari diren erabakiak, zuzenean



eragiten diote gure ondare eraikiari. Fatxada aireztatuak edo kanpoko isolamendu termikoko sistemak -SATE modukoak- jartzeak, fatxaden eraginkortasun energetikoa hobetzen dute, baina oso

kasu zehatzetan izan ezik, fatxaden osaera eta materialtasuna erabat aldatzen dute, hiri-paisaia aldatuz eta distortsio-elementuak sortuz. Esku-hartze hauek ez dute atzera bueltarik izaten (adibidez, La Estrella eraikina).

Agerikoa da kontrolik gabeko fatxaden eraldaketek hirien eta eraikinen nortasun galera eragin dezaketela. Obren erregulaziorik ez da ordea existitzen, babestutako eraikinen kasuetan izan ezik. Lan mota horiek egiteko bideratu diren erraztasunak eta dirulaguntzak, gure ondarearen degradazioa azkartzen ari dira.

Fatxadetan esku hartzeko gutxieneko irizpide batzuk ezartzea proposatzen dugu, lekuaren nortasuna eta haren arkitektura babesteko neurri gisa.

Merkataritza-lokalak eta atariak

Lokal jakin batzuk babestea ere aztertu beharko litzateke (dekorazioa, altzariak...) Tolosaren bilakaera historiko eta kulturalaren parte direlako; katalogoan sartu beharreko beste gai bat iruditzen zaigu. Orain arteko galerak (Café Iruña...) dagoenari eustera behartzen gaitu, horietan erabiltzen den hizkuntzak ondare-balio ia desagertuak baititu (Longaron, Ayerza, Olarreaga, Orus...).

Gehiegi arautzeak ere arazoak ekarri ditzakeela ulertzen dugu, baina nolabait katalogoan gai hauekiko sentsibilitate bat adierazi beharko litzatekeela iruditzen zaigu. Batez ere, udal teknikariek, erremintak izan ditzaten proposamen desegokien aurrean”.

7. *“ En vista de la apertura de una consulta pública a la ciudadanía por parte del Ayuntamiento de Tolosa previa a la aprobación de la ampliación del Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa para su inscripción en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco, yo D. **, mayor de edad, provisto de DNI **, actuando en representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS de SAN FRANCISCO 35 en Tolosa, con CIF N° H20786125, comparezco y, como mejor proceda en derecho, DIGO:*

Que en reunión celebrada el siete de junio de dos mil veintidós, la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Tolosa acordó la Aprobación Inicial Del Proyecto De Urbanización del Subámbito “13.1 Paseo San Francisco 37”.

En esta Aprobación inicial se estimaron las alegaciones interpuestas por nuestra Comunidad San Francisco 35 en relación a la posibilidad de ampliar nuestra rampa de garaje.

En esta Aprobación inicial se estimaron las alegaciones interpuestas por nuestra Comunidad San Francisco 35 en relación a la mejora del alumbrado en el entorno de nuestro portal.

En esta Aprobación inicial se recogía la conveniencia de estudiar la integración del suelo privado adyacente a nuestro portal en la vía pública. Al respecto, la Comunidad San Francisco 35 introdujo una alegación/notificación a dicho Proyecto De Urbanización.

Mediante este escrito pedimos se recojan por la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Tolosa las alegaciones ya estimadas y las pendientes de resolver con la Comunidad San Francisco 35 recogidas en la Aprobación Inicial Del Proyecto De Urbanización del Subámbito “13.1 Paseo San Francisco 37”, y que ante cualquier modificación que se pudiera realizar en el nuevo Catálogo del PGOU de Tolosa en el entorno de nuestra Comunidad y que pudiera afectar a nuestros intereses se incorporen dichas alegaciones”.

II.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Katalogoak hirigintzako antolamenduan babestu beharreko ondasun naturalak eta artifizialak zein diren zehaztu eta zerrenda batera biltzen ditu. Haien ezaugarriak ere jasotzen ditu, eta, beharrezkoa bada, zein maila edo kalifikazio dagokien –aplikatzekoa



den legearen arabera– eta babesaren arautzeko zehaztapenak zein planetan dauzkaten ere zehazten du.

Independenteak izan edo ez, katalogoak plan orokorrarekin batera izapidetu eta onar daitezke.

Itxuraz, katalogoaren edukia administrazio-erregistro irisgarri bat izango da. Baliabide telematiko bidez ere iritsi ahal izango da hartara, eta erregistratutako ondasunen kokapenari, ezaugarriari eta babes-araubideari buruzko nahikoa informazio eman beharko du.

II. Aplikatu beharreko legeria honako hauek zehazten dute:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. eta 100. artikulua.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen duen abenduaren 21eko 18/2023 Legea.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6.2 eta 33. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d), 49. eta 70.2 artikulua.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 56. artikulua.
- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3.4) artikulua.

III. Katalogoak onartzeko, plan orokorrarekin batera izapidetzen eta onartzen ez badira, edo aldatzeko, toki-araubidearen araudian udal-ordenantzetarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

IV. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen duen abenduaren 21eko 18/2023 Legearen arabera, 85. Artikulua jarraian dagoen bezala geratzen da idatzita:

«85. artikulua.– Hirigintzako lizentzia-, onarpen- eta baimen-emateak etetea.

1.– Hirigintzako planak egiteko edo, hala badagokio, aldatzeko edo berrikusteko, hirigintzako planak hasieran onesteko eskumena duten administrazioek erabaki ahal izango dute eremu edo erabilera jakin batzuetarako hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzia guztien ematea etetea, gehienez ere urtebetez, aurrerakina egiteko erabakia hartzen denetik eta hasierako onspenaren erabakia hartu arte. Etete hori iraungitzen da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik, eta, indarrean badago, hasierako onspenaren ondoren erabakitzen den etetearekin ordeztuko da.

2.– Hirigintzako planak hasieran onesteko erabakiak etendura zehaztuko du, bi urtekoa plan orokorre badagokio eta urtebetekoa gainerako kasuetan, eremu zehaztuta edo erabilera zehaztutarako edozein onarpen, baimen eta lizentziak emateari dagokionez, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etete hori iraungitzen da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik edo, hala badagokio, dagokion hirigintza-planaren behin betiko onspena argitaratzean.

3.– Eragingarria izan dadin, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde historiko horretako zabalkunde handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratu beharko da.



4.– *Etenduraren eragina aurreikusitako edozein kasutan iraungitzen denean, ezin izango da beste etendurarik ezarri, eremu berean eta helburu bererako, bost urte igaro arte.*

5.– *Etendura argitaratu aurretik behar bezala eskatutako lizentzien edo baimenen eskatzaileek eskubidea izango dute proiektuen kostuengatik kalte-ordainak jasotzeko. Ez da proiektuaren kostua itzultzeko eskubiderik izango, baldin eta eskaera zuzenbidearekin bat ez badator, eskaera egiten den egunean indarrean dauden araudiaren edo lurraldeko eta hirigintzako antolamenduaren aurkakoa izateagatik.*

6.– *Proiektuaren kostua itzultzea eskatzeko eskubidea eten egingo da, harik eta, kasuan kasuko plana behin betiko onetsi ondoren, proiektu hori planaren zehaztapenekin bateraezina dela egiaztatzen den arte».*

V. Katalogoak tresna arau-emaileak dira, babes berezia merezi duten arkitektura-edo kultura-balioak dituzten elementuak ziurtatzeko eta defendatzeko. Izan ere, haien birtualtasuna zalantzan jarriko litzateke, baldin eta udal-ordenantzak onesteko prozedurak jarraitzen duen tramitazioan ezin bada hartu plan orokorraren onespeneren esparruan katalogoa onesteko jarraitutako kautelazko neurri bera.

Logika bermatzaile hori berretsi du Auzitegi Gorenak 1983ko otsailaren 5eko eta 1987ko otsailaren 19ko epaietan, katalogoek ondarea defendatzeko eta hiri-antolamenduan txertatzeko duten helburua kontuan hartuta. Gainera, lortu nahi den helburua lortzeko guztiz beharrezkoa den kautelazko neurria da; Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko urriaren 24ko epaiak gogorazten duenez.

Beraz, kontuan hartuta egun 2/2006 Legeko 85. Artikuluan ezarritakoa eta jurisprudentziak Katalogoei aurreikusitako tresna arau-emaile kategorian, adierazi daiteke Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoaren handitzeko hasierako onespenerarekin batera zehaztu daitekeela, urtebetez, eremu zehaztetan edo erabilera zehaztetarako edozein onarpen, baimen eta lizentziak eteteko erabakia; baldin eta, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.

VI. Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoaren handitzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

VII. Prozedura honi jarraitu behar zaio:

A. Udalak Udal Zerbitzu Teknikoei emango die Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoa handitzeko proposamena idazteko ardura.

B. Katalogoa handitzeko proposamena egin ondoren, osoko bilkurak hasierako onarpena eman beharko dio (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 100. artikuluekin eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 33.3 artikuluekin bat etorritik).

Hasierako onespenerarekin batera zehaztu beharko da, urtebetez, eremu zehaztetan edo erabilera zehaztetarako edozein onarpen, baimen eta lizentziak eteteko hartzen den



erabakia; baldin eta, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.

C. Jendurreko informaziorako eta interesdunei entzuteko aldi bat irekiko da, gutxienez hogeita hamar eguneko, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Hasierako onespeneren erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, Udalaren web atarian argitaratuko da.

D. Jendurreko informazioaren epearen barruan, txostena eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritzari.

Hilabeteko epea igaro eta txostenik egin ez bada, prozedurarekin jarraitu ahal izango da.

E. Jendurreko erakustaldian eta entzunaldian aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Osoko Bilkurak behin betiko onartuko du katalogoaren aldaketa (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikulua).

Xedatu daiteke jendurrekoan alegaziorik egon ezean, Katalogoaren handitzea behin betiko onartuta dagoela ulertuko daitekeela.

F. Behin betiko onartzeko erabakia, katalogoaren aldaketaren testu osoarekin batera, udaletxeko iragarki-oholean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu behar da denek jakin dezaten, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua araberara.

III.- AZTERKETA TEKNIKO-JURIDIKOA

III.1.- TXOSTENAREN HELBURUA

Txosten honen xedea da aztertzea, momentuz eta une honetan, Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan soilik San Frantzisko pasealekua 37-ko "Villa Sagrado Corazón" eraikina barneratzeko egokitasuna eta jarraitu beharreko prozedura.

III.2.- INDARREAN DAGOEN KATALOGOA

HAPOko Ondarearen Katalogoan honako sailkapena dago jasota:

1.- Udalerriko hirigintza-ondarean barne hartzen diren ondasunak eta elementuak.

Beren balio historikoa eta/edo arkitektonikoa kontuan harturik, udalerriko hirigintza-ondarea osatzen duten ondasun eta elementuen multzoa da.

Kategoria honetan, era berean, honako (azpi)kategoria hauek bereiz daitezke:

I. maila.

Monumentu multzoak.



Euskal Autonomia Erkidegoak izendatu dituen monumentuak.
Autonomia-erkidegoak babestutako beste ondasun higiezin batzuk.
Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu multzo izendatzeko proposatutako ondasunak dira.

II. maila.

Udalak babestutako ondasun higiezinak.

2.- Udalerriko ondare arkeologikoan barne hartzen diren ondasunak eta elementuak.

Beren balio arkeologikoa kontuan harturik, udalerriko izaera horretako ondarea osatzen duten ondasunen multzoa da.

Kategoria honen barruan, era berean, honako modalitate hauek bereizten dira:

- Monumentu multzo kategoriarekin kalifikatutako kultura-ondasunen erregistroan inskribatutako zona arkeologikoak.
- Euskal Kultura Ondarearen inbentario orokorrean monumentu multzo kategoriarekin inskribatutako zona arkeologikoak.
- Ustezko zona arkeologikoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoak Monumentu / Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako zona arkeologikoak.

3.- Espazio eta elementu naturalak.

Aurrekoei hainbat espazio eta elementu natural gehi dakizkieke.

III.3.- INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUA

HAPOk 13 Laskoain esparruko Hirigintza Fitxa Partikularrak honakoa jasotzen du:

«13.1. San Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparrua hiri lurzoru finkatugabea da, urbanizazioaren gabeziak eta/edo urritasunagatik.

Arau partikularretako 4. GRAFIKOAN, antolamenduz kanpoko eraikina dela jasotzen da San Frantzisko pasealekua 37 eraikina, baita lursailean dauden beste bi eraikin gehigarriak ere.

Horren harira, IV HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUKO atalean ondorengoa aipatzen da:

“«13.1 S. Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparruan aurreikusten den eraikuntza berriaren fatxaden formalizazio arkitektonikoan, ordezkatu beharreko egungo eraikuntzaren fatxadek duten konposizio-ezaugarriak eta estilo-ezaugarriak hartuko dira kontuan, eta kokatzen deneko hiri-ingurunearekin harmonizatzeko irizpideak hartuko dira aintzat.”

Dena den, VI ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK atalean honako hau jasotzen da:

“—Horrez gain, eta aditzera emandakoaren ildotik, bidezkoa irizten den guztietan, San Frantzisko Pasealekuko 37 zenbakiko eraikineko fatxadak mantendu eta



zainduko dira, betiere bertan proiektatutako eraikuntza-garapen berriarekin bateragarria bada.”

III.4.- ALDAKETAREN BEHARRA ETA JUSTIFIKAZIOA

2009ko martxoaren 3an, Udalbatzak ohiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren testu bateginari. Gaur egun indarrean dagoen Ondarearen Katalogoa HAPOn parte da, 3. Dokumentua, hain zuzen ere.

Indarrean dagoen dokumentu honek, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki, funtsean, beren balioa eta interesa kontuan harturik babestu behar diren ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzea zuen xede.

Ondasun horiek hiru kategoriatan banatzen dira: udalerriko hirigintza-ondarean barne hartzen diren ondasunak eta elementuak, udalerriko ondare arkeologikoan barne hartzen diren ondasunak eta elementuak eta espazio eta elementu naturalak. Katalogoak kategoria bakoitzeko zerrendak barneratzen ditu.

Era berean, dokumentu honetan azaldutako aurreikuspenak Plan Orokor honen "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuko seigarren tituluan (89. artikulua eta hurrengoak) ezarritakoekin osatzen dira.

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu eta gero, 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena, onartu da. Lege berri honen helburu nagusia kultura-ondarearen kudeaketa integrala bermatzea da; hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babestuko duen kudeaketa gauzatzea, baina horrekin batera baita haren transmisioa, sustapena eta balio-nabarmentzea bermatzeko konpromisoa agerian utziko duena ere.

Eta Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, Kultura-balioak aldakorrak direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrak dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude. Hala, euskal kultura-ondareari buruzko lege berri bat idazteko beharra ikusi zen, azken urteotan kultura-ondarearen kontzeptualizazioan gertatu den bilakaera ordenamendu juridikoan txertatzeko, zeren ondare horren azterketa- eta jardun-eremua nabarmen zabaldu baita.

Euskal kultura-ondareari buruzko legeak zehazten ditu kultura-ondarearen arloan euskal administrazio publikoen hiru mailetako bakoitzari dagozkion jarduerak, eta jarduera horien koordinazioaren ardura izango duen organoa sortzen du. Bestalde, Hiru babes-maila bereizten dira, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera: babes berezia duten kultura-ondasunak, babes ertaina duten kultura-ondasunak eta oinarritzko babesak duten kultura-ondasunak (indarreko udal-plangintza urbanistikoko katalogoetan sartuta daudenak dira).

2022tik gaur arte "Asociación Ancora para la Conservación del Patrimonio"k udalari hainbatetan eskatu izan dio Ondarearen Udala-Katalogoa berritzeko eta bertan gaur egun babesik ez duten hainbat ondasun barneratzeko.



2022ko abenduaren 14an, Tolosako Udalak, bere udal-mugaratean dagoen kultura-ondareari buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari. 2023ko urtarrilaren 12an jaso zen Eusko Jaurlaritzatik udalak aurretiaz eskatutako Tolosako udalerriko kultura ondareari buruzko informazioa. Bertan, gaur egun katalogoan barneratuta ez dauden ondasun asko zerrendatzen dira.

2022ko abenduaren 20an *“Asociación Áncora para la Conservación del Patrimonio”*-k Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako eskaeraren berri eman zuen udalean. Bertan elkarte honek eskatzen zion Eusko jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza-politikako departamentuari San Frantzisko 37 zenbakia duen eraikina babes ertaineko kultur ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea.

Ondorengo hilabeteetan hainbat bilera burutu ziren Udala eta sustatzaileen artean eta baita EJ-ko ordezkariekin ere gaia bideratu nahian. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Kulturaleko teknikariekin izandako elkarrizketen arabera eraikinaren ondare-balioa nabarmena da.

Geroztik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari *“Asociación Áncora para la Conservación del Patrimonio”*-k adierazi bezala dagokion espedientea hasteko eskatu bazion ere (2023ko otsailaren 2an eta martxoaren 23an), gaur-gaurkoz ez dago berririk Eusko Jaurlaritzak espediente horri ekin dionik.

Bestalde, 14/2023 Legea, azaroaren 3koa Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea Aldatzeko indarrean sartu berri da. Lege honen zioen azalpenean jasotzen da Legearen xedea zein den: batetik, kultura-ondasun higiezin bat oinarritzko babes-mailan sartzeko irizpideak eta udal-katalogoak egoera berrira egokitze aldia zehaztea; eta, bestetik, energia-iturri berriztagarriak alternatiba jasangarri erreal gisa gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoa da Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatzea, iturri horiek ondareko ondasun higiezinetan sartzeko, bereziki bizitegi-izaerakoetan, energia-eraginkortasuna ondasun horien ondare-balioekiko errespetuarekin orekatuta lortzeko, eta higiezin horiek erabiltzeari uko egitea saihesteko, energia eskuratzeko kostu handiagoa dela eta.

Azkenik, 2023ko abenduaren 14an, udaleko erregistroan Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren jakinarazpena jaso zen; Kultura, Euskara eta Kirol Batzordeak, 2023ko azaroaren 27an, egindako bilkuran onetsitako 79/2023 Legez besteko proposamena (Tolosako udalari *“Villa Sagrado Corazón”* eraikina babesteko eskatuz) atxikituz.

2024ko urtarrilaren 2ko 2024/8 Dekretu bidez Zinegotzi Delegatuak honakoa erabaki zuen laburbilduz: 13.1 azpiesparruko sustatzaileei proposamen bat helaraztea *“Villa Sagrado Corazón”* eraikina eraitsi gabe eta HAPOk ezarritako eraikigarritasuna galdu gabe antolamendu xehatua aldatu eta eremua garatzeko.

Honi erantzunez, 2024ko urtarrilaren 24an Jaizubiabari S.L.-ek alegazioak aurkeztu zituen. Alegazio horietan, besteak beste, *“Villa Sagrado Corazón”* eraikina eraitsi gabe eta HAPOk ezarritako eraikigarritasuna galdu gabe antolamendu xehatua aldatu eta eremua garatzeko beste proposamen bat egiten du. Bertan, eraikina finkatzeko Udalak eraikina babesteko Udal Ondarearen Katalogoaren aldaketa puntuala bideratzea proposatzen da lehen pausu bezala.



Udal-katalogoa indarrean egon den ia 15 urte hauetan, ikusi da hiriguneko bizitegi-arkitektura historikoko eraikinen tipologiarekin parekatutako eraikin jakin batzuk badaudela Tolosako udalerrian, eta horiek ez daudela katalogoan sartuta, interes arkitektonikoa duten arren, garai edo korrante arkitektoniko jakin bateko hizkuntza jakin baten adierazgarri direlako edo ezaugarri esanguratsuak dituztelako.

Ondorioz, gizarte-erronka hau konpondu behar da hiri-tramaren balioei eusteko, kultura-ondare historikoaren babes-katalogoan hiriguneko txalet tipologiako bizitegi-eraikinak sartuta, baldin eta aurrez-aurre duten lekuari paisaia-kalitatea ematen dioten berezitasunak eta erreferentziatzko elementuak dituzten fatxadak dituztelako edo hiri-tramaren gainean ezartzean duten protagonismoarengatik.

Aipatu beharra dago azken urtetan tipologia honetako bizitegi-erabilerako eraikinak Udaleko Ondarearen Katalogoetan barneratzeko prozedurak aurrera eraman dituztela Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan; esaterako, Irungo Udalak 2022ko abenduan onartu zuen Arkitektura Ondarearen Aldaketa Puntuala (bereziki tipologia honetako bizitegi-eraikinak barneratzen dituena) eta Donostiako Udalak Donostiako hirigintza ondare eraikia babesteko plan bereziaren berrikuspena onartu zuen 2021ean (bertan tipologia honetako hainbat eraiki barneratu direlarik).

Une honetan tipologia honetako eraikinetako bat eraisteko arriskua dago dagokion Hirigintza Arau Partikularrak ordenazioz kanpokotzat deklaratzeko delako. San Frantzisko 37ko "Villa Sagrado Corazon" da aipatutako eraikina. Horregatik, beharrezkoa ikusten da eraikin hau mantentzeko dagokion prozedura abian jartzea. Are gehiago, ikusita eremuko sustatzaileek horretarako proposamen bat luzatu diotela Udalari.

San Frantzisko pasealekua hiriaren ikuspegitik garrantzi bereziko kalea da Tolosan, eta bertan biltzen dira monumento izendatuta dauden hainbat eraikin, hala nola San Frantzisko komentua, Gipuzkoako Probintziako Artxiboa, Beotibar frontoia eta Jesusen Alaben Ikastetxeke kapera. "Villa Sagrado Corazon" eraikina pasealeku honen azken zatian dago, eta gaur egun bere jatorrizko itxura eta izaera mantentzen dituen bizitegi-arkitektura historikoko eraikin bat da, lorategi-lursail bat atxikita duena. Tolosan gelditzen diren tipologia honetako eraikin bakarretakoa da.

Eraikin honen balioaren adierazle da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHAEoak argitaratutako Gipuzkoako (1850-1960) Arkitektura gidan sartua dagoela. Eta bestalde, Eusko Jaurlaritzak Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezin zerrendan barneratuta duela, ondare arkitektonikoaren atalean.

III.5.- ALDAKETAREN HELBURUA

Aurreko guztia kontuan hartuta, San Frantzisko Pasealekua 37an dagoen «Villa Sagrado Corazon» eraikina Udal Ondarearen Katalogoan barneratzea proposatzen da lehen pausu bezala. Izan ere, "Villa Sagrado Corazon" eraikina eraitsi gabe eta HAPOK ezarritako eraikigarritasuna galdu gabe antolamendu xehatua aldatu eta eremua garatu nahi da eraikina balioan jarri ahal izateko.



III.6.- KATALOGOAREN ZERRENDAREN ALDAKETAREN EDUKIA

Aurretik adierazi den moduan Udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrenda honela sailkatuta dago:

I. maila: Monumentu multzoak, Euskal Autonomia Erkidegoak izendatu dituen monumentuak eta Autonomia-erkidegoak babestutako beste ondasun higiezin batzuk.

II. maila.

Udalak babestutako ondasun higiezinak.

Kasu honetan, II. Mailako babesa duten D.-Udal-intereseko ondasun higiezin zerrendan barneratzea proposatzen da San Frantzisko Pasealekua 37an dagoen «Villa Sagrado Corazon» eraikina.

INDARREAN DAGOEN ZERRENDA:	ALDAKETAREKIN PROPOSATZEN DEN ZERRENDA:
4. Además, se deberán reunir los requisitos que específicamente se indiquen en la ordenanza específica, bases reguladoras y/o convocatoria, debiendo aportar la documentación acreditativa de los mismos junto a la solicitud de subvención.

2. Dirulaguntza elkarte eta fundazioek eskatzen dutenean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

2. Cuando la subvención se solicite por parte de asociaciones y fundaciones tendrán que estar inscritas en el correspondiente registro oficial.

3. Dirulaguntza pertsona juridiko batek eskatzen badu, diruz lagundutako jarduerak bat etorri beharko du eskatzailearen xede edo helburu sozialekin.

3. Cuando la subvención se solicite por una persona jurídica se requerirá que la realización de la actividad subvencionada tenga cabida dentro del objeto o fines sociales de la misma.

4. Ordenantzaren 9.2 artikuluan adierazitako ondorioetarako, pertsona edo erakunde onuradunaren (aurrerantzean, onuraduna) bazkidetzat hartuko dira nortasun juridikoa duten eta dirulaguntzak eskatzen dituzten federazio edo elkarteetan biltzen diren pertsona fisiko edo juridikoak. Erakunde horiek eta haiek osatzen dituzten kideak onuradun izan daitezten, konpromisoa hartu beharko dute, dirulaguntza eman ondoren hitzarmen edo akordio bat formalizatzeko. Hitzarmen edo akordio horretan aipatu beharko dituzte dirulaguntza jaso duten eta onuradunaren kontura gauzatu behar dituzten jarduerak, eta onuradun izatea onartzen dutela adieraziko dute, dagozkien betebeharrekin, eskabidean adierazitako moduan.

4. A los efectos indicados en el artículo 9.2 de esa ordenanza, se considerarán asociadas de la persona o entidad beneficiaria (en adelante beneficiaria) las personas físicas o jurídicas que se integren en federaciones o entidades asociativas solicitantes de subvenciones que estén dotadas de personalidad jurídica. Para que las mencionadas entidades y las personas que la integran tengan la condición de beneficiarias deberán comprometerse a formalizar un convenio o acuerdo, una vez concedida la subvención, en el que consten las actividades subvencionadas que se obligan a ejecutar por cuenta de esta y expresen su aceptación de asumir la condición de beneficiaria, con sus correspondientes obligaciones en los



términos expresados en la solicitud.

5. DLoren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada dirulaguntza eskatzen duen konfederazio, federazio edo elkartean, ezin izango zaio eskatutako dirulaguntza eman erakunde horri, ezta haren kide diren pertsona edo erakundeei ere, ezta azken horietan ez badago inolako eragozpen-egoerarik ere. Hala ere, onuradunari elkartutako pertsona edo erakunderen batean adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada, eskatzaile den konfederazio, federazio edo elkarteak bakarrik jaso ahal izango du dirulaguntza; bai eta eragozpen-inguruabarrik ez duten pertsona edo erakunde elkartuek ere.

5. Cuando concurriera alguna de las circunstancias previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS en la confederación, federación o entidad asociativa solicitante de la subvención, no podrá concederse la subvención solicitada ni a ésta ni a ninguna de sus personas o entidades asociadas, con independencia de que no concurriera impedimento alguno en estas últimas. Sin embargo, cuando concurriera alguna de las circunstancias indicadas en alguna de las personas o entidades asociadas de la beneficiaria, únicamente podrán acceder a la subvención la confederación, federación o entidad asociativa solicitante de la subvención, y aquellas de sus personas o entidades asociadas en las que no concurriera el impedimento.

6. Onuradunarekin elkartutako pertsonak edo erakundeek proiektua edo jarduera onuradunarekin batera, elkarrekin, egin nahi badute, dirulaguntza lortzeko baldintzen balorazioa haietako bakoitzarenak batuz zehaztuko da, baina onuradun izateko betekizunak pertsona horietako bakoitzari eskatu ahal izango zaizkio.

6. Cuando las personas o entidades asociadas de la beneficiaria y ésta pretendan actuar mancomunadamente en la realización del proyecto o actividad, la valoración de las condiciones para acceder a la subvención se determinará acumulando las de cada una de ellas, pero los requisitos para acceder a la condición de beneficiaria serán exigibles de cada una de dichas personas.

7. Izaera juridikorik izan ez arren, ordenantza honen 9.3 artikuluan aipatzen diren proiektuak, jarduerak edo portaerak egin ditzaketen pertsona fisiko edo juridikoen –publiko edo pribatuen– taldeei dagokienez, onuradun izateko ezinbesteko baldintza izango da taldeak berak eta hura osatzen duten pertsona

7. Respecto de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos que motivan la concesión de la subvención a las que se refiere el artículo 9.3 de esta ordenanza



edo erakundeek DLOren 13.2 artikuluan ezartzen diren debekuetako bakar bat ere ez izatea. Kasu horietan, eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz adierazi beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Taldearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen, eta ezin izango da taldea desegin DLOren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epaia igaro arte.

constituirá requisito necesario para que adquieran la condición de beneficiaria que no incurra en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS la agrupación ni ninguna de las personas o entidades integrantes. En estos supuestos, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada componente de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos y ellas, que tendrán igualmente la consideración de personas beneficiarias. Deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiaria, corresponden a la agrupación, que no podrá disolverse hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la LGS.

Taldea osatzen duten pertsonak edo erakundeek proiektua edo jarduera gauzatzeko elkarrekin aritu nahi badute, dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta balorazioa zehazteko, denenak metatu egingo dira.

Cuando las personas o entidades integrantes de la agrupación pretendan actuar mancomunadamente en la realización del proyecto o actividad, las condiciones para acceder a la subvención y la valoración se determinarán acumulando las de cada una de ellas.

8. Ondasun-erkidegoei edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereiziri dagokienez, hala nola jabeen erkidegoei, jaraunspen-erkidegoei, partaidetza-kontuen elkarteei, eta, oro har, nortasun juridikorik izan ez arren administrazio komun egonkorra duten ondare-oinarriko erakundeei, betiere proiektuak, jarduerak edo portaerak gauzatzeko aukera ematen badie, edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran

8. En relación con las comunidades de bienes o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado, tales como comunidades de personas propietarias, comunidades hereditarias, asociaciones de cuentas en participación, y, en general, las entidades de base patrimonial que, aun careciendo de personalidad jurídica, cuenten con una administración común estable, siempre que les permite llevar a cabo los



badaude, ez zaie eskatuko onuradun izateko betekizunak betetzea.

proyectos, actividades o comportamientos, o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención, los requisitos para acceder a la condición de beneficiario/a no serán exigibles.

Aurreko paragrafoan aipatutako erakundeei aplikagarriak zaizkie DLOren 13. artikulua 2. paragrafoan ezarritako debekuak.

Las entidades mencionadas en el párrafo anterior se encuentran incursas en las prohibiciones establecidas en el apartado 2 del artículo 13 de la LGS.

9. Pertsona fisikoak edo juridikoak bete beharreko xedeak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia badu, oinarri arautzaileetan baldintza hauetako bat jasoko da, gutxienez:

9. Si el objeto a cumplir por parte de la persona física o jurídica tiene relación con la igualdad de mujeres y hombres, las bases reguladoras incluirán al menos una de estas condiciones:

1.- Erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izan duen ibilbide eta esperientzia espezifikoak, azken hiru urteetan egindako jardura eta lan garrantzitsuenak adierazita (eskatutako lanen eta fakturazioen gutxienezko kopurua zehaztuta).

1.- Trayectoria y experiencia específicas de la entidad en materia de igualdad de mujeres y hombres, con indicación de las actuaciones y trabajos más relevantes realizados en los últimos tres años (especificando el número mínimo de trabajos y facturaciones requeridos).

2.- Langileek genero-gaietan duten titulazioa, prestakuntza eta curriculum (hauek zehaztuta: pertsona kopurua, esperientzia-urteak eta eskatutako gutxienezko lanak eta berdintasunaren arloko prestakuntza-orduak).

2.- Titulación, formación y currículum de la formación en género del personal (especificando número de personas, años de experiencia y trabajos mínimos requeridos y horas de formación en materia de igualdad).

3.- Berdintasunaren arloko ziurtagiri edo enpresa-bereizgarri bat izatea, edo halakorik ezean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile edo antzeko batek emandako ziurtagiri ofizial bat izatea.

3.- Estar en posesión de un certificado o distintivo de empresa en materia de igualdad o, en su defecto, de una entidad colaboradora en igualdad de mujeres y hombres u otra certificación oficial similar.



4.- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erakundearen edo enpresaren batzordean, zuzendaritza-organoan, administrazio-kontseiluan edo plantillan.

5.- Erakundearen eratze-ekrituran edo estatutuetan helburuen egotea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea.

4.- Presencia equilibrada de mujeres y hombres en la junta, órgano de dirección, consejo de administración o plantilla de la entidad o empresa.

5.- Que uno de los fines recogidos en la escritura de constitución o en los estatutos de la entidad sea trabajar por la igualdad de mujeres y hombres.

10. Ezingo dira onuradun izan ebazpen irmoaren bidez eskubidea galdua duten pertsonak, edo DLOren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenak.

11. Hala ere, dirulaguntzaren izaeratik eta aipatutako 13. artikuluko 2. ataleko lehen paragrafoan jasotako aurreikuspenaren babesean, b) eta e) idatz-zatietan jasotako debekuetatik salbuetsita daude pertsona edo erakunde hauek:

a) Partikularrentzako laguntzak, baldin eta horiek ematea errenta-maila baxuagatik mugatu edo justifikatzen bada, edo jasotzen dituenaren errenta-maila baxua konpentsatzeko badira.

b) Larrialdiagatik emandakoak, naturak eragindako hondamendi edo istripuen ondoriozko kalteak, eta ageriko urgentiako beste batzuk konpontzeko. Dirulaguntza eta laguntza horien deialdietan, legezko beste debeku-kasu batzuen aplikazioa salbuetsi ahal izango da, arrazoiak emanez.

10. No podrán obtener la condición de beneficiarias las personas que hayan sido sancionadas por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de LGS.

11. No obstante a lo anterior, por la naturaleza de la subvención y al amparo de la previsión contenida en el primer párrafo del apartado 2 del citado artículo 13, quedan exceptuadas de las prohibiciones que contienen las letras b) y e) las personas o entidades siguientes:

a) Las ayudas a particulares cuya concesión venga delimitada o justificada por su bajo nivel de renta, o que tenga carácter compensatorio del bajo nivel de renta de quien las percibe.

b) Las otorgadas por razones de urgencia para reparar los daños derivados de catástrofes o accidentes provocados por la naturaleza y otros de reconocida urgencia. Las convocatorias de estas subvenciones y ayudas podrán exceptuar, de forma motivada, la aplicación de otros supuestos legales de prohibición.



- 12 Ez dira inola ere pertsona edo erakunde onuradun izango Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak justifikatzeko ezarritako epea amaitu ondoren, justifikazio horiek aurkezteke dituztenak, kontuan hartu gabe DLOren Erregelamenduaren 70.3 artikuluan aipatzen den errekerimendua egin den edo ez. Debeku hori automatikoki beteko da, eta justifikaziorik aurkezte ez den bitartean iraungo du.
12. En ningún caso podrán acceder a la condición de persona o entidad beneficiaria quienes tengan pendientes de justificación subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Tolosa una vez haya concluido el plazo establecido para su presentación, con independencia de que el requerimiento a que se refiere el artículo 70.3 del Reglamento de la LGS se hubiera realizado o no. La apreciación de esta prohibición se realizará de forma automática y subsistirá mientras perdure la ausencia de justificación.
13. Inola ere ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean onuradun edo erakunde laguntzaile izateko desgaituta daudenak baldin eta desgaituntza-aldian badaude.
13. En ningún caso podrá acceder a la condición de beneficiaria quienes consten inhabilitados/as para acceder a la condición de beneficiaria o entidad colaboradora en la Base de Datos Nacional de Subvenciones durante el periodo de inhabilitación.
14. Era berean, ezingo dute parte hartu, eta ezingo dira onuradun izan hauek:
14. A su vez, no podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:
1. Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
 - 1.- Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.
 2. Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigorzehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.
 - 2.- Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa, laboral o penalmente de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación



3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak.

4. Era berean, ez dira diruz lagunduko emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Honako hauen arabera ezartzen da debekua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria

por razón de sexo.

3.- Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

4.- Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

Se establece la prohibición conforme a lo establecido en los artículos 4, 3 y 27.2 del Decreto



matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4., 3.1 eta 24.2 artikulua, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulua, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; el artículo 13.3 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones; el artículo 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997, y el artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.

11.artikulua. Egiaztatzeko modua

1. Pertsona edo erakunde interesdunek Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntzaren eskabidea.

2. Eskabide-inprimakiak, dirulaguntzari buruzko informazio orokorrarekin eta, hala badagokio, arau erregulatzailan edo ordenantza espezifikoan laburbildutako informazioarekin batera, ondorengo era honetan aurkeztu beharko dira: pertsona fisikoek eskabidea elektronikoki edo fisikoki aurkeztu ahal izango dute eta pertsona juridikoek edo nortasun juridikorik gabeko kolektiboek modu elektronikoa aurkeztu beharko dituzte.

3. Eskabide-inprimakian, besteak beste, honako hauek adieraziko dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, erakunde, organismo eta abarrei egindako edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntza eskaeren berri ematen duena.

Artículo 11. Forma de acreditación

1. Las personas o entidades interesadas deberán presentar la solicitud de subvención en impreso normalizado facilitado por el Ayuntamiento.

2. Los impresos de solicitud, junto con la información general de la subvención y la información extractada, en su caso de la norma reguladora u ordenanza específica, deberán de presentarse de la siguiente forma: las personas físicas pueden optar por presentar su solicitud de forma electrónica o física y las personas jurídicas o los colectivos sin personalidad jurídica deberán hacerlo de forma electrónica.

3. En el impreso de solicitud se recogerán, entre otros:

a) La declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas.



- b) Dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- b) La declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la normativa aplicable.

4. Eskabidearekin batera, oinarri arautzaileetan, ordenantza espezifikoan eta/edo deialdian zehaztutako dokumentazioa eta informazioa aurkeztu beharko da.

4. La solicitud deberá ir acompañada de la documentación e información determinada en las bases reguladoras, ordenanza específica y/o convocatoria.

5. Gipuzkoako Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, onuradunak eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea erakunde jaulkitzaileen eskutik zuzenean eskuratzeko haiek eman beharreko ofiziozko ziurtagiriak, DLOren 23.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Respecto al cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa y frente a la Seguridad Social, la presentación de la solicitud por parte de la persona beneficiaria conllevará la autorización al órgano gestor para recabar los certificados de oficio a emitir directamente de los organismos emisores de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23.3 de la LGS.

Ziurtagirik eta adierazpenek sei hilabeteko balioaldia izango dute, ematen edo igortzen direnetik zenbatzen hasita.

Los certificados y declaraciones tendrán una validez de seis meses desde la fecha de su expedición o emisión.

6. Hala ere, betetze hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, baldin eta pertsona edo erakunde onuraduna ez badago adierazpen edo dokumentu horiek aurkeztera behartuta, honako kasu hauetan:

6. No obstante, se acreditará dicho cumplimiento mediante declaración responsable cuando la persona o entidad beneficiaria no esté sujeta a presentar las declaraciones o documentos a que las mismas van referidas, en los siguientes casos:

- a) Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa, deialdian, 3.000 eurotik gorakoa ez denean.
- a) Aquellas subvenciones en las que la cuantía a otorgar a cada persona o entidad beneficiaria no supere en la convocatoria el



importe de 3.000 euros.

- b) Administrazio publikoei eta haien mendeko sektore publikoko organismo, entitate publiko eta fundazioei emandako dirulaguntzak.
- b) Las subvenciones otorgadas a las administraciones públicas, así como a los organismos, entidades públicas y fundaciones del sector público dependientes de aquéllas.
- c) DLOren Erregelamenduaren 24. artikuluan jasotako beste edozein zirkunstantzia gertatzen denean.
- c) Cuando concorra cualquiera otra de las circunstancias contempladas en el artículo 24 del Reglamento de la LGS.
7. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean izateko betekizunak, emakidaren unean ez ezik, betebeharra aitortzeko eta ordaintzeko unean ere egiaztatu beharko dira.
7. Los requisitos de hallarse al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de obligaciones por reintegro de subvenciones, deberán acreditarse no sólo en el momento de la concesión, sino también en el momento del reconocimiento de la obligación y del pago.
8. Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek eskubidea dute Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.
8. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del PAC, la ciudadanía tiene derecho a no aportar los documentos que ya se encuentran en poder del Ayuntamiento de Tolosa.
9. Ondorio horietarako, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren (azaroaren 17koa) 23.3 artikulua arabera, pertsonak edo erakundeak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, adierazita zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, zein organo edo bulegok igorri zituen, eta dagokion prozedura amaitu zenetik 5 urte baino gehiago igaro ez badira.
9. A estos efectos, de acuerdo con el artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, GS, la persona o entidad deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos y cuando no hayan transcurrido más de 5 años desde la finalización del procedimiento correspondiente.



10. Era berean, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua aitortzen du herritarrek eskubidea dutela edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Hala, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu dokumentu horiek bere datu-baseetan eta administrazio eskudunean, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez (euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna, administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa), baldintzak betetzen direla egiaztatze behar den informazioa, eta, bereziki, oinarri arautzaile espezifikoetan adierazitako datuak egiaztatze.
10. A su vez, el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del PAC, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, de tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos directamente en sus bases de datos y en la administración competente a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones, y en particular los datos indicados en las bases reguladoras específicas.
11. Eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute dokumentuak adierazitako moduan egiaztatzearen aurkak daudela. Horrelakoetan, haiek arduratu beharko dute dokumentuak aurkezteaz.
11. Las personas solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación.
12. Salbuespenez, organo eskudunak ezin baditu aurreko apartatuetan aipatutako dokumentuak eskuratu, berriro eskatu ahal izango du dokumentu horiek aurkezteko edo, bestela, egiaztapena beste bitarteko batzuen bidez egiteko eskatuko du, ebazpen-proposamena egin aurretik.
12. Excepcionalmente, si el órgano competente no pudiese recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente su aportación o, en su defecto, la acreditación por otros medios, con anterioridad a la formulación de la propuesta de resolución.
13. Nolanahi ere, dirulaguntzen oinarriek zehaztuko dituzte bete beharreko baldintzak, eta bildu beharreko datuak, datuen tratamenduaren xedeari begira, egokiak, beharrezko direnak eta mugatuak izango dira.
13. En todo caso, serán las bases de las subvenciones las que detallen los requisitos a cumplir, y los datos a recabar serán adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario en relación a



14. Eskabideak ez baditu betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala eskabidea 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.
15. Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du sailak.
16. Era berean, interesdunak ere osatu ahal izango du eskabidea, interesekotzat duena aurkeztuta.
12. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.
1. Pertsona edo entitate onuradunek eskubidea dute eman zaien zenbatekoa dirulaguntzari dagokion deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako baldintzetan kobratzeko. Era berean, ahalmena daukate, deialdiak hala debekatzen ez badu, eta diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea bukatu baino lehen, organo emaileari eskatzeko alda dezala laguntza emateko ebazpena, finkatutako epeak zabaltzeari, emandako zenbatekoa murrizteari edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeari dagokienez. Aldaketa horiek baimenduko
- los fines para los que serán tratados.
14. Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá a la persona interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.
15. En todo caso, el departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.
16. Al igual que la persona interesada podrá complementar la solicitud por cuanta otra considere de interés.
- Artículo 12. Derechos y obligaciones de las personas o entidades beneficiarias
1. Las personas o entidades beneficiarias tienen derecho al cobro de la cantidad concedida en los términos y condiciones que se hayan establecido en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión. Asimismo, están facultadas, salvo que la convocatoria lo prohíba, para solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, la modificación de la resolución de concesión en lo concerniente a la ampliación de los plazos fijados, la reducción del importe concedido o la



dira ustekabeko arrazoi batzuek eragindakoak direnean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

2. Oinarri arautzaileek, deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotzen dituzten berriarazo obligazioak kontuan hartu gabe, Tolosako Udalaren dirulaguntzen onuradunek bete beharreko obligazio orokorrak honako hauek izango dira:

2. Con independencia de las obligaciones específicas que recojan las bases reguladoras, las convocatorias, los convenios o resoluciones de concesión, serán obligaciones generales de las beneficiarias de las subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa las siguientes:

a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, jarduera gauzatea edo dirulaguntza emateko oinarria den portaera hartzea; eta horiek denak, ezarritako epean.

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones en el plazo que se establezca.

b) Dirulaguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileari frogatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, baita dirulaguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere, eta jasotako funtsak dagokien helbururako erabili direla, behar den frogagiri mota epe barruan eta ordenantza honek aurreikusten duen moduan aurkezturik.

b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones necesarios, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención y la aplicación a su finalidad de los fondos recibidos, presentando en plazo la modalidad justificativa en la forma que se prevé en esta ordenanza.

c) Inbentarioan sar daitezkeen ondasunak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzera bideratutako dirulaguntzak direnean, onuradunak dirulaguntza ematearen helburu

c) Cuando se trate de subvenciones destinadas a la adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, la beneficiaria deberá destinar los



zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak, bost urtez, erregistro publiko batean inskribatzeko moduko ondasunak direnean, edo bi urtez, gainerako ondasunak direnean.

d) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso gero, organo emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea halakoak jaso direla. Jakinarazpen hori egin behar da, hain zuzen, beste laguntza horien berri izan bezain laster eta, edozein kasutan, jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa baino lehen. Proiektu edo jarduera baterako dirulaguntza bat eskatzen denean eta helburu bererako bateraezina den beste dirulaguntza bat lehenago eman denean, zirkunstantzia hori adierazi beharko da bigarren eskabidean. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpenak bere ondorioak, hala badagokio, baldintza honen pean jarri beharko ditu: onuradunak ukoa aurkeztea, hurrengo atalak aldeztu aurretik eskuratutako dirulaguntzen inguruan aipatzen duen gisan, bai eta, hala badagokio, jasotako funts publikoak itzultzea. Behin dirulaguntza berria eskuratuz gero, eskuratu bada, onuradunak horren berri emango dio lehen dirulaguntza eman dion entitateari, zeinak aldatu ahal izango baitu dirulaguntza emateko akordioa, araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera. Aldaketa-akordioak ebatzi

bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención, durante un periodo de cinco años, en caso de bienes inscribibles en un registro público, o de dos años para el resto de bienes.

d) Comunicar al órgano concedente o a la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos. Cuando se solicite una subvención para un proyecto o actividad y se hubiera concedido otra anterior incompatible para la misma finalidad, se hará constar esta circunstancia en la segunda solicitud. En este supuesto la resolución de concesión deberá, en su caso, condicionar sus efectos a la presentación por parte de la beneficiaria de la renuncia a que se refiere el apartado siguiente en relación con las subvenciones previamente obtenidas, así como en su caso, al reintegro de los fondos públicos que hubiese percibido. Una vez obtenida, en su caso, la nueva subvención la beneficiaria lo comunicará a la entidad que le hubiera otorgado la primera, la cual podrá modificar su acuerdo de concesión, en los términos establecidos en la normativa reguladora. El acuerdo de modificación podrá declarar la pérdida total o parcial del derecho a



ahal izango du emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galdu egingo dela, eta, horren ondorioz, dirua itzuli beharko dela, ordenantza honen 37. eta 40. artikuluek ezarritakoaren arabera. Modu berean jokatuko da udal administrazioak jakiten duenean pertsona edo entitate onuradun batek eman zaion dirulaguntzarekin batera beste dirulaguntza bateraezin bat edo batzuk jaso dituela behar den ukoa egin gabe.

e) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak, ordenantza honen 10. eta 11. artikuluekin bat etorrira.

f) Organo emaileak edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen ekintzak onartzea, baita kontrol kontrol-organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontrolak ere, eta aipaturiko egiaztapen-jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztea.

g) Behar bezala ikuskatuta edukitzea kontabilitate liburuak, erregistro tramitatuak eta gainerako agiriak, bat etorrira onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoarekin, bai eta dirulaguntzaren oinarri-arauetan

la subvención concedida, y el consiguiente reintegro, en su caso, en los términos establecidos en los artículos 37 y 40 de esta ordenanza. En igual sentido se procederá cuando la Administración municipal tenga conocimiento de que una persona o entidad beneficiaria ha percibido otra u otras subvenciones incompatibles con la otorgada sin haber efectuado la correspondiente renuncia.

e) Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, en los términos previstos por los artículos 10 y 11 de la presente ordenanza.

f) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial que resulte aplicable a la beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y



eskatzen diren kontabilitate-orri eta erregistro espezifikoko guztiak ere, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenen erabilera egokia bermatuta egon dadin.

h) Gordetzea jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.

i) Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsioa edo jarduketaren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartzea, diruz lagundutako xedearentzako egoki direnak, dela forman dela iraupenean; adibidez, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo haren finantzaketa publikoari buruzko testua sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta beste finantzaketa-iturri batzuekin erabilitako adinako garrantzia duela. Ez da eskatuko baldintza hori betetzeko pertsona fisikoei emandako izaera sozialeko laguntzak baldin badira.

j) Egiaztatzea, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzatarako eta onuraduna edo erakunde laguntzailea enpresa bat denean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako

registros específicos sean exigidos por la regulación de la subvención, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) Adoptar medidas de difusión del carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación subvencionada, adecuadas al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Tolosa o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o menciones realizadas en medios de comunicación, y con análoga relevancia a la empleada respecto de otras fuentes de financiación. No será exigible esta obligación cuando se trate de ayudas de carácter social a personas físicas.

j) Acreditar, para subvenciones superiores a 30.000 euros y cuando la persona beneficiario o entidad colaboradora sea una empresa, el cumplimiento de los plazos de pago previstos en la Ley 3/2004, de 29



neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epreak betetzen dituztela.

k) Egiaztatzea, enpresa onuradunak diruz lagundu daitezkeen gastuak sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epreetan ordaindu dituela, edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoetan.

l) Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu — euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

m) Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak, eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak

de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

k) Acreditar que la empresa beneficiaria ha abonado los gastos subvencionables en los plazos de pago previstos en la normativa sectorial aplicable o, en su defecto, en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

l) La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.

m) En atención a los objetivos de normalización lingüística, el Ayuntamiento establecerá y deberá cumplir los criterios de promoción del euskera en la ejecución de la actividad subvencionada por la persona beneficiaria. Los principios que servirán de base para la determinación de los criterios son



dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan, hain zuzen.

los establecidos en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi.

13. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Artículo 13. Entidades colaboradoras

1. Honako hauek izango dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin loturiko ondorio guztietarako Tolosako Udalaren izenean eta beren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, edota jasotako funtsak aldeaz aurretik eman eta banatu gabe dirulaguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakunde horien ondarearen parte izango.

1. Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del Ayuntamiento de Tolosa entregue y distribuya los fondos públicos a las personas o entidades beneficiarias, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.

2. Ezingo entitate laguntzaile izan DLoren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako zirkunstantziaren batean daudenak, eta egiaztatu beharko dute ez daudela zirkunstantzia horietan, ordenantza honetan pertsona edo entitate onuradunentzat aurreikusten den eran.

2. No podrán obtener la condición de entidad colaboradora aquellas entidades que estén incursoas en alguna de las circunstancias establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS, debiendo acreditar que no están incursoas en las mismas, en la forma que se establece en esta ordenanza para las personas o entidades beneficiarias.

3. Entitatea bat entitate laguntzailetzat hartua izateko kaudimen eta eraginkortasunari buruzko baldintzak izango dira entitate horien hautaketa-prozesuan ezartzen direnak. Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsonak direnean, publikotasun, konkurrentzia, berdintasun eta ez diskriminatzearen printzipioen arabeko prozedura baten bitartez hautatuko dira aurrez, eta hitzarmen baten bidez formalizatuko da lankidetzak.

3. Las condiciones de solvencia y eficacia para poder ser considerada entidad colaboradora serán las que se establezcan en el procedimiento de selección de las mismas. En el supuesto de que las entidades colaboradoras sean personas sujetas a derecho privado se seleccionarán previamente mediante un procedimiento sometido a los principios de publicidad, concurrencia, igualdad y no discriminación y la colaboración se formalizará mediante un convenio.



4. Baldin eta, lankidetzaren helburua dela eta, kontratu publikoen gaineko legeria osoki aplikatzekoa bada, entitate laguntzaileen hautaketa egingo da, bat etorrira legeria horretan agindutakoarekin. Kasu honetan, kontratuak DLOren 16. artikuluan aurreikusitako gutxieneko edukia jasoko du, bai eta kontratu publikoak arautzeko araudiaren arabera nahitaezkoa dena ere.

5. Entitate laguntzaile izatearen akreditazioa eskuratzeko, beharrezkoa izango da, Administrazio Publikoa ez denean, nahikoa den berme bat eratzea entitate laguntzaile gisa aurrera eramandako jarduketetatik etor litezkeen kalteak estaltzeko, DLOren Araudiaren 44. artikuluan eta ordenantza honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Organo administratibo emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaz-hitzarmen bat egingo da, eta hitzarmen horretan arautuko dira erakunde laguntzaileak bere gain harturiko baldintza eta betebeharrak. Hitzarmen hori gehienez lau urteko epean egongo da indarrean, nahiz eta epea, luzapenen bidez, gehienez sei urteraino luzatzea egongo den. Lankidetzaz-hitzarmenaren testuak zerbitzu juridikoen txostena izan beharko du.

7. Tolosako Udalak entitate laguntzaile gisa jarduten duenean, Estatuko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru

4. Cuando, en virtud del objeto de la colaboración, sea de aplicación plena la legislación de contratos públicos, la selección de las entidades colaboradoras se realizará conforme a los preceptos establecidos en dicha ley. En este supuesto, el contrato incluirá necesariamente el contenido mínimo previsto en el artículo 16 de la LGS, así como el que resulte preceptivo de acuerdo con la normativa reguladora de los contratos públicos.

5. Para obtener la acreditación de entidad colaboradora, cuando no tenga la consideración de Administración Pública, será necesaria la constitución de una garantía suficiente para cubrir los perjuicios que pudieran derivarse de las actuaciones que desarrolle en su condición de entidad colaboradora, en los términos dispuestos en los artículos 44 del Reglamento de la LGS y 17 de esta ordenanza.

6. Se formalizará un convenio de colaboración entre el órgano administrativo concedente y la entidad colaboradora en el que se regularán las condiciones y obligaciones asumidas por ésta, con un límite temporal de vigencia de cuatro años, sin perjuicio de que a través de prórrogas pueda extenderse hasta un máximo de seis. El texto del convenio de colaboración deberá contar con el informe los servicios jurídicos.

7. Cuando el Ayuntamiento de Tolosa actúe como entidad colaboradora, la Administración General del Estado, la de Gobierno Vasco, la de la Diputación Foral



Aldundiarenak, edo administrazio horiei loturik edo beren mende dauden erakunde publikoek Tolosako Udalarekin egingo dituzte behar diren hitzarmenak, zeinetan zehaztuko baitira zer baldintza bete behar diren funtsak banatu eta emateko, eta zein diren kontuak emateko eta justifikatzeko irizpideak. Era berean, eta berdin jokatuko da Estatuko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edo administrazio horiei loturik edo beren mende dauden erakunde publikoek entitate laguntzaile gisa jarduten dutenean Tolosako Udalak emandako dirulaguntzei dagokienez.

de Gipuzkoa o los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas suscribirán con aquél los correspondientes convenios en los que se determinen los requisitos para la distribución y entrega de los fondos, los criterios de justificación y de rendición de cuentas. De igual forma, y en los mismos términos, se procederá cuando la Administración General del Estado, la de Gobierno Vasco, la de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas actúen como entidades colaboradoras respecto de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Tolosa.

8. 11. artikulua. 1 atalean jasotako arauak aplikatuko zaizkie entitate laguntzaileei.

8. La regulación contenida en el apartado 1 del artículo 11 será de aplicación a las entidades colaboradoras.

14. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Artículo 14. Financiación de las actividades subvencionadas

1. Oro har, pertsona edo entitate onuradunak aurkeztu eta diruz lagundu beharreko proiektu edo jardueraren aurrekontua, edo gerora egindako aldaketak, erreferentziazko izango dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori kalkulatzeko egongo da proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje moduan. Kasu horretan, Tolosako Udalak egin lezakeen gehiegizko finantziazioa kalkulatzeko, ekarpen horrek kostu osoa portzentajea hartuko da erreferentzia gisa, bat etorrita dirulaguntza erregulatzeko araudiarekin eta ordenantza, deialdi, hitzarmen edo emakida-ebazpen espezifikoaren baldintzekin. Hala ere, dirulaguntzaren izaearen, helburuen edo lortu nahi dituen

1. Con carácter general, el presupuesto del proyecto o de la actividad a subvencionar presentado por la persona o entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirá de referencia para la determinación final del importe de la subvención, pudiendo calcularse éste como un porcentaje del coste final del proyecto o actividad. En este caso, el eventual exceso de financiación por parte del Ayuntamiento de Tolosa se calculará tomando como referencia la proporción que alcance dicha aportación respecto del coste total, de conformidad con la normativa reguladora de la subvención y las condiciones de la ordenanza específica, convocatoria, convenio o resolución de concesión. No obstante, en



xede sozialen arabera, ekarpen publikoa izan daiteke zenbateko zehatz bat, kostu osoaren portzentaje edo zati bati erreferentziarik gabea. Kasu horretan, ulertuko da diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia pertsona edo entitateak jarri beharko duela, eta finantzaketa publikoa, halakorik bada, itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

función de la naturaleza y objetivos o fines sociales perseguidos por la subvención, la aportación pública podrá consistir en un importe cierto –sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total–, en cuyo caso se entenderá que queda de cuenta de la persona o entidad beneficiaria la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada, en su caso, la financiación pública por el importe en que la misma exceda del coste total de dicha actividad.

2. Pertsona edo entitate onuradunaren baliabide propioekin finantzatuko da diruz lagundutako jarduera, dagokion zenbateko edo proportzioan, baldin eta hala xedatuta badago dagokion oinarri arautzaileetan, deialdian, emakida-ebazpenean edo hitzarmenean.

2. La actividad subvencionada se financiará con recursos propios de la persona o entidad Beneficiaria en el importe o proporción correspondiente cuando así se establezca en la respectiva base reguladora, convocatoria, resolución de concesión o convenio.

3. Oro har, eta oinarri arautzailean, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean xedatzen denari kalterik egin gabe, ordenantza honekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

3. Con carácter general, y sin perjuicio de lo que se señale en la base reguladora, en la convocatoria, convenio o resolución de concesión, las subvenciones que se concedan con arreglo esta ordenanza serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes. Los supuestos de cofinanciación que puedan registrarse se someten a los requisitos siguientes:

3.1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere

3.1. En ningún caso el importe de la subvención concedida podrá



gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela.

3.2. Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

3.3. Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea, eta ordenantza honetako 12.2 artikuluko d) letran aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

4. Tolosako Udalaren esparruan ezin dira eman jarduera bera finantzatzera bideratutako bi dirulaguntza edo gehiago

superar, en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de los proyectos o actividades subvencionadas. Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto realizado y la cuenta justificativa habrá de contener una relación detallada de los otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación de los importes y su procedencia.

3.2. Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación. El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas. No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo.

3.3. La circunstancia de que las subvenciones sean incompatibles no impedirá la solicitud de ambas, pero sí su disfrute simultáneo, procediéndose de conformidad con lo previsto en la letra d) del artículo 12.2 de la presente ordenanza.

4. En el ámbito del Ayuntamiento de Tolosa no podrán otorgarse dos o más



aurrekontu-ekitaldi beraren kargura, ez eta entitate baten jarduketa osorik finantzatzera bideratutako dirulaguntza bat eta entitate beraren jarduketa jakin bat finantzatzeko beste bat ere. Pertsona edo entitate onuradun batek Tolosako Udalaren kargurako dirulaguntza bat lortuta daukala eskatzen baldin badu ekitaldi berean beste dirulaguntza bat, berak edo beste erakunde batek kudeatuta, Kontuhartzaitzak, dirulaguntza emateko proposamenaren fiskalizazioari ekin baino lehen, eskaerak eragindako kudeaketa-zentroei emango die horren berri, horiek bidezkoa den ala ez erabaki dezaten eta, baldin eta proposamenari formulatutako terminoetan eusten bazaio, Tokiko Gobernu Batzarraren adostasuna eskura dezaten, Alkatetza duenak proposatuta.

subvenciones destinadas a financiar la misma actuación con cargo al mismo ejercicio presupuestario ni una subvención para financiar globalmente la actuación de una entidad y otra para una actuación determinada de la misma entidad. En los supuestos en que una persona o entidad beneficiaria ya hubiera obtenido una subvención con cargo al Ayuntamiento de Tolosa y solicite otra durante el mismo ejercicio, gestionada por la misma o por distinto Organismo, la Intervención antes de proceder a la fiscalización de la propuesta de concesión, lo comunicará a los centros gestores afectados para que valoren su oportunidad y, en caso de mantener la propuesta en los términos ya formulados, habrán de recabar la conformidad de la Junta de Gobierno Local, a propuesta de quien ostente la alcaldía.

15. artikulua. Dirulaguntzak emateko ebazpenaren aldaketa.

Artículo 15. Modificación de la resolución de concesión

1. Dirulaguntzarekin batera 14. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzetatik kanpoko beste ekarpenik jasoz gero, dirulaguntza emateko ebazpena edo akordioa aldatuko da.

1. La obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos y en las condiciones establecidas en el artículo 14 dará lugar a la modificación de la resolución o acuerdo de concesión.

2. Dirulaguntza emateko ebazpena edo akordioa aldatu ahal izango da pertsona edo entitate onuradunak hala eskatzen badu –Ordenantza honetako 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera–, ustekabeen gertatutako zirkunstantziek ekarri badute dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, betiere, zirkunstantzia horiek emandako dirulaguntzaren izaera edo helburuak desitxuratzeko ez badituzte, aldaketak

2. La resolución o acuerdo de concesión se podrá modificar a solicitud de la persona o entidad beneficiaria –según lo previsto en el artículo 11.1 de esta Ordenanza–, cuando circunstancias sobrevenidas e imprevisibles supongan una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que las mismas no desvirtúen la naturaleza u objetivos de la subvención concedida, que la



beste pertsona edo entitate bazuen eskubideei kalterik egiten ez badie eta eskabidea jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik aurkezten bada.

modificación no dañe derechos de terceras personas o entidades y que la solicitud se presente antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad.

3. Dirulaguntza emateko ebazpena eman eta gero, birdoitze bat egin ahal izango da lagundutako proiektu edo jardueraren gastuen banaketan, dirulaguntza eman duen organoak horretarako baimena eman ondoren, baimen horrek kalterik egiten ez badie beste pertsona edo entitate batzuen eskubideei.

3. Una vez adoptada la resolución de la concesión, podrá realizarse un reajuste en la distribución de los gastos del proyecto o actividad subvencionada, previa autorización del órgano concedente y siempre que la autorización no perjudique los derechos de terceras personas o entidades.

o *16. artikulua. Udalaren dirulaguntza jardueraren publikotasuna.*

Artículo 16. Publicidad de la actividad subvención al municipal

1. Tolosako Udalak diruz laguntzeko jardueraren gaineko informazioa bidaliko dute Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera, DLOren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

1. El Ayuntamiento de Tolosa remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información sobre la actividad subvencional municipal en los términos establecidos en el artículo 20 de la LGS.

2. Era berean, Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko dira, zehatz adierazirik zein diren dirulaguntza horien zenbateko, helburu edo xedea eta onuradunak, kalterik egin gabe oinarri arautzaileak, deialdiak, dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak, kasuan kasu, adierazten duen beste edozein hedabidetan argitaratzeari. Hori horrela, informazioak bereziki babestutako datuak badauzka, publizitatea egingo da, bakar-bakarrik, datu horiek disoziatu ondoren.

2. Asimismo, las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Tolosa se publicarán en la página web municipal del Ayuntamiento de Tolosa, con indicación detallada de su importe, objetivo o finalidad y personas o entidades beneficiarias, sin perjuicio de su publicación en cualquier otro medio que, en su caso, señale la base reguladora, convocatoria, el acuerdo de concesión o el convenio. A este respecto, cuando la información contuviera datos especialmente protegidos, la publicidad sólo se llevará a cabo previa disociación de los mismos.

3. Udalaren Egoitza Elektronikoak

3. La Sede Electrónica del Ayuntamiento



eskainiko du dirulaguntzak eta sariak emateko prozeduraren inguruko informazioa, eta horren bidez alde aurretik jakin ahal izango da, batetik, zein diren prozedura horiek, eta, bestetik, zein diren garapenaren fase nagusiak. Zehazki, egoitza horretan honako eduki hauek jasoko dira beti:

a) Dirulaguntzaren gaineko informazio orokorra, dirulaguntzari dagokion ordenantzaren edo arau erregulatzailearen informazio laburtua duela, bai eta ordenantza edo arau horretarako lotura ere.

b) Eskabide-orriak eta, hala dagokionean, interesdunek erabili beharreko eranskinak.

c) Prozeduraren ebazpena, salbu eta legez justifikatuta badago adjudikaziodunaren datuen publikotasuna alde batera uztea.

4. Pertsona edo entitate onuradunek ageriko egin behar dituzte –kalterik egin gabe dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintza guztien finantzaketaren publikotasuna (ordenantza honetako 12.i) artikuluan ezarritakoaren arabera) zabaldu beharri– jasotako dirulaguntzak eta laguntzak, Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko estatuko eta erkidegoko legeriak agindutako baldintza eta terminoetan. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013

incluirá información relativa a los procedimientos de concesión de subvenciones y premios que permita tanto el conocimiento previo de dichos procedimientos como, al menos, las fases principales de su desarrollo. En particular, se incluirá en todo caso el contenido siguiente:

a) Información general sobre la subvención, con información extractada de su ordenanza o norma reguladora, así como el enlace a la misma.

b) Los impresos de solicitud, así como, en su caso, anexos que se deban utilizar por las personas interesadas.

c) La resolución del procedimiento, salvo en los casos en que legalmente esté justificada la exclusión de la publicidad de los datos de la adjudicataria.

4. Las personas o entidades beneficiarias, sin perjuicio de su deber de difundir el carácter público de la financiación de sus programas, actividades, inversiones o actuaciones –en los términos establecidos en el artículo 12.i) de esta ordenanza– deberán dar publicidad a las subvenciones y ayudas percibidas en los términos y condiciones establecidos en la legislación estatal y autonómica de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno. En el caso de que las entidades sin ánimo de lucro hagan uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la Ley 19/2013 de Transparencia, Acceso a la información



Legean jasotako aurreikuspena erabiltzen badute, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak balio izango du bitarteko elektronikoa gisa, publikotasun-eginbeharrak betetzeko.

pública y Buen Gobierno, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

17. artikulua. Bermeen araubide orokorra.

Artículo 17. Régimen general de garantías

1. Tolosako Udalak emandako dirulaguntzei aplikatuko zaien bermeen araubide orokorra izango da DLOren 42.etik 54.era bitarteko artikuluetan eta ordenantza honetan xedatutakoa.

1. El régimen general de garantías aplicable a las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Tolosa será el establecido en los artículos 42 a 54 del Reglamento de la LGS y en la presente ordenanza.

2. Ezinbestekoa izango da berme bat eratzea:

2. Será obligatoria la constitución de garantía:

a) Entitate laguntzaileak hautatzeko prozeduretan, non eta entitate horiek ez diren Tolosako Udalaren erakundeak.

a) En los procedimientos de selección de entidades colaboradoras, a no ser que se trate de organismos pertenecientes al Ayuntamiento de Tolosa.

b) Pertsona edo entitate onuradunek edo entitate laguntzaileek haien gain hartutako konpromisoak beteko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen bada, eta oinarri arautzailean, deialdian, emateko ebazpenean edo hitzarmenean hala aurreikusita badago.

b) Cuando se considere necesario para asegurar el cumplimiento de los compromisos asumidos por las personas o entidades beneficiarias o las entidades colaboradoras, y así esté previsto en la base reguladora, convocatoria, el acuerdo de concesión o el convenio.

3. Ordainketa aurreratuen kasuetan edo, halakorik badago, konturako ordainketen kasuetan, bermeak eratuko dira ordainketa horien zenbatekoarekin, gehi oinarri arautzaileak, deialdiak, emateko ebazpenak edo hitzarmenak agintzen duen portzentajea, zeina ez baita inoiz 100eko 20 baino handiagoa izango, eta bermeak estali beharko du ordainketa

3. En los supuestos de pagos anticipados o, en su caso, de pagos a cuenta, las garantías se constituirán por el importe de los mismos incrementado en el porcentaje que establezca la base reguladora, convocatoria, acuerdo de concesión o convenio, que no podrá superar un 20 por 100, debiendo cubrir el importe del pago anticipado o, en su caso del pago a



aurreratuaren zenbatekoa edo, konturako ordainketen kasuan, zenbateko hori gehi sor litezkeen berandutze-interes zenbateko aintzatetsia.

cuenta, más el importe estimado de los intereses de demora que pudieran generarse.

4. Dirulaguntzen helburua ondasun higiezinak osorik edo zati batean finantzatzea denean, deialdiek exijitu ahal izango dituzte dirulaguntza emateko prozeduran aurreikusitako denboran ondasun higiezin horiek beren helbururako bideratuko direla ziurtatzeko bermeak. Berme horiek hartu ahal izango dituzte, konturako ordainketen edo ordainketa aurreratuen bermeetarako aurreikusitako moduez aparte, hipoteka edo bahien modua, kalterik egin gabe finantzatutako ondasunak dirulaguntzaren xede zehatzerako erabiltzeko betebeharra dagokion erregistroetan nahitaez inskribatzeari. Berme horiek nahitaez eratu behar dira onuraduna entitate pribatu bat denean.

4. Cuando las subvenciones tengan por objeto la financiación total o parcial de bienes inmuebles, las convocatorias podrán exigir garantías de que los mismos se aplican a su destino durante el tiempo previsto en la resolución de concesión. Dichas garantías podrán adoptar, además de las modalidades previstas para las garantías de pagos a cuenta o anticipados, las formas de hipoteca o prenda, sin perjuicio de la preceptiva inscripción en los registros correspondientes de la obligación de destinar los bienes financiados al fin concreto para el que se concedió la subvención. La constitución de estas garantías será obligatoria cuando la beneficiaria sea una entidad privada.

II. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

CAPÍTULO II. PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN

18. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

Artículo 18. Procedimientos de concesión

1. Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da. Prozedura horretan aurkezturiko eskabideen alderaketa egin behar da haien hurrenkera ezartzeko, oinarri arautzailean alde zurretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera, dirulaguntzak baloraziorik altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz. Hala eta guztiz ere, ez da

1. El procedimiento ordinario de concesión será el de concurrencia competitiva. En este procedimiento se debe proceder a la comparación de las solicitudes presentadas al objeto de establecer una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en la base reguladora, de manera que se concedan, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, a aquellas



beharrezkoa izango lehentasun-ordena bat finkatzea baldin-eta deialdian jasotako kreditua nahikoa bada, aurkeztutako epea bukatutakoan, ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabide guztiei aurre egiteko.

que hayan obtenido mayor valoración. No obstante, no será necesario fijar un orden de prelación en el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender, una vez finalizado el plazo de presentación, todas las solicitudes que reúnan los requisitos establecidos.

2. Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

2. Podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:

a) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak, dirulaguntza emateko hitzarmen edo akordioetan aurreikusitakoaren arabera.

a) Las previstas nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa, en los términos recogidos en los convenios o acuerdos de concesión.

b) Ematea bera edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezartzen dieten dirulaguntzak, halakoak emateko laguntza bakoitzari buruzko arau berariazkoek jarraituz aplikatu behar den prozedura baliatuko baita.

b) Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto por una norma de rango legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa.

c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak dituzten dirulaguntzak.

c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

3. Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik, ezta aurreikusitako aurrekontu egozpeneko urteko mugak gainditu ere. Aurrekontu nahikorik ez egoteagatik erantzuten ez diren eskabideak atzera botako dira, kalterik

3. No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria, ni superar los límites anuales de imputación presupuestaria previstos. Aquellas solicitudes que no se atiendan por insuficiencia presupuestaria serán desestimadas, sin perjuicio de



egin gabe ebazpenaren testuan beren baremazioa zehazteari, hala aurreikusita baitago ordenantza honetako 21.2 artikuluan. Deialdietan ezarri ahal izango da behin betiko ezezkoa jasotako eskabideek lehentasuna izatea hurrena egiten den deialdian.

detallarse su baremación en el texto de la resolución a los efectos de lo prevenido en el artículo 21.2 de esta ordenanza. En la convocatoria podrá establecerse que las solicitudes definitivamente denegadas por falta de crédito tendrán prioridad en la siguiente convocatoria que se realice.

1. ATALA. DIRULAGUNTZA
NORGEHIAGOKAKO ERREGIMENEAN
EMATEA

SECCIÓN 1ª. CONCESIÓN EN
RÉGIMEN DE CONCURRENCIA
COMPETITIVA

19. artikulua. Prozeduraren hasiera

Artículo 19. Iniciación del procedimiento

1. Dirulaguntzak norgehiagoka emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, oinarri arautzaileetan zehaztutako organo eskudunak onarturiko deialdiaren bitartez, eta deialdian garatuko da deitutako dirulaguntzak emateko prozedura, bat etorrita ordenantza honekin, DLOren I. Tituluko II. Kapitularekin eta DLO garatzeko Araudiarekin eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarrizko legeriarekin, bai eta aplikagarri den oinarri arautzaileetan araututakoarekin ere.

1. El procedimiento para la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva se iniciará siempre de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente determinado en las bases reguladoras, que desarrollará el procedimiento para la concesión de las subvenciones convocadas de conformidad con la presente Ordenanza, el Capítulo II del Título I de la LGS y de su Reglamento de desarrollo y los principios de la legislación básica reguladora del procedimiento administrativo común, así como en lo regulado en las bases reguladoras que sea de aplicación.

2. Dirulaguntzen deialdiak denbora nahikoarekin argitaratu beharko dira pertsona edo entitate onuradunak behar adinako denbora eduki dezan jarduera eraginkortasunez garatzeko eta ondorengo justifikazioa egiteko. Beharrezkoa bada, aurreko aurrekontu-ekitaldian emango zaio hasiera espedienteari, DLOren Araudiaren 56. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

2. Las convocatorias de subvenciones habrán de publicarse con la antelación suficiente para que la persona o entidad beneficiaria pueda disponer del tiempo necesario para el desarrollo eficiente de la actividad y subsiguiente justificación, iniciándose la tramitación del expediente si fuera necesario en el ejercicio presupuestario anterior, de conformidad con lo previsto en el artículo 56 del Reglamento de la LGS.



3. Dirulaguntza norgehiagokako erregimenean emateko prozedura egin ahal izango da deialdi eta hautatze-prozedura bakarren bitartez edo, bestela, urtean zeharreko hautatze-prozedura batzuk dituen deialdi ireki baten bitartez, DLoren Araudiaren 59. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira, dagokion deialdian zehaztutakoaren arabera. Aldez aurretiko tramitazioaren edo urte anitzeko dirulaguntzen erregimenari jarraitzen dioten deialdietan, DLoren Araudiaren 56. eta 57. artikuluetan aurreikusitako xedapenak aplikatuko dira.

3. El procedimiento de concesión de la subvención en régimen de concurrencia competitiva podrá hacerse bien mediante convocatoria y procedimiento selectivo únicos, o bien mediante una convocatoria abierta con varios procedimientos selectivos a lo largo del año con arreglo a lo previsto en el artículo 59 del Reglamento de la LGS, según se especifique en la correspondiente convocatoria. En las convocatorias que sigan el régimen de tramitación anticipada o de subvenciones plurianuales, se aplicarán las disposiciones previstas en los artículos 56 y 57 del Reglamento de la LGS.

4. Deialdiak honako eduki hau izango du ezinbestean:

4. La convocatoria tendrá necesariamente el siguiente contenido:

a) Oinarri arautzaileak argitaratuta dauden aldizkari ofiziala adieraztea, horiek deialdiarekin batera onartu eta argitaratzen direnean izan ezik.

a) Indicación del diario oficial en el que están publicadas las bases reguladoras, salvo que estas se aprueben y publiquen junto con la convocatoria.

b) Dirulaguntza egozteko aurrekontu kredituak eta deialdiko dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa zein diren, kreditu baliagarrien barruan, edo, halakorik zehaztu ezean, kalkulatzeko den zenbatekoa.

b) Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles o, en su defecto, cuantía estimada de las subvenciones.

c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua zein diren.

c) Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.

d) Adieraziko da dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematen dela

d) Expresión de que la concesión se efectúa en régimen de concurrencia competitiva.



- e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta haiek egiaztatzeko modua.
- f) Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.
- g) Balorazio-batzordearen osaketa.
- h) Eskabideak aurkezteko epea eta tokia. Epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, deialdian epe hori baino luzeago bat jartzen ez bada.
- i) Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioak.
- j) Ebazpena eman eta jakinarazteko epeak, baita argitaratzeko moduak ere.
- k) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak, 5. atalean zehaztutakoen artetik, eta, bere kasuan, irizpide horien haztapena.
- l) Hala badagokio, eskabidea berriro egiteko aukera, DLOren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- m) Adieraziko da, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenak jaso ahal izango duela onuradun izateko baldintzak beteta ere deialdian finkatutako kredituaren gehienezko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ez diren deialdien zerrenda ordenatu bat,
- e) Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.
- f) Documentación interoperable y verificable.
- g) Composición de la comisión de valoración.
- h) Plazo y lugar de presentación de solicitudes. El plazo será de 20 días naturales a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria, salvo que en la misma se fije uno superior.
- i) Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.
- j) Plazos de resolución y de notificación, así como los medios de publicación.
- k) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención de entre los detallados en el apartado 5 y, en su caso, ponderación de los mismos.
- l) En su caso, posibilidad de reformulación de solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 la LGS.
- m) Indicación, en su caso, de que la resolución de concesión podrá incluir una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones para adquirir la condición de beneficiario/a, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía



aditzera emanik deialdi horietako bati emandako puntuazioa eta, hala badagokio, hurrengo deialdian lehenetsuna izateko aukera dutela edo, dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren helburuko zenbatekoa baino handiagoa denean, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatu dadila aurreko atalen arabera doitutako proiektuen aurrekontuen edo onartutako programen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburu eta xedea aldatzen ez badira. Hala eta guztiz ere, onuradun edo proiektu bakoitzak jaso beharreko diru-kopurua nahikoa ez bada dirulaguntzak eraginkorrak izateko, ez da hainbanaketa aplikatuko.

n) Hala badagokio, ordenantza honetan izaera orokorrez aurreikusitakoez bestelako baldintzetan azpikontratatzeko aukera.

o) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ze portzentaje finantzatu behar duen, dela finantzazio propioaren bidez, dela beste dirulaguntza batzuen bitartez.

p) Ordainketa aurreratua eta konturako bonuak egiteko aukera. Deialdiak

máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas y en su caso, posibilidad de que tengan prioridad en la siguiente convocatoria o que, en el caso de que la suma de los importes solicitados por quienes reúnan los requisitos para acceder a las ayudas sea superior al importe objeto de la convocatoria, dicho importe se prorratee entre las personas beneficiarias en proporción a los presupuestos ajustados de los proyectos conforme al apartado anterior o a los programas aceptados, siempre que no se alteren las condiciones, objeto y finalidad de la subvención. No obstante, si la cantidad individualizada a percibir por persona beneficiaria o proyecto resultara insuficiente para la eficacia de las ayudas no procederá aplicar el prorrateo.

n) En su caso, posibilidad de subcontratación en diferentes términos a los previstos con carácter general en esta ordenanza.

o) En su caso, tanto por ciento del presupuesto del proyecto a financiar por la persona o entidad beneficiaria, bien por financiación propia o a través de otras subvenciones.

p) La posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta. En caso de que la convocatoria no



aurreikuspen hori eginda ez badauka, dirulaguntzaren ordainketa egingo da pertsona edo entitate onuradunak jarduera edo proiektua gauzatu izanaren justifikazioa egin ondoren.

q) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunek, edo entitate laguntzaileek, eratu behar duten berme-araubidea.

r) Dirulaguntza bateragarria edo bateraezina den.

s) Justifikatzeko modua eta epea.

t) Proiektuan, aurreikusi gabeko zirkunstantzien ondorioz, aldaketak sartzeko aukerarik ba ote dagoen.

u) Hala badagokio, baldintza hau: Udalaren finantzaketa publikoa jaso duela azaltzea diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi edo grafiko guztietan.

Oinarri arautzaileak deialdiarekin batera onartu eta argitaratzen badira, deialdian ez dira sartuko oinarri horietan arautzen diren edukiak.

5. Tolosako Udalak dirulaguntzak emateko irizpide orokor gisa balio dezakete, besteak beste, honako hauek:

a) Dirulaguntza eskatzen duenaren ahalmen ekonomikoa.

b) Proiektuaren bideragarritasuna.

contenga tal previsión el pago de la subvención se realizará previa justificación por la persona o entidad beneficiaria de la realización de la actividad o proyecto.

q) En su caso, régimen de garantías que deben constituir las personas o entidades beneficiarias, o las entidades colaboradoras.

r) Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención

s) Forma y plazo de justificación.

t) Posibilidad de introducir modificaciones en el proyecto como consecuencia de circunstancias no previstas.

u) En su caso, la condición de que en toda la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar la financiación pública del Ayuntamiento.

En el caso de que las bases reguladoras se aprueben y publiquen junto con la convocatoria, ésta no incluirá los contenidos regulados en las mismas.

5. Podrán servir de criterios generales para el otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Tolosa, entre otros, los siguientes:

a) Capacidad económica de la persona solicitante.

b) Viabilidad del proyecto.



c) Ekintzaren justifikazioaren, jarritako helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia.

d) Jardueraren edo proiektuaren sormena, lanketa-maila, berrikuntza, originaltasuna edo interesa.

e) Proiektuan genero-ikuspegia kontuan hartzea.

Balorazio-irizpideen baremo osoaren gutxienez % 5arekin balioetsiko dira parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako ekintzak eta politikak, eta/edo dirulaguntzara aurkezten den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin zerikusia duten beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta alderdi garrantzitsua bada, oinarri arautzaileetan honako baldintza hauetako bat edo batzuk sartzea proposatzen da: pertsonekin lotutako balorazio-irizpideen artean, puntuazio gehigarri bat ematea proposatzen da dirulaguntzaren hartzailea emakumea (edo guraso bakarreko familia) bada, edo emakumeen edo indarkeria matxistaren biktima izandako

c) Coherencia entre la justificación de la acción, los objetivos trazados y las actividades propuestas.

d) Creatividad, grado de elaboración, innovación, originalidad, o interés de la actividad o proyecto.

e) Incorporación del enfoque de género al proyecto.

Se valorarán, al menos, con un 5% del baremo total de los criterios de valoración, las acciones y políticas en materia de igualdad de mujeres y hombres realizadas por las personas físicas o jurídicas participantes y/o otros aspectos relacionados con la incorporación de la perspectiva de género en el proyecto que se presenta a subvención. Todo ello, salvo que objetivamente se justifique que este porcentaje es desproporcionado en cuanto a la incidencia de la subvención en la situación de mujeres y hombres.

Si la igualdad de mujeres y hombres es un aspecto relevante en función del objeto de la subvención, se propone incluir en las bases reguladoras uno o varios de los siguientes requisitos: entre los criterios de valoración relacionados con las personas, se propone otorgar una puntuación adicional si la perceptora de la subvención es una mujer (o una familia monoparental) o una mujer víctima



emakumea bada.

f) Proiektu edo jardueratik eratorritako ondorioen iraunkortasun maila.

g) Beste entitateekiko koordinazio-eta lankidetzeta maila.

h) Esperientzia antzeko proiektuetan.

i) Entitatea zenbat kidek osatzen duten eta jarduerak zenbateko eragin soziala duen, jarduera horietan izena eman duten partaideen kopuruaren arabera.

j) Pertsona edo entitate onuradunaren gaitasun teknikoa, antolakuntzazkoa eta kudeatzekoa.

k) Proiektuaren egokitzapena, baldintza sozialei, kulturelei edo beraren garapen-esparruko beste baldintza batzuei dagokienez.

l) Kalitate teknikoa.

m) Kalitate artistikoa.

n) Dirulaguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea autofinantzatzeko gai izatea eta finantzatzeko beste funts batzuk edukitzea.

o) Programatutako proiektuaren edo jardueren jarraipena eta ebaluazioa.

p) Iritzi publikoaren sentsibilizazioari egiten dion ekarpena.

de mujeres o violencia machista.

f) Grado de permanencia de los efectos derivados de la actividad o proyecto.

g) Grado de coordinación y colaboración con otras entidades.

h) Experiencia en proyectos similares.

i) Número de componentes que constituyen la entidad e impacto social de las actividades en referencia al número de participantes que se hayan inscrito en las mismas.

j) Capacidad técnica, organizativa y de gestión de la persona o entidad solicitante.

k) Adecuación del proyecto a las condiciones sociales, culturales u otras del ámbito donde se vaya a desarrollar.

l) Calidad técnica.

m) Calidad artística.

n) Capacidad de autofinanciación de la persona o entidad solicitante y disponibilidad de otros fondos de financiación.

o) Sistema de seguimiento y evaluación del proyecto o de las actividades programadas.

p) Contribución a la sensibilización



q) Jardueren erabilgarritasun maila Tolosako biztanleentzat.

r) Proiektu edo jardueraren garapenean parte hartzen duten boluntarioen portzentajea.

s) Proiektuak edo jarduerak laguntzen ote dien biztanleria-hartzailearen bizi-kalitatearen hobekuntza ekar dezaketen prestakuntza- edo heziketa-alderdiei.

t) Diruz lagundutako jardueraren hartzaile den biztanleriaren partaidetza aktiboa.

de la opinión pública.

q) Grado de accesibilidad a las actividades por parte de la ciudadanía de Tolosa.

r) Porcentaje de participación del voluntariado en el desarrollo del proyecto o actividad.

s) Favorecimiento de los aspectos formativos o educativos que puedan comportar una mejora de la calidad de vida de la población destinataria.

t) Participación activa de la población destinataria de la acción subvencionada.

6. Deialdia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen –zeinak deialdiaren laburpen bat bidaliko baitu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera– eta udalaren webgunean. Egin liteke beste argitalpen osagarri bat, deialdia egiteko eskumena duen organoak xedatutako forman eta hedabideen bitartez.

7. Interesa duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute, helburu horretarako deialdian arautzen den ereduan. Eskabideak aurkezteko epea dagokien deialdietan zehaztuko da eta ezingo da izan 20 egun naturalekoa baino laburragoa.

8. Dirulaguntzen deialdietan eskatuko da aurkez daitezela, eskabidearekin batera, pertsona edo entitate onuradunek izan beharreko zirkunstantziak eta laguntza emateko prozeduran baloratu beharreko meritu edo zer-nolakoak egiaztatzeko

6. La convocatoria será publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, que remitirá el extracto de la misma al Boletín Oficial de la Provincia de Gipuzkoa, y en la página web municipal. Se podrá realizar una publicación adicional en la forma y por los medios que se establezcan por el órgano competente para realizar la convocatoria.

7. Las personas interesadas deberán presentar la solicitud en el modelo normalizado que a tal efecto se determine en la convocatoria. El plazo para presentar las solicitudes se fijará en las correspondientes convocatorias y no podrá ser inferior a 20 días naturales.

8. Las convocatorias de subvenciones exigirán la presentación, junto con la solicitud, de los documentos e informaciones precisos para acreditar las circunstancias que deban concurrir en las



behar diren dokumentu eta informazioak, non eta eskatutako dokumentuak ez dauden Administrazio honen esku. Hala bada, dokumentu horien ordez erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da, non adierazten den zein egunetan, organo edo sailetan aurkeztu ziren edo, kasua bada, eman ziren, edo dauden, betiere dagozkion prozeduraren amaieratik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Aurretik xedatutakoa gorabehera, Administrazio honek dokumentu hori eskuratu ezin badute, pertsona edo entitate onuradunari eska lekiok dokumentua auzer dezala, edo ezin badu, beste modu batzuen bitartez egiazta dadila dokumentuak aipatzen dituen baldintzak, ebazpen-proposamena egin baino lehen.

personas o entidades beneficiarias y los méritos o circunstancias a valorar en el procedimiento de concesión, salvo que los documentos exigidos ya estuviesen en poder de esta Administración, en cuyo caso podrán sustituirse por una declaración responsable en la que se indique la fecha y el órgano o dependencia, en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, o en el que obran, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. No obstante lo dispuesto anteriormente, en los supuestos de imposibilidad material de obtener el documento por parte de esta Administración se podrá requerir a la persona o entidad solicitante su presentación, o en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento, con anterioridad a la formulación de la propuesta de resolución.

9. Dirulaguntzen deialdian onar liteke aurkeztea, dokumentu jakin batzuk aurkeztu beharrean, pertsona eskatzailearen edo entitate eskatzailea ordezkatzen duen pertsonaren erantzukizunpeko adierazpen bat. Kasu honetan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen, eskatuko da aurkez dezatela, gehienez 15 eguneko epean, aipatutako erantzukizunpeko adierazpen horretan jasotako datuen egiazkotasuna frogatzen duen dokumentazioa.

9. La convocatoria de las subvenciones podrá admitir la sustitución de la presentación de determinados documentos por una declaración responsable de la persona o de la persona representante de la entidad solicitante. En este caso, con anterioridad a la propuesta de resolución de concesión de la subvención se deberá requerir la presentación, en un plazo no superior a 15 días, de la documentación que acredite la realidad de los datos contenidos en la citada declaración.

20. artikulua. Prozeduraren instrukzioa

Artículo 20. Instrucción del procedimiento

1. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa egitea dagokio, Tolosako Udalaren esparruan, prozedura

1. La instrucción del procedimiento de la concesión de subvenciones en el ámbito



tramitatzeko ardura duen administrazio zerbitzuko funtzionario bati. Deialdian izendatuko da zein funtzionario den. Erakunde publikoen esparruan, berriz, ebazteko ahalmena duen organoak izendatutakoa izango da.

del Ayuntamiento de Tolosa compete al funcionario o funcionaria del servicio administrativo encargado de la tramitación del procedimiento, cuya designación se efectuará en la convocatoria. En el ámbito de los organismos públicos, será quien designe el órgano competente para resolver.

2. Prozeduraren instrukzioa egiten duen pertsonak ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena emateko oinarri izan behar duten datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat hartzen dituen ekintza guztiak.

2. La persona que instruya el procedimiento realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución,

3. Instrukzioan ekintza hauek egingo dira nahitaez:

3. Las actividades de instrucción comprenderán necesariamente:

- Eskabideen ebaluazioa, oinarri arautzailean eta deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehetasunen arabera eginga. Oinarri arautzailean eta deialdian aurretiazko ebaluazio fase bat ezarri ahal izango da, dirulaguntzaren onuraduna izateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko.
- Instrukzioaz arduratzen den zerbitzuaren txosten bat, jasotzen duena bere esku duen informaziotik ondorioztatzen dela pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntzak jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztela.

- Evaluación de las solicitudes, efectuada conforme a los criterios, formas y prioridades de valoración establecidos en la base reguladora y en la convocatoria. Estas podrán prever una fase de preevaluación en la que se verificará el cumplimiento de las condiciones impuestas para adquirir la condición de beneficiario/a de la subvención.

- Informe del servicio instructor en el que conste que de la información que obra en su poder se desprende que las personas o entidades beneficiarias cumplen todos los requisitos necesarios para acceder a las mismas.

4. Behin eskaerak ebaluatu eta haien gaineko txostena egin ondoren, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak

4. Una vez evaluadas e informadas las solicitudes, el servicio responsable de la instrucción elevará a un órgano colegiado



dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio kide anitzeko organoari, hark dirulaguntzaren emakida proposamena egin diezaion organo emailari.

Kide anitzeko organoaren osaera oinarri arautzaileek ezartzen dutena izango da. Bertan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.

5. Kide anitzeko organoak, aurkeztutako proposamena ikusitakoan, emango du irizpena, zeina, zerbitzu instrukzio-egilearen bidez, organo eskudunari helaraziko baitzaio, hark ebatz dezan.

6. Prozeduran interesdunek azaldu gabeko egitate, alegazio edo frogak agertu eta kontuan hartzen diren kasuetan, ebazpen-proposamena jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkez ditzaten. Kudeaketa-zerbitzuak alegazioen gaineko txostena egin ondoren, proposamena Batzordeari aurkeztuko zaio berriz, irizpena eman dezan, eta batzorde horrek organo eskudunari helaraziko dio, hark onar dezan.

7. Deialdietan zera aurreikusi ahal izango da, baldin-eta dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura handiagoa bada deialdiaren helburua den zenbatekoa baino, azken zenbateko hori onuradunen artean hainbanatuko dela aurreko atalaren arabera doitutako proiektuen aurrekontuen edo onartutako programen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburu eta xedea aldatzen ez

la propuesta de concesión para que este formule la propuesta de concesión al órgano concedente.

La composición de este órgano colegiado será la que establezcan las bases reguladoras. Se garantizará una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la composición de la comisión.

5. El órgano colegiado, a la vista de la propuesta presentada, emitirá un dictamen que por conducto de servicio instructor, se someterá a la aprobación del órgano competente para su resolución.

6. En aquellos supuestos en que figuren en el procedimiento y sean tenidos en cuenta, hechos, alegaciones o pruebas no aducidas por las personas interesadas, se les notificará la propuesta de concesión, otorgándoles el plazo de 10 días para la presentación de alegaciones. Informadas las mismas por el servicio gestor se volverá a elevar la propuesta a dictamen de la Comisión que la someterá para su aprobación al órgano competente.

7. Las convocatorias podrán prever que, en el caso de que la suma de los importes solicitados por quienes reúnan los requisitos para acceder a las ayudas sea superior al importe objeto de la convocatoria, dicho importe se prorratee entre las personas beneficiarias en proporción a los presupuestos ajustados de los proyectos o de los programas aceptados, siempre que no se alteren las condiciones, objeto y finalidad de la



badira. Hala ere, onuradunak edo proiektuak, bakoitzak bere aldetik, jaso beharreko kopurua nahikoa ez bada dirulaguntzak eraginkorrak izateko, ez da hainbanaketarik egingo.

subvención. No obstante, si la cantidad individualizada a percibir por persona beneficiaria o proyecto resultara insuficiente para la eficacia de las ayudas no procederá aplicar el prorrateo.

21. artikulua. Prozeduraren ebazpena

Artículo 21. Resolución del procedimiento

1. Behin ebazpen-proposamena eta espedientearen gainerakoa jasoz gero, eta Kontuhartzaitzaren fiskalizazioaren ondoren, organo eskudunak prozedura ebartziko du.

1. Una vez recibida la propuesta de resolución, junto con el resto del expediente, el órgano competente resolverá el procedimiento, previa fiscalización de la Intervención.

2. Ebazpena arrazoituko da bat etorritz ordenantza honetan, oinarri arautzailean eta dirulaguntzaren deialdian xedatutakoarekin, eta, edonola ere, prozeduran egiaztaturik geratu behar dute harturiko ebazpenaren oinarriek. Horri dagokionez, ebazpenak agerian utzi behar ditu, bereziki, datu hauek: dirulaguntza jasotzen duen eskatzailea edo eskatzaile-zerrenda, eta dirulaguntzaren zenbatekoa, eta hala badagokio, gainerako eskatzaileak, alegia, eskabidea atzera bota zaienak, zehazturik ebaluazioa eta balorazio-irizpideak, hala dirulaguntza ematekoak, nola ukatzekoak.

2. La resolución se motivará de conformidad con lo dispuesto en la presente ordenanza, en la base reguladora y en la convocatoria por la que se rige, debiendo, en todo caso, quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de la resolución que se adopte. A este respecto, deberá hacer constar de manera expresa: la persona solicitante o la relación de solicitante a los que se concede la subvención, y su cuantía, y en su caso, el resto de solicitantes cuyas peticiones hayan resultado desestimadas, especificándose su evaluación y los criterios de valoración seguidos para efectuar tanto la concesión como la denegación.

Kasu honetan, onuradunen batek dirulaguntzari uko egingo balio, dirulaguntza eman duen organoak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza ematea puntuazio-ordenako hurrengo eskatzaileari edo eskatzaileei, betiere onuradun batzuek egindako ukoarekin atzera emandako eskabideetatik

En este supuesto, si se renunciase a la subvención por alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente acordará, sin necesidad de una nueva convocatoria, la concesión de la subvención a la persona solicitante o solicitantes siguientes a aquel en orden de su puntuación, siempre y cuando con la renuncia por parte de algunas de las



gutxienez bati erantzuteko kreditu nahikoa utzi bada libre.

personas beneficiarias se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

Dirulaguntza ematen duen organoak aukera hau jakinaraziko die interesdunei, hala, haiek onartuz gero, administrazio-organok emakida-ekintza berri bat egin dezan.

El órgano concedente de la subvención comunicará esta opción a las personas interesadas, a fin de que, en caso de que accedan, el órgano administrativo dicte nuevo acto de concesión.

4. dirulaguntza ematen duen organoa izango da dirulaguntza itzultzeko prozedura ebazteko eskumena duena. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea izango da hamabi hilabetekoa, itzultzeko prozedurari hasiera emateko akordioa hartzen denetik kontatuta. Ebazteko epea igarotzen bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingo da; hala ere, jarduketek bukatu arte jarrai dezakete eta aipatutako epea bukatu arte egindako jarduketengatik preskripzioa ez da etentzat emango.

4. El órgano concedente de la subvención será el competente para la resolución del procedimiento de reintegro. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de doce meses desde la fecha del acuerdo de iniciación. Si transcurre el plazo para resolver sin que se haya notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento, sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.

5. Dirulaguntza itzultzeko prozedurari ez zaio hasierarik emango baldin eta itzuli beharreko zenbatekoa, berandutze-interesak barne, hamabi eurokoa baino txikiagoa bada. Era berean, dirulaguntza itzultzeko prozedura hasita dagoelarik onuradunak aurkeztutako alegazioak onesten badira, halako moduz non azkenean itzuli beharreko zenbatekoa lehen aipatutako kopurua baino txikiagoa den, prozeduraren ebazpenean adieraziko da ezen kopuru horrengatik ezin zaiola onuradunari eskatu.

5. No se iniciará el procedimiento de reintegro cuando el importe a reintegrar, incluidos los intereses de demora, sea inferior a doce euros. Asimismo, si iniciado el procedimiento de reintegro se estimaran las alegaciones presentadas por la persona interesada, de tal manera que el importe final a reintegrar fuera inferior a dicha cifra, la resolución del procedimiento indicará que no procede su exigencia a la beneficiaria por razón de su importe.

VII. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN FINANTZARIOA

UDALAREN KONTROL

CAPÍTULO VII. CONTROL FINANCIERO DE LAS SUBVENCIONES MUNICIPALES

43. artikulua. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioa

Artículo 43. Control financiero de las subvenciones municipales

1. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioak aginduzko izango du, oro har, dirulaguntzei buruzko Lege

1. El control financiero de las subvenciones municipales se regirá, con carácter general, por lo dispuesto en el



Orokorren III. Tituluan eta lege hori garatzeko Araudian xedatutakoa.

Título III de la Ley General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo.

2. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioa egiteko eskumena Udal kontuhartzailearena da, eta horrek auditoria edo beste kontrol-teknika batzuen bidez egingo du kontrol hori.

2. La competencia para efectuar el control financiero de las subvenciones municipales corresponde al Interventor Municipal, que la ejercerá mediante auditorías u otras técnicas de control.

3. Bat etorriko DLoren Laugarren Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan aurreikusitakoarekin, Udal kontuhartzaileak auditoria-enpresa pribatu batzuen laguntza eskatu lezake, baina, nolahi ere, berarentzat gordeko ditu administrazio-ahalak erabiltzearen ondorio diren jarduketak egitea.

3. De conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Cuarta, punto 3, de la LGS, el Interventor municipal podrá recabar la colaboración de empresas privadas de auditoría, quedando en todo caso reservadas al mismo las actuaciones que supongan el ejercicio de potestades administrativas.

VIII. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEI BURUZKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

CAPÍTULO VIII. INFRACCIONES Y SANCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES

44. artikulua. dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak

Artículo 44. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones

1. dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboen araubide juridikoa da dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. Tituluan xedatutakoa.

1. El régimen jurídico de las infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones es el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2. Zehatzeko ahala indarrean dagoen delegazio eta deskontzentrazioen araubideak emanda duten organoei dagokie zehapenak ezartzeko eskumena.

2. La competencia para imponer sanciones corresponde a los órganos que tengan atribuida la potestad sancionadora de acuerdo con el régimen delegaciones y desconcentraciones vigente.



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Garapenerako lankidetzeta-programak eta - proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen araubide berezia.

Garapenerako lankidetzeta-programak eta - proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen berezitasunak arautzeko, laguntza horien oinarri propioak onartu behar dira. Oinarri propio horietan xedatuko da zein den aplikatu beharreko araubidea, hala dirulaguntzen ondoriozko harreman juridikoari lotutako pertsonen nola jarraipen, kontrol eta justifikazioaren arloan, eta ordenantza hau izango da oinarri horien ordezkari eta osagarri gisa aplikatzeko.

Bigarrena. Publizitate eta konkurrentziaren mende dauden hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sariak.

1. Pertsona edo entitate onuradunak aurretik eskatutako sariak emateko onartzen diren deialdiek xedapen gehigarri honetan xedatutakoa izango dute aginduzko. Bestela, ordenantza honetan, DLOn eta beraren Araudian xedatutakoa izango dute aginduzko, salbu eta dirulaguntza hauen izaera berezia dela-eta hori aplikatu ezin zaien alderdietan.

2. Sarien deialdiak argitaratu behar dira, ordenantza honen 19. artikuluan xedatutako datu eta agiriekin batera, dirulaguntzen Datu Base Nazionalen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bai eta udalaren webgunean ere; argitara litezke, halaber, deialdia egiteko eskumena duen

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.

Régimen específico de las subvenciones para la ejecución de programas y proyectos de cooperación para el desarrollo

Para la regulación de las singularidades de las subvenciones, para la ejecución de programas y proyectos de cooperación para el desarrollo, se aprobarán sus propias bases en las que se establecerá el régimen aplicable, tanto a las personas sujetas a la relación jurídica subvencional como en el ámbito del seguimiento, control y justificación de los proyectos subvencionados, siendo la presente ordenanza de aplicación supletoria de las mismas.

Segunda. Premios educativos, culturales, científicos o de cualquier otra naturaleza sujetos a publicidad y concurrencia

1. Las convocatorias que se aprueben para el otorgamiento de premios previa solicitud de la beneficiaria se registrarán por lo dispuesto en la presente disposición adicional. En su defecto, se regularán por lo dispuesto en la presente ordenanza, la LGS y su Reglamento, salvo en aquellos aspectos en los que por la especial naturaleza de estas subvenciones no resulte aplicable.

2. Las convocatorias de premios deberán publicarse en la BDNS y en el Boletín Oficial de la Provincia, así como en la página web municipal, junto con los datos y documentos que establece el artículo 19 de esta ordenanza, pudiéndose publicar adicionalmente en la forma y por los



organoak xedatutako modua eta bitartekoak erabilita.

medios que se establezcan por el órgano competente para su convocatoria.

3. Nahiz eta deialdi bakoitzean berariaz ezarritako parte hartzeko baldintzak bete, pertsona fisikoek, juridikoek edo entitateek ezingo dute deialdietan parte hartu baldin eta DLOren 13. artikuluan xedatutako dirulaguntzak jasotzea debekatzen duten kasuetako batean sartuta badaude. Deialdietan berariaz jaso beharko da parte-hartzaileek aitorten bat aurkeztu beharra daukatela, egiaztatuz ez daudela sartuta aipatutako DLOren 13. artikuluko horretan aurreikusitako debekuetan.

3. No podrán participar en las respectivas convocatorias las personas físicas, jurídicas o entidades que cumpliendo los requisitos específicos de participación establecidos en cada una de ellas, estén incursas en alguna de las causas de prohibición para percibir subvenciones establecidas en el artículo 13 de la LGS. Las convocatorias deberán recoger expresamente la obligación de las personas participantes de presentar una declaración de no encontrarse incursas en ninguna de las prohibiciones previstas en el citado artículo 13 de la LGS.

4. Parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute, ordenantza honen 11. artikuluan xedatuta dagoen eran, egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak ere. Dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak egunean dituztela egiaztatuko da erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

4. Las personas participantes deberán acreditar que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y del cumplimiento de las obligaciones por reintegro de subvenciones en la forma establecida en el artículo 11 de la presente ordenanza. La acreditación del cumplimiento de obligaciones por reintegro de subvenciones se realizará mediante una declaración responsable

Bigarrena.

Segunda.

Tolosako Udaleko Alkatezari ahalmena ematen zaio Ordenantza hau aldatzeko, baldin eta nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondoriozkoak badira, eta eskakizunak aldatu beharra edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu beharra badakarte. Aldaketetan beren-beregi adieraziko da hori. Aldaketa horien berri, berehala emango zaio udalbatzari, berrets ditzan.

Se faculta a la Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa para modificar la presente Ordenanza, siempre que dicha modificación sea consecuencia de modificaciones legales de obligada aplicación que impliquen modificación de requisitos o reajuste automático de cuantías o porcentajes. En las modificaciones se indicará expresamente esta circunstancia. De dichas



modificaciones se dará cuenta inmediata al Pleno para su ratificación.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.
Prozeduren araubide iragankorra

1. Ordenantza hau indarrean jartzerako hasita zeuden dirulaguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie prozedura horiek hasi ziren unean indarrean zegoen arautegia. Ondorio horietarako, prozedura hasita dagoela iritziko da, norgehiagokako araubidearen bidez ematen diren dirulaguntzentzat, deialdia argitaratzen den unetik; zuzenean ematen direnentzat, berriz, laguntza emateko erabakia hartu edo hitzarmena sinatu den unetik.

2. Kontrol finantzario-, itzulketa- eta berrikuspen-prozedurak indarrean sartzen diren unetik aurrera izango dira aplikagarri.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA.
Régimen transitorio de los procedimientos

1. A los procedimientos de concesión de subvenciones ya iniciados a la entrada en vigor de la presente ordenanza les será de aplicación la normativa vigente en el momento de su inicio. A estos efectos el procedimiento se considerará iniciado para las subvenciones de concurrencia competitiva desde el momento de la publicación de la convocatoria y para las de concesión directa, desde el momento en que se adopte la resolución de concesión o se suscriba el convenio.

2. Los procedimientos de control financiero, reintegro y revisión de actos resultarán de aplicación desde su entrada en vigor.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA
Honako ordenantza hau indargabetuta geratu da:

1.Tolosako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA
Quedan derogada la siguiente ordenanza:

1.Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea

Tolosako Udalaren dirulaguntzen ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor

La presente ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa entrará en vigor transcurrido el plazo de 15 días hábiles desde la publicación de su aprobación definitiva en el Boletín Oficial



de la Provincia de Gipuzkoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, hasierako onarpena jaso duen dirulaguntzen Ordenantza Orokor hau jendaurrean jartzen da ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 2/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local se somete a información pública la Ordenanza General de Subvenciones, inicialmente aprobada, durante el plazo de 30 días en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el espacio web municipal, al objeto de que los interesados puedan presentar en dicho plazo cuantas reclamaciones y sugerencias consideren oportunas.



TOLOSAKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO PLANA

ESKHEGARRIEN-COORADORE-a937-95fd31e95213

EDUKIA

1. Justifikazioa eta sarrera	4
2.- Helburua	7
3.- Aplikazio-eremua	7
3.1.- Aplikazio-eremu objektiboa:	7
3.2.- Aplikazio-eremu subjektiboa:.....	8
4. Araudi aplikagarria	8
4.1. Europako araudia.....	8
4.2. Estatuko araudia	9
4.3. Udaleko araudia	10
5. Edukia.....	10
6. Tolosako Udalaren adierazpena.....	11
7. Iruzur arriskuen ebaluazioa	13
8.- Iruzurraren aurkako neurriak.....	15
8.1. Prebentzio-neurriak.....	15
8.2. Iruzurra detektatzeko neurriak.....	20
8.3. Iruzurra zuzentzeko eta jazartzeko neurriak	23
9.- Interes-gatazkei aurre egiteko prozedura.....	26
1. Interes-gatazkak prebenitzeko neurriak:.....	27
2. Egon daitezkeen interes-gatazkei aurre egiteko neurriak:	28
10.- Iruzurra Kontrolatzeko Organoa.....	29
10.1. Izendapena	29
10.2. Eginkizunak.....	30
10.4. Iruzurra Kontrolatzeko Organoaren funtzionamendurako barne-araudia	31
11. Oparien politika	31
12. Otorduen eta joan-etorrien gastuak.....	32
13. Kontabilitate-erregistroak	32
14. Estatu-laguntzak eta kolusio arriskua.....	33
15. Politika ez betetzea.....	34
16. Ez betetzearen ikerketa.	34
17. Berrikustea eta eguneratzea.	36
18. Datu pertsonalen babesa.	36
19. Trebakuntza/Formakuntza	36
I. ERANSKINA: GLOSARIOA	37
II. ERANSKINA: INTERES GATAZKARI ETA IRUZURRAREN ZEIN USTELKERIAREN ERAKUNDEAREN PREBENTZIOARI BURUZKO AUTOEBALUAZIORAKO TESTA .	41
III. ERANSKINA: ARRISKUEN ANALISIA. CHECK LIST	44

IV. ERANSKINA: IGEA – INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA: EREDUA	45
V. ERANSKINA: IGEA – INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA: EREDUA	47
VI. ERANSKINA: IGEA – INTERES GATAZKARIK EZAREN EGIAZTAPENA: EREDUA	49
VII. ERANSKINA: HAUTETSIEN ETA ENPLEGATU PUBLIKOEN JOKABIDE-JOKO ETIKOA	50
VIII. ERANSKINA: IKUR EDO ADIERAZLE GORRIAK IRUZURRAREN AURKAKO BORROKAN	55
IX ERANSKINA PROPOSATUTAKO KONTROLAK.....	78

1. Justifikazioa eta sarrera.

Europako Kontseiluak onartu zuen, 2020ko ekainaren 21ean, Next Generation EU programa sortzea. Programa hori pizgarri ekonomikora bideratutako tresna da, eta Europar Batasunak bere gain hartutako finantza-arloko neurririk garrantzitsuenetako bat da, 2020an COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko. Datozen urteetan ere izango ditu ondorioak programa horrek. Next Generation EU finantza-tresnak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onetsiak, bere baitan hartzen du, elementu nagusi gisa, «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo» bat (hemendik aurrera, SEM): haren helburua da Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, hala, susperraldi jasangarri eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoekin gobernantza partekatuan. SEM Berreskuratze Funtzaren zuzkidura osoa 672.000 milioi eurokoa da; horietatik 360.000 milioi maileguetara bideratzen dira eta gainerako 312.000 milioiak itzuli ezin diren transferentziak izango dira.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da Suspertze Funtzaren muina. Haren helburua da Europar Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, suspertze iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Europar Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzea.

SEMek honako lau helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia sustatzea; Europar Batasuna osatzen duten estatu kideen erresilientzia eta doitzeko gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak medeatzea; eta trantsizio ekologiko zein digitalari laguntza ematea. Horiek guztiak bideratuta daude EBko ekonomien hazkunde-potentziala berreskuratzerako, krisiaren ondoren enplegua sortzeko politikak sustatzerako eta hazkunde jasangarria bultzatzerako.

Helburu horiek lortzeko, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak suspertze eta erresilientzia plan bat diseinatu behar du, helburu horiek lortzeko behar diren erreformak eta inbertsio-proiektuak jasoko dituena. Espainiar Estatuko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, SEEP) zeharkako lau ardatz ditu, 10 politika-palankatan egituratuta, eta horien barruan hogeita hamar osagai biltzen dira, Planaren inbertsioetarako eta erreformetarako programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen dutenak:

- Trantsizio ekologikoa.
- Eraldaketa digitala.

- Gizarte- eta lurralde-kohesioa eskuratzea.
- Genero-berdintasuna.

SEEPn planteatutako ekimenak ezarritako epean gauzatzeko (2021etik 2026ra), inplikaturako administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste:

- Planean sartutako proiektuen kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitztea.
- Kudeaketa-sistema bat konfiguratzeko eta garatzeko, Europako Batzordeko zerbitzuei egindako ordainketa eskaerak modu eraginkorrean izapidetzeko, eskatutako estandarrak errespetatuz, bai ikuspegi formalek, bai operatibotik.
- Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako prebentzio-, detekzio- eta borroka-mekanismoak indartzea, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 Zuzentarauaren (EB) arabera definituak. Zuzentzarau horren transposizioa egiteko epea 2019ko uztailaren 6an amaitu zen.

Toki-erakundeek, SEM mekanismotik datozen diru-funtsekin osorik edo partzialki finantzaturako proiektuen onuradunak diren aldetik, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua bete beharko dute. Honela xedatzen du artikulua horrek:

«Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua Espainiari Suspertze eta Eraldatze Mekanismoko diru-funtsekin onuradun gisa Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera, SEEP programako neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok dagozkion arauekin bat datozen neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman beharko du iruzurraren aurkako zer neurri aplikatu behar dituen eta zer neurri aplikatu behar zaizkion adierazteko».

Era berean, irailaren 10eko ICT/949/2021 Aginduak, zeinak arautzen baititu merkatuei, merkataritza-hiriguneei, sedentarioa ez den merkataritzari eta merkaturatze-kanal laburrei laguntzeko laguntza-lerroaren oinarriak, 29.2.f) artikuluan, eta 2021. urterako deialdia egiten duenean, SEEPn esparruan, hau adierazten du: erakunde onuradunek, 5.f) artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzeaz gain, bermatu beharko dute gastuen erregulartasuna ere, eta neurriak hartu beharko dituzte ustelkeria aurreikusi, atzeman, jakinarazi eta zuzentzeko, baita interes-gatazka eta finantzaketa bikoitza prebenitzeko ere.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEP gauzatzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartuta, arintze- eta kontrol-neurriak hartu eta jaso ziren. Azaldutakoaren jarraipen gisa, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu da, SEEPen kudeaketa-sistema eratzen duena.

Agindu horretako aurreikuspenen artean, 6. artikulua ezartzen eta garatzen duen betebeharrak nabarmentzen da, zeinaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua ezartzen dituen betebeharrak betetze aldera (SEM mekanismoa ezartzen du erregelamendu horrek), entitate orok, SEMeko funtsen onuradun den heinean, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, honako hau eduki beharko du: iruzurraren aurkako neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek aukera eman beharko dio, dagokion jardun-eremuan, bermatzeko eta deklaratzeko funtsak erabili direla aplikatu beharreko arauen arabera, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko dagokionez.

Beraz, dokumentu honen hasierako helburua da zenbait errefortzu-neurri adieraztea eta hedatzea, bermatzeko dutenak, Tolosako Udalaren eremuan, jasotako SEEP funtsak erabiltzen direla aplikatzekoak diren arauen arabera, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko dagokionez. Hala ere, ezin da alde batera utzi Planean adierazitako printzipioak eta dokumentuan eta eranskinetan jasotako neurriak arian-arian txertatu behar direla Udalak hasitako proiektuen eguneroko kudeaketan. Beraz, kudeaketa-eredu bat da, eta oinarri ditu, alde batetik, arrazionaltasun-, antolaketa-, eraginkortasun-, efizientzia- eta kontu-emate-printzipioak, eta, bestetik, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako borroka eraginkorra ahalbidetuko duten neurrien antolaketa.

Bestalde, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarriak eta hura garatzen duen urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduak berriaz arautzen dute interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan. Erregulazio berri horren ondorioz, beharrezkoa da bere garaian onartutako iruzurraren aurkako Plana aldatzea, funtsezko bi alderditan: batetik, interes-gatazkarik ez dagoela deklaratzeko eredu berria (IGEA), kontratazio-prozeduretan esku hartzen duten guztientzat, edo planari atxikitako dirulaguntza publikoak emateko prozeduretan parte hartzen dutenentzat; eta, bestetik, 2/2023 Legean ezarritako salaketan barneko eta kanpoko kanalak sartzeko (2/2023 Legea, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena).

Azkenik, beharrezkotzat jo da iruzurra kontrolatzeko organoaren (iruzurraren aurkako batzordearen) osaera zabaltzea, eta organo horretan sartzeko udal honetako Kontratazio Azpisaileko funtzionario arduraduna eta idazkari-lanak egingo dituen funtzionarioa.

2.- Helburua

Iruzuraren aurkako Plan honen helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako gaitan aplikatu eta bete beharreko printzipioak eta arauak ezartzea, SEM mekanismotik datozen funtsen inguruko interes-gatazkak saihesteko.

Horretarako, iruzurrezko edozein jardueratan disuasio-efektua eragingo duen kultura sustatuko da. Iruzuraren prebentzioa eta detekzioa ahalbidetuko du horrek, eta iruzurrarekin lotutako delituen ikerketa erraztuko duten prozedura ere garatuko dira, kasu horiei modu egokian eta une egokian heltzen zaiela bermatzeko.

Era berean, Plan honek argi eta garbi erakusten du Udaleko gobernu-organoak duen konpromisoa eta ematen duen babesa, planaren betetze-kultura bat bultzatzeko sustatzaile, kudeatzaile edo parte hartzaile den jarduera guztietan.

Plan honen esparruan, Udalean edo Udalarentzat zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiek, edozein forma edo lotura juridiko edo instituzional dutela ere, zintotasunez eta gardentasunez jokatu behar dute dagozkien eginkizunak eta egitekoak betetzean eta garatzean, eta saihestu eta jazarri egin beharko dituzte iruzurtzat, ustelkeriatzat edo interes-gatazkatzat har daitezkeen jokabideak, edozein dutela ere adierazpidea, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Plan hau plangintza-tresna malgua da, aldatu egin ahal izango baita iruzurraren aurkako neurrien arloko arau, jarraibide edo gida berririk badago. Era berean, Planaren asmoa da etengabe berrikustea iruzurraren aurkako borrokan planteatutako jarduera bakoitza, jarduera horiek hobetzeko.

Ildo horretan, Planaren indarraldia mugagabea da, baina urtean behin, behintzat, berrikusiko da, eta berrikusiko da, era berean, iruzur-kasurik detektatzen bada edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsurik gertatzen bada.

3.- Aplikazio-eremua

3.1.- Aplikazio-eremu objektiboa:

Planeko neurriak, lehentasunez, Next Generation EU berreskuratze-tresnaren funtsetan finantzatutako jardueren gainean aplikatuko dira eta, ahal den neurrian, baita gainerako europar funtsekin finantzatutako jardueretan ere.

Neurri horien xedea izango da irregulartasun sistemikoak, interes-gatazkak, iruzurrak eta ustelkeriak prebenitzea, detektatzea, zuzentzea eta jazarzea.

3.2.- Aplikazio-eremu subjektiboa:

SEMetik datozen funtsen kudeaketan esku hartzen duten organo eta langile guztiei aplikatuko zaie:

- (i) karrerako funtzionarioak
- (ii) bitarteko funtzionarioak
- (iii) lan-kontratudun langileak, finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak
- (iv) behin-behineko langileak, bai eta Udaleko gobernu-organoetako kideak ere.

Halaber, erakunde, organismo eta erakunde publiko edo pribatu guztiak, hornitzaileak, kontratistak, azpikontratatistak edo laguntzaileak (aurrerantzean, hirugarrenak) politika honi atxiki beharko zaizkio, Tolosako Udalarekin edozein motatako harremanak hasi eta eduki ahal izateko.

4. Araudi aplikagarria.

Iruzuraren aurkako Plana egiteko eta funts hauen kudeaketarako, kasu bakoitzeko deialdietako zehaztapenez eta laguntzen oinarri arautzaileez gain, berariaz aplikatu beharreko araudi hau hartuko da kontuan:

4.1. Europako araudia

- Xedapen erkideei buruzko 1303/2013 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, 2018/1046 Erregelamenduak (EB, Euratom) aldatua.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka zuzenbide penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko EBko Finantza Erregelamendua (2018/1046).
- Halaber, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioari eta zuzenketari, interes-gatazkaren prebentzioari eta finantzaketa bikoitzari buruzko araudia aplikatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez, 1296/2013 (EB), 1301/2013 (EB), 1303/2013 (EB), 1304/2013 (EB), 1309/2013 (EB), 1316/2013 (EB), 223/2014 (EB) eta 283/2014

(EB) Erregelamenduak eta 541/2014/EB Erabakia aldatzen dira, eta 966/2012 (EB, Euratom) Erregelamendua indargabetzen da.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 (EB) Erregelamendua, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio iraunkorrak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duena.
- 2020/2094 (EB) Erregelamendua, Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 14koa, COVID-19aren krisiaren ondoren suspertzen laguntzeko Europar Batasuna Suspertzeko Tresna bat ezartzen duena.
- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) ezartzen duena.
- Xedapen komunei buruzko Erregelamendua (EB Erregelamendua) Europako Parlamentuarena eta Kontseilu Europarrarena (1060/2021 zk.), 2021eko ekainaren 24koa.
- Agintari nazional eta europar eskudunek horretarako eman ditzaketen jarraibideak ere nahitaez bete beharko dira.

4.2. Estatuko araudia

- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoa, eta, bereziki, 3. artikulua (jarduera publikoak), eta 11. eta 12. artikulua (jarduera pribatuak).
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan bereziki aurreikusitakoarekin bateragarria den guztian aplikatuko dira.
- 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goikarguan aritzea arautzen duena (11. artikulua, interes-gatazken definizioari dagokionez; 12. artikulua, interes-gatazkek goiz detektatzeko alerta-sistemari dagokionez).
- 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa (SPAJ)
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bat egina onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- Espainiako Berreskuratze-, Eraldaketa- eta Erresilientzia-planerako ezartzen den kudeaketari, jarraipenari eta kontrolari aplikatu beharreko araudia, bereziki, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze-, Eraldaketa- eta Erresilientzia-plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen

abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua.

- Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onartzen duena, eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakia, Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugari eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzeko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzaten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.
- 2/2026 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.
- 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarria, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzaten duten administrazio-prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- Agintari nazional eskudunek horretarako eman ditzaketen jarraibideak ere nahitaez bete beharko dira.

4.3. Udaleko araudia

- Kontuan hartu beharko dira Tolosako Udalak SEEPrekin finantzatutako proiektuak gauzatzeko izan ditzakeen kudeaketa-tresnak, edo Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak 2021eko abenduaren 23an SEEptik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuen espedienteetan eta agiri gidarrietan sartu beharreko alderdiei buruz emandako gomendioen ondoren gehitu edo berrikus daitezkeen kontratazio-agiri tipok.

5. Edukia.

1030/2021 Ministro-Aginduaren 6. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa betetzen saiatu gara:

- Iruzur-arriskua ebaluatzeko beharrezko neurriak arautzea, Interes-Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea, eta interes-gatazkei aurre egiteko prozedura bat ezartzea.
- Iruzuraren aurkako neurriak egituratzea, proportzionalki eta iruzurraren aurkako zikloa deritzonaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Iruzurraren aurkako Plan hau Udalaren osoko bilkuran onartuko da: udal organoen eskumeneko gastuei, kontratazioei eta dirulaguntzei eragiten die; gastuak onartzeko espedienteen legezkotasuna, segurtasuna eta gardentasuna babesten ditu; halaber, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak kontrolatzeko organoa izendatzeko eta funtzio eta kontrol sistema berriak esleitzeko erabiliko da

Izan ere, Europako Batasunaren Tratatuaren 274. artikulua araberan, Europako Batzordeak bere erantzukizunpean gauzatu behar du aurrekontua, finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera.

Gainera, estatu kideek Batzordearekin lankidetzan jardun behar dute, baimendutako kredituak finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera erabiltzen direla bermatzeko.

Era berean, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatu dakioken finantza-erregelamendua onartzen duen Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamendua 53. artikulua 2. paragrafoari jarraituz, estatu kideek erantzukizuna dute kudeaketa partekatua eremuan irregulartasunak eta iruzurrak prebenitu eta horiei aurre egiteko. Irregulartasuna nahita egin den (iruzurra) edo ez, gastu horiek Europako aurrekontuaren baterako finantzaketatik kanpo utzi behar dira.

Plan hau Udalaren egoitza elektronikoan eta gardentasun atarian argitaratuko da.

Barne-kontrolko sistema bat ezarri nahi da, iruzurrezko edozein jardura prebenitzeko eta, ahal den neurrian, detektatzeko eta, hala badagokio, horren ondorioak zuzentzeko. Horretarako, osotasun-, inpartzialtasun- eta zintzotasun-printzipioak hartu nahi dira kontuan bere eginkizunak betetzean.

Ondorioz, Tolosako Udalak Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzeko konpromiso instituzionala hartu du, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua xedatutako nahitazko edukia eta epeak kontuan harturik.

Zehazki, honako jardura hauek egiteko konpromisoa hartzen du, besteak beste, epe horren barruan:

1. Arriskuen analisia eta ebaluazioa.
2. Kode etiko bat idaztea.
3. Kanal Etikoaren Protokoloa idaztea.
4. Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.
5. Oparien, otorduen eta joan-etorrien politika idaztea.
6. Prestakuntza eta kontzientzia iruzurraren prebentzioaren arloan.
7. Iruzurra kontrolatzeko organoa izendatzea.

Tolosako Udalak, jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez, antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta iruzurraren aurkako koordinazio-erakunde eta zerbitzuekin elkarlanean arituko da une oro.

Bereziki, konfidentzialtasun-printzipioa errespetatuz, Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin lankidetzan arituko da. Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala da Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin (IBEB, OLAF ingelesez) elkarlanean iruzurraren aurka Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ekintzak antolatzeaz arduratzen den organoa.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiaren barruan dago, eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25. xedapen gehigarriaren arabera, honako eginkizun hauek dagozkie:

- A. Estrategia nazionalen sorrera eta abiaraztea zuzentzea eta Europar Batasunaren interes finantzarioak babesteko beharrezkoak diren lege- eta administrazio-aldaketak bultzatzea.
- B. Sistema nazionalak Europar Batasuneko funtsen kudeaketarako izan ditzaketen gabeziak identifikatzea.
- C. Erakunde nazionalen eta IBEBren artean irregulartasunei eta iruzur-susmoei buruzko koordinazio- eta informazio-bideak ezartzea.
- D. Iruzuraren aurkako prebentzio eta borrokarako prestakuntza sustatzea

7. Iruzur arriskuen ebaluazioa

Tolosako Udalaren nahitaezko jarduera da irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua-ren 6.5.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Udalak konpromisoa hartzen du edozein arrisku penal zein eremutan gauza daitezkeen identifikatzeko eta, zehazki, iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta interes-gatazkarekin lotutako arriskuak identifikatzeko.

Udalak kudeatzen dituen arriskuak bere jarduerari dagozkionak dira, eta haien kudeaketa erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzen da, bai gobernu organoen eremuan, bai eguneroko jardueren eta zerbitzuen kudeaketan, bai herritarren aurrean, urteko aurrekontu prozesuen eta definizio estrategikoko urte anitzeko prozesuen bitartez.

Udalak iruzur-arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa egingo du, eta aldiari behin, bi urtean behin edo urtean behin, berrikusiko du, iruzur arriskuaren arabera,

eta, betiere, iruzur kasuren bat detektatu denean, dela Udalean bertan, dela beste udal batzuetan izandako iruzur kasuen berri izan duenean, Udal honetan ere gerta daitezkeelako. Edo araudian, prozeduretan edo kudeatzaileetan aldaketa nabarmenak geratzen direnean. Ebaluazio prozesu horretan iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuak identifikatu, aztertu eta baloratuko dira, honako helburu hauekin:

- Udalak zentzuz aurrea har diezaiokeen iruzurraren, ustelkeriaren eta interes gatazkaren arriskua identifikatzea.
- Arrisku horiekin lotutako arau-hausteen edo delituen irismena, eragina eta probabilitatea aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak aztertzea.
- Identifikatutako arriskuak baloratzea.
- Baloratzea ea egokiak diren dauden kontrolen diseinua eta eraginkortasuna.

Udalak bere arriskuak aztertuko ditu, arlo horretako kudeaketa maila bakoitzean dauden erantzukizunak ezagutu ahal izateko, dauden prozeduren arabera. Ebaluazio hori, hainbat iturritan (formalak eta informalak) oinarrituta, Europako jardunbide egokienei jarraituz egingo da. Horretarako, ezarritako prozeduren eta kontrolen eraginkortasuna egiaztatuko da eta dauden bide guztiak erabiliko dira desadostasunak edo arau-haustek hautemateko.

Arrisku horiek identifikatu ondoren, zehaztuko dira haiek gauzatzeko egon daitezkeen benetako edo balizko arrazoiak, arrisku bakoitzerako eragin eremuak eta haien ondorioak, bai eta zein egoeratan ager litezkeen ere.

Era berean, Udalak arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko urteko plana onartuko du, eta identifikatu dituen arriskuen tratamendua definituko du. Horretarako, argi eta garbi, honako hauek zehaztuko ditu: (i) zein den definitutako arriskuarekiko esposizio muga, (ii) zein diren arriskua sortzen duten eragileak eta arrisku hori gertatzeko arrazoiak eta ondorioak, eta (iii) arrisku horiek prebenitzeko, detektatzeko, babesteko edo transferitzeko behar diren neurriak eta kontrolak.

Iruzur arriskuaren ebaluazio hori aldiaren behin, bi urtean behin edo urtean behin berri-kusiko da, iruzur arriskuaren arabera, eta, betiere, iruzur kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa nabarmenak izan direnean.

Xede horietarako, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.2 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa betez, Tolosako Udalak kontrol- eta ebaluazio-tresna hauek ezarriko ditu :

a) Interes-gatazken, iruzurraren prebentzioaren eta gutxieneko estandarri buruzko ustelkeriaren testa (irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren II.B.5

eranskina), zikloko lau arloetako funtsezko alderdiak sartzeko erreferentzia gisa balio izan duena.

«Iruzurra kontrolatzeko organoa»k iruzur-arriskuaren hasierako ebaluazioa egiteko ardura du. Ebaluazioa urtero errepikatuko da; hala ere, maiztasun handiagoz eskatu ahal izango da, hala gomendatzen duten egoeretan, hala nola araudi- edo antolaketa-aldaketak, inguruabar berritzaileak agertzea edo iruzurraren aurrean ahulguneak detektatzea.

Plan honekin batera doa, **II. eranskin** gisa, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkaren prebentziorako galdetegia, Udalak beteko duena, SEEP plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoa betetzeko.

b) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurriei buruzko **erreferentzia edo gida** (1030/2021 Aginduaren III.C eranskina). Plan honen 6. puntuan (hurrengo puntuan) jasotzen da nagusiki.

Bigarrenik, **arrisku-matrize bat erabili behar da**, iruzurra prebenitzeko tresna gisa eta egon daitezkeen ahuleziak eta mehatxuak detektatzeko bitarteko gisa balio duena. Bertan, balizko arriskuak iruzur-agertoki potentzial gisa jasotzen dira, eta haien inpaktuaren eta probabilitatearen arabera baloratzen dira, mailaren arabera kategorizatuz (txikia, ertaina edo handia). Horrez gain, identifikatutako iruzur-arrisku bakoitzari inplementatu beharreko ekintzak zehazten dira.

Arriskuen matrize gisa, autoebaluazio-tresna (check list) erabili da. Bertan, kontratazio publikoaren, langileriaren gastuen, dirulaguntzen eta diru-sarreraren arloko arrisku ohikoenak jasotzen dira (**III. eranskina**). Udal Kontuhartzaileak urteko finantza-kontrolaren plana egiteko ere tresna erabilgarria da.

8.- Iruzurraren aurkako neurriak

Tolosako Udalak, iruzur-arriskuaren autoebaluazioa egin ondoren, iruzurraren aurkako borrokaren zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratutako hainbat neurri eta prozedura artikulatuko ditu: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

8.1. Prebentzio-neurriak

A. Adierazpen instituzionala.

Beharrezkotzat jotzen da erakundeak iruzurraren aurka duen jarrera ahalik eta gehien adieraztea eta zabaltzea. Horretarako, Tolosako Udalak iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala sinatzen du, osotasun, objektibotasun, kontu-emate eta zintzotasun balioetan oinarrituta, eta Plan honen parte da. Kanpaina hori ahalik eta

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatu duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena abenduaren 31n. 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan, Tolosako Udalbatzaren osoko bilkurak onartu duen barne-kontrolerako araudian, aplikatzekoa den gainerako legerian eta Udalaren aurrekontua betearazteko arauan.

Izan ere, kontu-hartzailearen eginkizuna da eskubideak edo gastuak onartzea dakarten egintzak kontrolatzea, edozein kalifikazio dutela ere, bai eta horien ondoriozko sarrerak eta ordainketak ere, eta, oro har, funts publikoen inbertsioa edo aplikazioa, oinarritzko baldintzen fiskalizazio mugatuko erregimenean, gastuen kasuan; diru-sarreraren kasuan, aurrekontu exekuzio arauan ezartzen den bezala.

Ondoren, fiskalizazio hori eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gaineko fiskalizazio osoa egiten da, urtero, laginketa- edo auditoretza-teknikak aplikatuz, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenekin bat datozela egiaztatzeke eta kudeaketan legezatasuna zenbateraino betetzen den zehazteko.

Finantza-kontrola, etengabeko kontrolaren eta auditoria publikoaren bidez gauzatzen dena, zerbitzuen funtzionamendua egiaztatzeke alderdi ekonomiko-finantzariorri dagokionez, honela egiten da: Finantza-kontrol iraunkorra erakunde honen Finantza Kontrolerako Urteko Planean identifikatutako irismen eta jarduketan bidez gauzatzen da.

Nolanahi ere, aplikatzekoa izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Estatuko ordenamendu juridikora; aplikatzekoa da, era berean, 36/2020 Errege lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, administrazio publikoa modernizatzeko eta berreskurapen-, eraldaketa- eta erresilientzia-plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen ere.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa eta hori garatzen duen erregelamendua aplikatuko dira.

Udalak, SEEP plana gauzatzen parte hartzen duen erakundea den aldetik, prozedurak aplikatuko ditu, Estatuaren Laguntzei eta Lehia Askeari buruzko araudia uneoro erabat errespetatzen dela ziurtatzeko, bai eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko ere.

Horretarako, autoebaluazio bat egingo du, Estatuko laguntzen erregimenarekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruz.

Jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein bortxaketa etikoren susmoak modu konfidentzial eta babestuan jakinarazteko aukera bermatuko du Udalak. Horretarako, Udalak konpromisoa hartzen du Kanal Etiko bat ezartzeko, eta horretarako, errespetatu egin beharko du hemen aurreikusitakoa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Batasuneko Zuzenbidean jasotako arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

Gainera, Kanal Etiko hori Lege baten edukia betetzeko egokitze-prozesuan dago; hain zuzen, 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen edukia, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoarena. Izan ere, 2023ko uztailaren 24an, 2023/1832 Alkatetza Dekretu bidez ebatzi zen onartzea salaketa anonimoko barne-kanalak gaitzeko sistema informatikoa kontratatzeko espedientera (Gipuzkoako Foru Aldundiak irekitakoa) atxikitzea.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da salaketak izapidetzeaz eta kontsultak egiteaz, etika-bidearen protokoloaren arabera.

Herritarrek zein enplegatu publikoek, barne-komunikazioko sistemaren ahuleziengatik, erantzun faltagatik edo eraginkortasunik ezagatik, Europako funtsei eragiten dieten iruzur-zantzuen berri izanez gero, Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari —SNCA— jakinarazi ahal izango dizkiote zantzu horiek edo ustez iruzurrezkoak diren gertakariak, kanpoko salaketa-kanalaren bidez (*infraude*), baloratzeko eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari behin-behinean jakinarazteko.

Hala, jardun susmagarrien edota irregulartasunen jakinarazpenak SNCAk horretarako prestatutako kanalaren bidez egin ahal izango dira, helbide elektronikoa honetan: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>

Salaketa faltsuak egiten badira, edo iruzurrezko jardueren edo jarduera ustelen susmoak ezarritako prozeduren arabera behar bezala salatzen ez badira, diziplina-neurriak edo bestelakoak hartuko dira, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, salaketa egin duen pertsona eta Udalarekin duen harremana kontuan hartuta.

Ez dira onartuko errepresaliak eta ustezko iruzurrezko jarduerak edo jarduera ustelak salatzeagatik ezarritako zigorrak, eta edozein salatzailek Udalaren laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea izango du, errepresalia oro saihesteko.

erabiliko da 2023ko urtarrilaren 26tik aurrera egindako deialdietan. Aipatutako tresnak Espainiako Zerga Administrazioako Estatu Agentzian du egoitza.

Neurri horrek prebentzioa du helburu. Izan ere, interes-gatazkaren azterketa kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan parte hartzen duten enplegatuei egingo zaie, BEEPren edozein jardueraren esparruan, balizko interes-gatazkak eta iruzurrak murrizteko.

Hala, baldin eta hautematen bada aipatutako prozeduretako batean SEEP exekutatzeko parte hartzen duen erakundeko langile batek interes-gatazkaren arriskua izan dezakeela dirulaguntza bat eskatzen duten edo kontratu baten lizitzaile diren enpresetako batekin, abstenitu egin beharko du, abenduaren 23ko 31/2022 Legean eta urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako terminoetan.

Aipatutako Aginduaren 4. artikuluari dagokionez, eragiketaren arduradunei dagokie interes-gatazkaren arriskua ex ante aztertzeko prozedura hastea, BEEPa exekutatzeko duen prozedura bakoitzean (dirulaguntzak) eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik. Horretarako, azterketa hori egiteko behar diren datuak sartu beharko dira. Eragiketaren erantzuletzat jotzen da kontratazio organoa edo dirulaguntza emateko eskumena duen organoa. Aurreko eginkizun horiek betetzen dituzten kide anitzeko organoen kasuan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19. Artikuluak arautuko du haien ordezkariak. Estatuko kontratazio-sistema zentralizatuan, esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen edo eskuratze-sistema dinamiko bateko kontratu espezifikoaren kontratazio-organoa Kontratazio Batzorde Zentralizatua denean, eragiketaren arduraduna izango da kontratuaren erakunde hartzailearen esleipen-proposamena egiteko eskuduna.

Datuak gurutzatu ondoren, MINERVAk interes-gatazkaren arriskuaren azterketaren emaitza emango dio eragiketaren arduradunari. Azterketatik ondorioztatzen bada interes-gatazka bat dagoela agerian jartzen duten inguruabarrak daudela, edo daturik ez badago, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

C). Ikur gorriak.

Ziurtatu behar da kontrol-prozedurek arreta iruzurraren arrisku-puntu nagusietan eta horien mugari edo markatzaileetan jartzen dutela. Kontrol hori izate hutsak iruzurrak egiteko disuasio-elementu gisa balio du.

Iruzur-zantzuak bilatzeko ildo horretan, Europako Batzordeak arrisku-zeinuen edo markatzaileen katalogo bat egin du, «Ikur gorriak» izenekoa. Katalogo hori **VIII. eranskinean** dago jasota, eta udaletxean erabili ahal izango da. Iruzurrezko jarduera **baten zantzuak ematen ari direla** ohartarazteko adierazleak dira. Halaber, **IX. eranskinean** jasotzen dira proposatutako kontrolak.

Ikur gorriak alarma-seinaleak, pistak edo balizko iruzurraren zantzuak dira. Ikur gorria izateak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko. Hemen, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak –EGEF-, Europako Gizarte Funtsak –EGIF- eta Kohesio Funtsak (COCOF 09/0003/00 of 18.2.2009 – *Information Note on Fraud Indicators for ERDF, ESF and CF*) iruzur adierazleei buruz egindako informazio-oharraren eranskinetan jasotako ikur gorriak jasotzen dira.

A. IRUZURRAK KONTRATUETAN ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

iruzur-mekanismo komunak eta errepikariak, eta dagozkien adierazleak (alerta-adierazleak)

Eranskin honetan kontratuen eta kontratazio publikoaren esparruko **hamasei iruzur-mekanismo** komun eta errepikari aurkezten dira, haien deskribapenarekin eta adierazleekin batera.

Aintzatespen orokorra duten mekanismoen **zerrenda amaitu gabe dago; mekanismo gehiago egon ahal dira.**

Eranskin honek, neurri handi batean, iruzurraren prebentzioaren eta detekzioaren arloko profesionalen instrukzioan ACFEK (iruzur ikuskatzaileen elkarte) aplikatzen dituen egitura eta edukiak erabiltzen ditu.

1. Ustelkeria, eroskeriak eta legez kanpoko komisioak

Mekanismoaren deskribapena:

Eroskeria eta legez kanpoko komisioa «baliozko gauzaren» bat ematea edo jasotzea da, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

Erosketen ordainketa

Askotan, «baliozko gauza» ez da dirua (anbiguitasunak aitzakiak errazago asmatzea ahalbidetzen du, behar izanez gero). Hartzailearengan modu ustelean eragiteko asmoz emandako edo jasotako edozein onura ukigarri eroskeria izan daiteke. Erosteke emandako eta jasotako «gauza baliozko» adibide gisa, honako hauek aipa ditzakegu: erakundeak edo enpresak ezarritako maximoa gainditzen duten opariak; «maileguak», baliozko edo ez; kreditu-txartelen erabilera; gehiegizko prezioen ordainketa (adibidez, 500.000 euro 200.000 eurotan baloratuta dagoen apartamentu baten truke); apartamentu baten doako erabilera edo prezio murriztuan; ibilgailu baten doako erabilera leasing-ean; «ordainketa faltsuak, eskudirutan edo banku-komisio gisa».

Kontratua esleitu ondoren, eroskeria gehienak legez kanpoko komisio gisa ordaintzen dira, eta horrek esan nahi du kontratistak kobratzen duen faktura bakoitzaren ehuneko jakin bat ordaintzen duela.

Eroskeria ordaintzeko modua edozein dela ere, prezioak puztu egiten dira edo ondasun eta zerbitzuen kalitatea murriztu egiten da, ordainketen kostua estaltzeko.

Ordainketa ustelek beste iruzur mota asko errazten dituzte, hala nola faktura faltsuak egitea, gastu mamuak edo kontratuaren zehaztapenak ez betetzea.

Eragin ustela

Kontratuen eta kontratazio publikoaren eremuan, eragin ustelaren ondorio honako hauek izaten dira: hautaketa desegokia, iturri bakarreko erosketa bidegabe gisa (kontratazio publikoaren atalasetik beherako hainbat esleipen egon litezke), arrazoirik gabe garestiak diren prezioak, gehiegizko erosketak, kalitate baxuko onarpena eta atzerapenak edo entregarik eza.

Iruzuraren adierazleak:

Eroskeria eta legez kanpoko komisioen adierazlerik ohikoena da kontratista batek langile kontratatzaile batengandik jasotzen duen tratu mesedegarria, azalpenik gabekoa, denbora jakin batean.

Alertaren beste adierazle batzuk:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzaileak kanpoko negozio estali bat dauka.
- Kontratistak legez kanpoko komisioak ordaintzen ditu.
- Kontratuetan agiririk gabeko aldaketak gertatzen dira edo aldaketa batzuk sarri, zeinek kontratuen balioa handitu egiten baitute.
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

2. Ezkutuko interes-gatazka

Mekanismoaren deskribapena:

Kontratista den erakundeko langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat badu, edo kontratista bada, interes-gatazka sortzen da. Interes-gatazka potentzial batek ez du lege-ekintzarik jasango, baldin eta enplegu-emaitzak behar den unean detektatzen eta onartzen badu. Enplegatu batek, adibidez, isilpean eduki dezake hornidura-enpresa bat edo kontratista bat, fikziozko sozietate bat sor dezake, eta horrekin prezio puztuan erosten ditu hornidurak, edo ezkutuko interesak izan ditzake ondasunen salmentan edo errentamenduan.

Iruzuraren adierazleak:

- Kontratista jakin batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko favoritismoa du. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Langile kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Langile kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Badirudi enplegatu kontratatzaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo lehiatzeko moduko sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Litzitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Prozedura negoziatu bat aukeratzen da, prozedura ireki bat egin daitekeen arren.
- Kontratazio-organoko langile batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organon sartu aurretik

3. Lizatzaile baten aldeko zehaztapenak eta baldintza-agiriak

Mekanismoaren deskribapena:

Baldintza-agirik lizatzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizatzaile bakar batek bete ditzakeenak.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskaintza bakarra aurkeztea edo eskaintza kopuru txikia, litzitaziorako hautagai gisa;
- Prozedurako agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen

arteko aparteko antzekotasuna;

- Beste lizitzaile batzuen kexak;
- Aurreko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak edo orokorragoak dituzten agiriak;
- Ezohiko klausulak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzten agiriak;
- Hornitzaile berari esleipen kopuru handia egitea;
- Kontratzaileen eta lizitzaile batzuen artean harreman pertsonalak egotea;
- Botere esleiztaileak marka jakin baten produktu bat definitzen du produktu generiko baten ordeaz.

4. Kolusio-lizitazioa

Mekanismoaren deskribapena:

Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismo desberdinen bidez.

Eskaintza osagarriak

Eskaintza osagarriek, «ordezkagiri» edo «de resguardo» gisa ere ezagutzen direnek, eskaintza benetakoak dirudite, baina benetan bilatzen dutena da eroslearen onarpena ziurtatzea.

Lizitzaileak ados jartzen dira prezio altuko eskaintzak aurkezteko edo zehaztapenekin bat ez datozenak aurkezteko. Horrela, kontratista jakin bat aukeratu eta prezio puztua onartzen da. Esleipendunak bere irabazien ehuneko bat partekatzen du hautatu gabeko lizitzaileekin.

Azpikontratzen du edo prezio altuko beste kontratu batzuk lortzen laguntzen die. Gezurrezko konpainiek edo enpresa afiliatuek ere aurkez ditzakete eskaintza osagarriak.

Eskaintzak ezabatzea

Lizitazioetako iruzur-mekanismoek arrakasta izan dezaten, lizitzaileen kopurua mugatua izan behar da, eta guztiek konspirazioan ados egon behar dute. Lizitzaile berria edo ez-laguntzailea agertzen bada, prezioaren inflazioa agerikoa izango da. Hori saihesteko, konspiratzaileek beste enpresa batzuk erosi ahal izango dituzte, eskaintzarik aurkez ez dezaten, edo bitarteko sinesgarriagoak erabili parte hartzeari uko egiteko.

Konspiratzaileek hornitzaileak eta azpikontratatistak ere hertsatu ditzakete, enpresa ez-laguntzaileekin lan egin ez dezaten, haien monopolioa babesteko.

Eskaintzak txandakatzea

Konspiratzaileek txandakatu egiten dira eskaintza osagarriak aurkezteko edo lizitazioan parte hartzeari uko egiteko; horrela, eskaintzarik baxuena aurkezten duen lizitatuak txandakatu egiten da. Txandakatzea eremu geografikoaren arabera izan daiteke – kontratista batek eskualde bateko errepide guztiak eraikitzen ditu, eta beste batek inguruko eskualdekoak –, lan motaren, aldi baterakoaren eta abarren arabera.

Merkatuaren esleipena

Enpresa laguntzaileak ados jartzen dira merkatuak edo produktu-lerroak zatitzeko eta gainerako esleitutako eremuetan ez lehiatzeko, edo neurri kolusiboen bidez bakarrik lehiatzeko, hala nola eskaintza osagarriak soilik aurkeztuz. Batzuetan, langile batzuek lizitaziorako kolusio-mekanismoetan parte hartzen dute –batzuetan, «lehiakideak» diren enpresetan finantza-interesak dituzte –, eta prezioen zati bat puztuta jasotzen dute.

Iruzurraren adierazleak:

- Eskaintza irabazlea altuegia da alderatuz gero kostuen zenbatespenekin, argitaratutako prezioen zerrendekin, antzeko obra edo zerbitzuekin edo sektoreko batez besteko prezioekin eta merkatuko bidezko prezioekin.
- Lizitatuak guztiak prezio altuak aurkezten jarraitzen dute.
- Eskaintzetako prezioak jaitsi egiten dira lizitatuak berri bat lehiaketan sartzen denean.
- Irabazleak eskualdearen, zereginaren edo obra motaren arabera txandakatzen dira.
- Esleipendunak enpresa galtzaileak azpikontratatuak ditu.
- Ezohiko eskaintza-ereduak (adibidez, eskaintzek beharpen-ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea prezio onargarrien atalasearen azpitik doi-doi dago, kontratuaren aurrekontura zehazki eskaintzen da, eskaintzen prezioak altuegiak dira, gertuegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.);

5. Hitzartutako zehaztapenak

Eskaintzen edo proposamenen deialdietan lizitzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako espezifikazioak jaso daitezke, edo lizitzaile bakar batek bakarrik bete ditzakeenak. Hori ohikoa da ITko kontratuetan eta beste kontratu tekniko batzuetan.

Zehaztapen murriztailegiak erabil daitezke beste lizitzaile kualifikatu batzuk baztertzeko edo justifikaziorik gabeko errekurtsua eskuratze-iturri bakar batera eramateko, eta hala, lehia erabat saihesteko.

Kontratista jakin bati mesede egiten dion zehaztapen itunduen eredu batek ustelkeria iradokitzen du.

Iruzuraren adierazleak:

- Lizitzaile bakar batek edo lizitzaile gutxi erantzun die eskaintzen deialdiari.
- Zehaztapenak eta enpresa irabazlearen produktua edo zerbitzuak oso antzekoak dira.
- Beste lizitzaile batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Zehaztapenak aurreko antzeko eskaintza-deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Ohiz kanpoko zehaztapenak daude, edo oso arazoizkoak ez direnak.
- Hornitzaile bati egindako esleipen-kopuru handia dago.
- Lizitazio-prozesuan harreman pertsonalak daude kontratatzaileen eta lizitzaile batzuen artean.
- Erosleak artikulua bat marka-izen batekin definitu du deskribapen orokor bat eman beharrean.

6. Datuak iragaztea

Mekanismoaren deskribapena:

Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa iragaz dezakete, laguntza jasotzen duen lizitzaile bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko. Informazio hori, adibidez, gutxi gorabeherako aurrekontuei, hobetsitako konponbideei edo lehia-eskaintzen xehetasunei buruzkoa izan daiteke.

Iruzuraren adierazleak:

- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatu.
- Eskaintza irabazlea hurrengoaren azpitik dago.
- Eskaintza batzuk laster ireki dira.
- Eskaintza berantiarak onartu dira.
- Aurkeztutako azken eskaintza txikiena da.
- Eskaintza guztiak baztertzea eta kontratua berriro ateratzea lizitaziora.
- Lizitazio-aldian, irabazlea posta elektronikoko bidez edo beste bideren baten bidez komunikatu da kontratazioaz arduratzen diren langileekin.

7. Eskaintzak manipulatzeko

Mekanismoaren deskribapena:

Oso kontrolatuta ez dagoen lizitazio-prozedura batean, parte hartzen duten langileek manipulatu egin ditzakete jasotako eskaintzak, kontratista mesedegarri bat aukeratzeko dela ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, «galduz», zehaztapenetan egindako ustezko akatsengatik zenbait eskaintza baliogabetuz, etab.).

Iruzurraren adierazleak:

- Beste lizitatzailerik batzuek erreklamazioak aurkeztu dituzte.
- Lizitazio-prozedurak prozedura urri eta desegokien pean jarri dira.
- Jasotako eskaintzetan aldaketak egon izanaren zantzuak daude.
- Eskaintza batzuk baliogabetu dira akatsak dituztelako.
- Lizitatzailerik kualifikatu bat deskalifikatu egingo da, zalantzazko arrazoiengatik.
- Ataza ez da berriro lizitaziora aterako, jasotako eskaintza gutxienezkoa lortu ez arren.

8. Iturri bakarreko justifikaziorik gabeko eskuratzeko

Mekanismoaren deskribapena:

Mekanismo horrek ustelkeria eragin ohi du, batez ere eredu errepikatzen bada eta zalantzazkoa bada.

Esleipen horiek egin daitezke erosketak zatituz, lehiarako lizitazio-atalaseak saihesteko, iturri bakarreko erosketa-egiaztagiriak faltsutuz, zehaztapen oso zorrotzak idatziz edo aurretiko kontratuak luzatuz, lizitazio berri baterako deialdia egin beharrean.

Iruzuraren adierazleak:

- Esleipenak iturri bakar bati egiten zaizkio, lehiarako lizitazio-atalasearen edo berrikusteko goiko atalasearen azpitik.
- Aldez aurretik lehiakorrak ziren kontratazio batzuk jada ez dira lehiakorrak.
- Erosketak zatitu egiten dira lehiarako lizitazio-atalasea saihesteko.
- Lizitazio-deialdia zerbitzu-emaila bati bakarrik bidaliko zaio.

9. Gastuaren zatikapena

Mekanismoaren deskribapena:

Kontratatzaileek prestazio bat bi eskaera edo kontratu gehiagotan banatzen dute, lehia edo berrikuspenak saihesteko.

Gastuen banaketa («salamia-erregimen teknika» ere esaten zaio) ustelkeriaren zantzua izan daiteke, edo enplegatzaile erosle batek beste iruzur-mekanismo batzuk aplikatzearen zantzua.

Iruzuraren adierazleak:

- Antzeko helburua duten bi erosketa edo gehiago ikusten dira, esleipendun berari egindakoak, zuzeneko esleipen-prozedurak edo publizitate-atalaseak erabiltzeko onartutako mugen azpitik, edo lehia-berme handiagoko prozedurak eskatuko lituzketenak;
- Erosketak justifikaziorik gabe bereiztea, adibidez, eskulanerako eta materialetarako kontratu bereziak, biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonik;
- Erosketa sekuentzialak, lizitazioen publizitatea egiteko betebeharraren atalasearen azpitik.

10. Kontratuen nahasketa

Mekanismoaren deskribapena:

Antzeko hainbat eskaera dituen kontratista batek langile-kostu, ordainsari edo gastu berberak kargatzen ditu horietako batzuetan, eta horrek gainfakturazioa eragiten du.

Iruzuraren adierazleak:

- Antzeko fakturak aurkezten dira zeregin edo kontratu desberdinen esparruan.
- Kontratista berak aldi berean zeregin bat baino gehiagorengatik fakturatu du.

11. Kostuak bidegabe lotzea

Mekanismoaren deskribapena:

Kontratista batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz. Lan-kostuak materialezkoak baino gehiago kargatu daitezke bidegabe, teorikoki langile baten lana edozein kontratutan karga baitaiteke.

Lan-kostuak manipulatu egin daitezke, gezurrezko ordu-fitxak sortuz, ordu-fitxak edo justifikazio-dokumentazioa aldatuz edo, besterik gabe, puztutako lan-kostuak fakturatu justifikazio-agiririk gabe.

Iruzurraren adierazleak:

- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak adierazten dira.
- Kontratuaren aurrerapenarekin koherentziarik ez duten lan-kargak eragiten dira.
- Ordu-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Ezinezkoa da ordu-fitxak aurkitzea.
- Material-kostu berberak kontratu bati baino gehiagori dagozkio.
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostu gisa egozten dira.

12. Prezioak modu desegokian finkatzea

Mekanismoaren deskribapena:

Kontratatik bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak agertzen ez dituenean ezartzen dira prezioak modu desegokian, eta horrek kontratua garestitzea eragiten du.

Iruzurraren adierazleak:

- Kontratatik uko egiten dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entregatzea atzeratzen du edo ez da aurkezteko gai.
- Kontratatik dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztu du.
- Prezioak ezartzeari buruzko informazioa zaharkitua dago.
- Badirudi prezioak altuak direla antzeko kontratuekin, prezio-zerrendekin edo sektoreko batez besteko prezioekin alderatuta.

Iruzurraren adierazleak:

- Bilgarri ezohikoak edo generikoak erabiltzen dira: bilgarriak, koloreak edo marrazkiak, ohikoak ez direnak.
- Espero den itxura ez dator bat benetakoarekin.
- Desberdintasunak daude produktuen identifikazio-zenbakien eta argitaratuak, katalogoan edo zenbaki-sisteman daudenen artean.
- Probetan edo funtzionamenduan hautemandako akatsen kopurua batez bestekoa baino handiagoa da, ordezeko pieza goiztiarrak behar dira edo mantentze- edo konpontze-kostuak handiak dira.
- Betetze-ziurtagiriak kualifikatu gabeko edo ziurtatu gabeko pertsona batek sinatuta daude.
- Alde nabarmena dago zenbatetsitako kostuen eta materialen benetako kostuen artean;
- Serie-zenbakiak ez dira ohikoak edo ezabatuta daude; serie-zenbakiak ez datoz bat fabrikatzailearen bidezko zenbaki-sistemarekin.
- Inbentarioan edo fakturan jasotako artikuluen zenbakiak edo deskribapenak ez datoz bat eskaeran aurreikusitakoarekin.

B. IRUZURRAK ESKULANAREN KOSTUETAN ETA ZERBITZUETAN

Iruzur-mekanismo komunak eta errepikariak, eta horiei dagozkien adierazleak (alerta-adierazleak).

Eranskin honetan aholkularitza-zerbitzuen esparruko iruzur-mekanismo komunak eta errepikariak aurkezten dira, haien deskribapenarekin eta adierazleekin batera.

Eskulanari dagokionez, kontabilitate-sistemaren kontrol garrantzitsuenak langile indibidualarena eta enplegatuek lan egindako denbora zehaztasunez erregistratzeko erantzukizuna onartzearena dira.

Errekonozimendu orokorra duten mekanismoen zerrenda ez da zehatza:

1. Eskulanaren kostuak

Mekanismoaren deskribapena:

Kanpoko egiaztapen fisiko edo independenterik gabe, eskulana oso erraza da manipulatzeko. Enpresaburu batek nahita adieraz dezake eskulan faltsua, zuzena eta zeharkakoa. Kontua da ea langilearen denbora behar bezala kargatzen den benetan lan egin duen proiektuan. Baliteke hirugarrenen (fakturak, eskaerak, etab.) lan-kostuak frogatzen dituen dokumentaziorik ez egotea.

Eroskeria eta legez kanpoko komisioak "baliozko gauzaren" bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

Iruzuraren adierazleak:

- Gizarte-harreman estua dago Ebaluazio Batzordeko kide baten eta laguntzaren edo diru-laguntzaren onuradun baten artean.
- Diru-laguntza eman duen langilearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Onuradunak eroskeriak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Diru-laguntza ematen duen enplegatuak uko egiten dio diru-laguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Diru-laguntzak edo laguntzak ematen dituen enplegatuak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.

2. Interes-gatazka

Deskribapena:

Diru-laguntzak edo laguntzak ematen dituen erakundeko langile batek diru-laguntza batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

Iruzuraren adierazleak:

- Laguntzaren hartzaile batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa du.
- Langile emaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Enplegatu emaileak uko egiten dio diru-laguntzak edo laguntzak ematearekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Badirudi enplegatu emaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela edo lehiatzeko moduko sozietate batean lan egiten duten senideak dituela.
- Laguntzak emateaz arduratzen den enplegatuaren aberastasunaren edo bizi-mailaren igoera ulertezina edo bat-batekoa.
- Deialdiaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.

3. Hitzartutako zehaztapenak

Deskribapena:

Deialdietan, laguntza-eskatzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak jasotzen dira, edo eskatzaile bakar batek bete ditzakeenak.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskatzaile bakar batek edo gutxi batzuek erantzuten diote eskaintzen deialdiari.
- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkezten dituzte.
- Zehaztapenak aurreko antzeko deialdietan baino nabarmen zorrotzagoak edo orokorragoak dira.
- Ohikoak ez diren edo arrazoizkoak ez diren zehaztapenak daude.
- Onuradun bati emakida asko eman zaizkio.
- Emate-prozesuan zehar, harreman edo lotura pertsonalak daude laguntza ematen duten langileen eta eskatzaile batzuen artean.

4. Datuen filtrazioa

Deskribapena:

Eskabideak emateaz edo ebaluatzeaz arduratzen diren langileek isilpeko informazioa filtratzen dute eskatzaile bati laguntzeko.

Iruzuraren adierazleak:

- Emate-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatzen.
- Epez kanpoko eskaerak onartzen dira.
- Eskaera egiteko aldian, onuraduna posta elektronikoz edo beste bideren baten bidez komunikatu da emakidaren ardura duten langileekin.
- Emate-prozeduraz arduratzen ez den enplegatu baten ezohiko jokabidea, prozeduraren inguruko informazioa behin eta berriz eskatuz.

5. Aurkeztutako eskaintzak manipulatzea

Deskribapena:

Langileek jasotako eskaerak manipulatu dituzte, eskatzaile jakin bat aukeratzen dela ziurtatzeko.

Iruzuraren adierazleak:

- Beste eskatzaile batzuek erreklamazioak aurkezten dituzte.
- Emate-prozedurek prozedura urriak eta desegokiak dituzte.
- Jasotako eskaerak, dokumentu ofizialek edo harrera-ziurtagiriek aldatu izanaren zantzuak dituzte.
- Eskabide batzuk balio gabetzen dira akatsak dituztelako.

- Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bat bazterten da, zalantzazko arrazoiak direla medio.
- Ebaluazio-batzordeko kideek ez dute aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko behar den ezagutzarik, eta pertsona bakar batek menderatzen ditu.

6. Gehigarritasun-printzipioa ez betetzea

Deskribapena:

Onuradunak funts beretik datozen laguntzak jasotzen ditu, baina hainbat erakundetatik, eta gehiegizko finantzaketa edo onura gertatzen da.

Iruzuraren adierazleak:

- Deialdiak ez du zehazten laguntzak beste finantzaketa-mota batzuekin duen bateraezintasuna.
- Ez dago hirugarrenengandik jasotako finantzaketaren euskarri den dokumentaziorik.
- Onuradunak ez du gastu-kontrolik eragiketari egotzitako gastuak eta sarrerak identifikatzeko.
- Gehiegizkoa da eragiketen baterako finantzaketa.
- Proiektu bera finantzaten duten hainbat finantzatzaile daude.
- Hirugarrenek emandako finantzaketaren izaera finalista falta da, eta ez dago finantzaketa banatzeko irizpiderik.
- Onuradunak ez ditu kontrolatzen proiektuari esleitutako mugarrak eta/edo helburuak.
-

7. Kostuak bidegabe igotzea

Deskribapena:

Onuraduna batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo diru-laguntza bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz.

Iruzuraren adierazleak:

- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak adierazten dira;
- Proiektuaren aurrerapenarekin koherentziarik ez duten lan-kargak adierazten dira;
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude;
- Ezinezkoa da ordutegi-fitxak aurkitzea;

- Material-kostu berak proiektu bati baino gehiagori dagozkie;
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostuak bezala adierazten dira.

8. Prezioak modu desegokian finkatzea

Deskribapena:

Onuradunak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak agertzen ez dituztenean ezartzen dira prezioak modu desegokian, eta horrek proiektua garestitzea eragiten du.

Iruzuraren adierazleak:

- Onuradunak uko egiten dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entregatzea atzeratzen du edo ez da aurkezteko gai;
- Onuradunak dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkezten du.
- Prezioak ezartzeari buruzko informazioa zaharkitua dago;
- Badirudi prezioak altuak direla antzeko kontratuekin, prezio-zerrendekin edo sektoreko batez besteko prezioekin alderatuta.

9. Oinarrien zehaztapenak ez betetzea

Deskribapena:

Deialdiaren zehaztapenak betetzen ez dituzten eta bete dituzten itxura egiten duten onuradunek iruzurra egiten dute.

Iruzuraren adierazleak:

- Proben eta ikuskapenen emaitzak ez datoz bat proiektuaren zehaztapenekin;
- Frogak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira;
- Kalitatea eta emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio-kopuru handia dago;
- Onuradunen gastuen erregistroetan egiaztatzen da, adibidez, kontratistak ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan eman beharrezko ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.

10. Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

Deskribapena:

Onuradun batek nahita aurkezten ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

Iruzurraren adierazleak:

- Eskatzaileek adierazpen faltsuak aurkezten dituzte eskabideetan, hala nola sinatutako aitortpenak, finantza-txostenak, konpromisoak, etab.;
- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin da horien berri eman;
- Ez dago fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiririk;
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzakoa da edo ez dago;
- Onuradunaren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko kostuak egin direnik;
- Prezioak, zenbatekoak, artikuluen edo baldintzen deskribapenak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat emakidaren xedearekin, eskaerarekin, ordainagiriaren erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin;
- Faktura asko daude, zenbateko bera, faktura-zenbaki bera, data bera, etab. dutenak;
- Ur-jauzi bidezko azpikontratazioak egin dira;
- Eskudiruzko ordainketak egin dira;
- Paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei ordainketak egin zaizkie.

11. Konkurrentzia mugatzea

Deskribapena:

Erakundeak ez die behar besteko hedapena ematen oinarri arautzaileei edo deialdiari, ez dira argi zehazten laguntzen onuradunek edo hartzaileek bete beharreko baldintzak, ez dira ezarritako epeak errespetatzen edo ez dira aplikatu beharreko baremoak argitaratzen.

Iruzurraren adierazleak:

- Ez dira oinarri arautzaileak edo deialdia zabaltzen, legez eskatutako publizitate-eta gardentasun-printzipioak bete gabe.
- Onuradunek bete behar dituzten baldintzak ez dira argi geratzen edo anbiguoak dira; horren ondorioz, onuradun izan daitezkeenek ez aurkeztea erabaki dezakete edo onuradun jakin bat nahita hautatzea.
- Ustekozko epez kanpo entregatutako eskabideak atzera botatzen dira, baldin eta epearen barruan aurkeztu badira edo epez kanpo aurkeztu badira eta onartu

badira.

- Deialdia arautzen duten oinarriak argitaratzean, ez dira adierazten eskaerak baloratzeko baremoak.

12. Auditoria-aztarna galtzea

Deskribapena:

Erakundeak ez ditu betetzen auditoria-aztarnari buruzko Europako, nazioko eta/edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzak.

Iruzuraren adierazleak:

- Erakundeak alde batera utzi du auditoria-aztarna bermatzeko aukera emango duen eragiketaren dokumentazio egokia.
- Deialdiak saihestu egiten du eragiketaren ondoriozko gastuak dokumentatzeko modua.
- Deialdian gastu hautagarrien definizio argi eta zehatza falta da.
- Proiektuetan kostuak kalkulatzeko metodoa falta da deialdian.

D. FALTSUTUTAKO DOKUMENTUAK DETEKTATZEA

1. Dokumentuen formatua

Deskribapena:

Arautik eta oro har onartutako diseinutik desbideratzen diren dokumentuak zalantzan jarri behar dira.

Iruzuraren adierazleak:

- Sozietatearen logotiporik gabeko fakturak eta gutunak.
- Paperean inprimatutako fakturak, ezarritako formularioez bestelakoak.
- Dokumentuaren letraren motan, tamainan, egituren, kolorean eta abarretan ageriko desberdintasunak.
- Ezabatutako edo zirriborratutako zifrak, baimendutako pertsonen sinadurarik gabeko baliogabetzeak.
- A priori justifikatuta ez dauden baimendutako pertsonen sinadurarik gabeko eskuz idatzitako zenbatekoak edo elementuak dokumentu inprimatu batean.
- Letrarik eza edo letra gehiegi, jarraitutasunik eza testuaren lerroetan.
- Zigilu ofizialen ezohiko koloreak edo ertz biziak, ordenagailu-inprimagailu

baten erabilera adierazten dutenak.

- Pertsonen sinadurak guztiz berdinak (formatuan eta tamainan) hainbat dokumentutan, ordenagailuz egindako faltsifikazioa iradokitzen dutenak. Eskuz idatzitako antzeko sinadurak, edo boligrafo berdinarekin egindakoak, aldi desberdinekin lotutako dokumentuetan.
- Emailaz jasotako komunikazioak, ustezko kontratistek luzatutakoak, ordainketak egiteko.

2. Dokumentuen edukia

Deskribapena:

Dokumentuen edukia ez da ohikoa, eta, beraz, baliozkotasuna zalantzan jarri behar da.

Iruzuraren adierazleak:

- Ezohiko datak, zenbatekoak, oharrak, telefono-zenbakiak eta kalkuluak.
- Falta diren erregistroak (kontrol sekuentzialetan)
- Kalkulu okerra faktura batean edo ordenagailu bidez egindako hartzekoen orri batean: adibidez, eragiketen baturarekin bat ez datozen guztizko zenbatekoak.
- Faktura batean nahitaezko elementurik ez izatea: data, identifikazio fiskaleko zenbakia, faktura-zenbakia, etab.
- Zigilu baten eta sinadura pertsonal baten posizio erlatibo bera dokumentu batzuetan, eta horrek irudi bat erabili dela iradokitzen du (eta ez benetako sinadura bat): ordenagailuz sortutako eta dokumentuak faltsutzeko erabilitako irudi bat izan daiteke.
- Sozietateen edo pertsonen harremanetarako daturik ez izatea, telefono-zenbakia adibidez.
- Fakturretan eta salgaiak entregatzeko oharretan serie-zenbakirik ez egotea, normalean serie-zenbakien bidez markatzen direnak (elektronikoa, ekoizpen-lerroak, etab.).
- Ondasunen edo zerbitzuen deskribapen lausoa.
- Desadostasunak eta anomaliak banku-kontuko zenbakietan (adibidez, ohikoak baino digitu gutxiago, zenbaki hori ez dator bat banku baten sukurtsal espezifikoko batekin, beste inkoherentzia ageriko batzuk).

3. Dokumentuen xehetasunak

Deskribapena:

Dokumentuen edukia ez da ohikoa, eta, beraz, baliozkotasuna zalantzan jarri behar da.

Iruzuraren adierazleak:

- Kontratataren helbidea eta langilearen helbidea berdinak dira.
- Hornitzailearen edo onuradunaren helbidea sozietateak helbideratzen dituen erakunde batean dago.
- Onuradun bati edo helbide bati egindako ezohiko ordainketa-kopurua.
- Enpresa-jardueren erregistroan erregistratu gabeko entitateek jaulkitako fakturak eta salmenta-harremanak.
- Informazioa entregatzeko ezohiko atzerapenak.
- Onuradunak ez ditu jatorrizko dokumentuak aurkezten eskatzen zaizkionean.
- Dokumentuan jasotako datuak ez datoz bat erakunde berak emandako antzeko dokumentu batekin.
- Sozietateen erregistro publikoetan erregistratuta ez dagoen edo baliabide publikoetan aurkiezina den sozietate baten aipamena.
- Sozietate sortu berri batek jaulkitako fakturak.
- Sozietatearen posta elektronikoko helbideak, atzerriko Interneteko zerbitzari batean faktura bat jaulkitzen dutenak.

4. Dokumentazioaren eta eskuragarri dagoen informazioaren arteko koherentzia eza.

Deskribapena:

Dokumentuen edukia ez dator bat eskuragarri dagoen informazioarekin, eta, beraz, zalantzan jarri behar da haien baliozkotasuna.

Iruzuraren adierazleak:

- Koherentzia eza erakunde berak jaulkitako fakturen daten eta haien kopuruaren artean;
- Kontabilitatean erregistratu gabeko fakturak;
- Aurrekontuekin bat ez datozen fakturak, prezioari, kantitateari eta kalitateari, produktu-motari eta/edo emandako produktuaren edo emandako zerbitzuaren deskribapenari dagokienez;
- Gutuna/kontratua/dokumentua, sozietatearen ordezkari gisa diharduen pertsona batek sinatua, enpresen erregistro nazionalean ordezkari gisa izendatu ez dutenean.
- Erakunde baten web orrian eskainitako informazioaren eta jaulkitako fakturaren arteko inkoherentziak.



IX ERANSKINA PROPOSATUTAKO KONTROLAK

(ikus pdf dokumentua)

ESKU6Fc9717e-ccce-4861-a937-95fd31e95213





ARRISKUA EBALUATZEKO TRESNA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK (ARRISKUEN MATRIZEA)

Sarrera

Diseinatutako arriskuen matrizea honela egituratu da:

1. Kudeaketa metodoaren bidez: 1. Diru-laguntzak (S); 2. Kontratazioa (C); 3. Hitzarmenak (CV); eta 4. Baliabide propioak (MP)
2. Kudeaketa-metodo bakoitzaren barruan, aurrez zehaztutako moduan, hainbat arrisku eskaintzen dira, eta horietako bakoitzaren barruan, arrisku-adierazleak eta kontrolak.

Kudeaketa-metodo bakoitzerako, azal bat aurkezten da. Bertan, arriskuen laburpena eta deskribapen osoa jasotzen dira, eta, ondoren, arrisku bakoitza dagokion orrian zehazten da, arrisku-adierazle posibleen eta horietako bakoitzerako modu orientagarrian proposatutako kontrolen zerrendarekin batera.

Arrisku bakoitzak erreferentzia bakarra du. Letrek arrisku hori identifikatu den kudeaketa-metodoa aipatzen dute (S.R, diru-laguntzetako arriskua; C.R, kontratazioko arriskua; C.R, hitzarmenetako arriskua; eta Mp.R, norberaren baliabideetako arriskua) eta zenbakiak erreferentzia sekuentzial bat identifikatzen dute (S.R1, S.R2, SR3... C1)

Era berean, arrisku-adierazle (I) eta kontrol (C) bakoitzerako erreferentzia bakarra dago, eta zenbaki sekuentzialak esleitu zaizkie arrisku bakoitzaren arrisku-adierazleei (adibidez, S.R1 arriskuaren adierazleak SI gisa hasten dira). 1.1. C.R2 arriskukoak, C.I. gisa. 2.1., etab.) eta arrisku bakoitzaren kontrolen zenbaki sekuentzialak (adibidez, S.R1 arriskuaren kontrolak S.C. 1.1 gisa hasten dira, C.R2 arriskuarenak, C.C. gisa. 2.1. eta abar).

OHARRA: Arriskuak, kontrolak eta aurrez definitutako arrisku-adierazleak adibideak baino ez dira, eta ebaluazio-taldeak horiek ezaba ditzake, halakorik ez badago, edo orri edo errenkada gehiago gehitu, kasu bakoitzean, identifikatutako beste arrisku batzuk edo beste arrisku-adierazle edo kontrol batzuk badaude, identifikatutako arriskuei aurre egiteko. Errazagoa izan daiteke ebaluazio-ariketa egitea, dagoeneko deskribatuta edo zerrendatuta dauden gaur egun martxan dauden kontrolekin korrelazioa ezartzen bada; adibidez, erakundearen barneko kudeaketa-sistemaren edo 1. mailako sistemaren deskribapenean edo kudeaketa- eta kontrol-prozeduren eskuliburuetan. Nolanahi ere, behar diren aldaketa guztiak egin ondoren, arestian aipatutako ordena sekuentzialak errespetatu beharko dira.

Definizioak

Matrizean kontzeptu hauek ditugu:

Arriskua	Kontrako ezbeharra/gertaera, eta horri lotutako ondorio negatiboak.
Arriskuaren eragina	Arriskua gauzatzeak erakundearentzat izango lukeen eragina edo kostua (ekonomikoa zein izen onekoa, operatiboa edo bestelakoa). 1etik 4ra baloratu behar da, irizpide hauen arabera:

1	<i>Inpaktu mugatua</i>	Arriskua gauzatuko balitz, antolakundearen kostua mugatua edo txikia izango litzateke, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ospearen edo eraginkortasunaren ikuspegitik (adibidez, beste prozesu batzuk atzeratzen dituen lan gehigarria litzateke).
2	<i>Batez besteko eragina</i>	Arriskua gauzatzeko antolakuntzaren kostua ertaina izango litzateke, arriskuaren izaera ez baita bereziki esanguratsua, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ospeari edo lanari dagokionez (adibidez, mugarria edo helburu ez-kritikoa lortzea atzeratuko luke).
3	<i>Eragin esanguratsua</i>	Arriskua gauzatzeko antolakuntzaren kostua esanguratsua izango litzateke, arriskuaren izaera bereziki garrantzitsua delako edo hainbat onuraduni eragiten dielako, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai izen onetik edo operatibotik (adibidez, arriskuan jarriko luke gertaera edo helburu ez-kritikoa lortzea, edo atzeratu egingo luke mugarri edo helburu kritiko edo mugarri edo CID helburua lortzea).
4	<i>Eragin larria</i>	Arriskua gauzatzeko antolakuntzaren kostua larria izango litzateke, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ospeari dagokionez (adibidez, komunikabideetan pertzepzio negatiboa izatea edo alderdi interesdunen ikerketa ofizial batera bideratzea), bai lanari dagokionez (adibidez, arriskuan jarriko luke mugarria edo helburu kritiko edo mugarria edo CID helburua lortzea).

Arriskuaren probabilitatea

Arriskua gauzatzeko probabilitatea. 1etik 4ra baloratu behar da, irizpide hauen arabera:

1	<i>Oso kasu gutxitan gertatuko da</i>
2	<i>Noizbait gerta daiteke</i>
3	<i>Gerta liteke</i>
4	<i>Maiz gertatuko da</i>

ARRISKU GORDINA

Erremintan aurrez definitutako arrisku bakoitzaren eta haiei lotutako arrisku-adierazleen arrisku-maila, hasieran zehaztutako inpaktuetatik eta probabilitatetik abiatuta kalkulatu, egungo edo etorkizuneko kontrolen eragina kontuan hartu gabe.

Arrisku-adierazlea

Egitate, iritzi edo neurrietan oinarritutako datu batek edo gehiagok osatutako informazio kualitatibo edo kuantitatiboa ematen du, eta arriskua egon daitekeela adierazten duten adierazle edo seinale bihurtzen da.

Kontrolak

Arrisku bakoitzaren adierazleen arriskua arintzeko diseinatutako eta ezarritako kontrolak.

ARRISKU GARBIA

Erremintan aurrez definitutako arrisku bakoitzaren eta haiei lotutako arrisku-adierazleen arrisku-maila, arrisku bakoitzaren eraginaren eta probabilitatearen arabera kalkulatu, adierazle bakoitzerako erakundean ezarritako kontrolen existentzia eta eraginkortasuna baloratu ondoren.

Ekintza-plana

Arrisku garbia arrisku objektiboko maila onargarri batera murrizteko erakundeak ezarri beharreko kontrolak.

ARRISKU OBJEKTIBOA EDO HONDAR-ARRISKUA

Erremintan aurrez definitutako arrisku bakoitzaren eta haiei lotutako adierazleen arrisku-maila, arrisku garbia murrizteko entitateak aurreikusitako kontrolen eragina kontuan hartuta kalkulatu.

Matrizea betetzeko jarraibideak

Autoebaluazio-taldeak lauki grisak bakarrik bete behar ditu.

Arriskuen izendapenei eta deskribapenei, arrisku-adierazleei eta kontrolei dagozkien gelaxka zurietako testuak ere alda ditzake autoebaluazio-taldeak, kudeaketaren errealitatera egokitzeko.

Esan bezala, kudeaketa-metodo bakoitzerako aurrez definitutako arriskuak eta horiei lotutako adierazleak adibideak baino ez dira, eta erakunde bakoitzak bere kudeaketaren errealitatera egokitu behar ditu. Arrisku berriak (orriak) edo arrisku-adierazleak (errenkadak) gehitzen badira, berrikusi egin behar da azkenean ezarritako errenkadaren arrisku gordinaren, arrisku garbiaren eta arrisku objektiboaren zutabeei dagozkien formulak behar bezala definituta daudela, lan-orriaren hasierako formulak erreferentziazat hartuta.

Kudeaketa-metodo bakoitzaren karatuletan agertzen diren "Autoebaluazioaren emaitza" gelaxkak zuzenean kalkulatu dira, arrisku bakoitza garatzen den fitxen emaitzekin lotuta baitaude; beraz, haien formulazioa berrikusi egin beharko da lan-orriak aldatzen badira.

Kudeaketa-metodo bakoitzaren azalean aurkezten diren orriak

Galdera guztiei erantzun beharko zaie, kasu bakoitzean arrisku bakoitzak nori eragiten dion eta arrisku hori barnekoa, kanpoko edo kolusio baten ondorioa den adieraziz.

Ebaluazio taldeak adierazle bakoitzaren arriskuaren **INPAKTUA** definitu behar du, gauzatzen bada, eta goitibeherako menuan 1 eta 4 arteko puntuazioa hautatu behar du, arestian azaldutako irizpideen arabera.

Ebaluazio-taldeak adierazle bakoitzaren arriskua gauzatzera iristeko **PROBABILITATEA** definitu behar du. Horretarako, goitibeherako menuan 1 eta 4 arteko puntuazioa hautatu behar du, arestian azaldutako irizpideen arabera.

Arriskuaren eraginaren eta arriskuaren probabilitatearen balioespenetatik abiatuta, arriskua ebaluatzen tresnak automatikoki kalkulatu du arrisku-adierazle bakoitzaren **ARRISKU GORDINAREN** emaitza eta aurrez definitutako arrisku bakoitzaren **ARRISKU GORDINAREN gutzizko koefizientea** (arrisku-adierazleen arrisku gordinen batez besteko gisa kalkulatu).

Kudeaketa-metodo bakoitzaren barruan aurrez definitutako arrisku bakoitzaren irtenguneak

Aurrez definitutako arrisku-adierazle bakoitzari lotutako kontroletarako, ebaluazio-taldeak **kontrol horiek ezarri direla jasota dagoen** adierazi behar du (goitibeherako menuan "Bai" edo "Ez" aukeratu), eta **kontrol horren eraginkortasunak zer konfiantza-maila merezi duen** adierazi behar du (goitibeherako menuan "Handia", "Ertaina" edo "Txikia" aukeratu).

Kontrolik egjatzatu ez delako "Ez" hautatzen bada, laukitxoa automatikoki gorritz markatuko da; beraz, arriskuaren azken balorazioa edozein dela ere, adierazle jakin horren arriskua arintzeko kontrol-sistemak ezartzera bideratutako neurriak hartzea gomendatzen da.

Era berean, kontrolaren eraginkortasunarekiko konfiantza-mailan "txikia" aukeratzten bada, laukitxoa automatikoki gorritz markatuko da, eta, beraz, arriskuaren azken balorazioa edozein dela ere, kontrol horiek hobetzeko neurriak hartzea gomendatzen da.

Azkenik, kontrola egin den ebidentziarik ez badago eta inplementazio-laukian "Ez" aukeratu bada, argi dago kontrol hori ezin izango dela ebaluatu, eta kontrol-eraginkortasunaren laukia bete gabe utziko da.

Aurreko galderen erantzuna eta konfiantza-mailak kontuan hartuta, ebaluazio-taldeak adierazi behar du kontrol horiek zer efektu konbinatu duten arrisku-adierazle bakoitzaren arriskuaren INPAKTUAN eta PROBABILITATEAN, eta adierazi zer neurritaraino murriztu diren lehendik dauden kontrolekin (horretarako, goitik beherako menuan -1 eta -4 artean aukeratu beharko du).

Aurreko laukietan "Ez" hautatu bada, edo uste bada kontrol-sistemak konfiantza-maila oso txikia duela eta ez duela inolako eraginik, lauki hori bete gabe utzi behar da.

Egindako balorazioetatik abiatuta, arriskua ebaluatzeko tresnak automatikoki kalkulatu du arrisku-adierazle bakoitzaren **ARRISKU GARBIAREN** emaitza eta aurrez definitutako arrisku bakoitzaren **ARRISKU GARBIAREN gutzizko koefizientea** (arrisku-adierazle desberdinen arrisku garbien batez besteko gisa kalkulatu).

Arrisku garbia murriztu behar bada edo kontrolik ez badago edo konfiantza-maila txikia bada, talde ebaluatzaileak adierazi beharko du zein izango den bere **Ekintza Plana** (aurreikusitako kontrol berriak, pertsona edo unitate arduraduna eta aplikatzeko epea), Ondorio atalean adierazten diren arauei jarraiki.

Erakundeak ezarri beharreko kontrol berri horiek kontuan hartuta, talde ebaluatzaileak adierazi beharko du kontrol berri horiek arrisku bakoitzaren INPAKTUAN eta PROBABILITATEAN izango duten eragin konbinatua, eta adierazi beharko du zenbateraino murriztu diren ezarri beharreko kontrolekin (horretarako, goitik beherako menuan, -1 eta -4 artean aukeratu beharko du).

Egindako balorazioetatik abiatuta, arriskua ebaluatzeko tresnak automatikoki kalkulatu du arrisku-adierazle bakoitzaren **ARRISKU OBJEKTIBOAREN** emaitza eta aurrez definitutako **arrisku bakoitzaren ARRISKU OBJEKTIBOAREN gutzizko koefizientea** (arrisku-adierazle desberdinen arrisku garbien batez besteko gisa kalkulatu).

Adierazi den bezala, matrizeak aukera ematen du arrisku gordinaren, arrisku garbiaren eta arrisku objektiboaren emaitzak lortzeko arrisku bakoitzari lotutako arrisku-adierazle bakoitzerako eta kudeaketa-metodoetan aurrez definitutako arrisku bakoitzerako (gutzizko koefizientea).

Arriskuaren sailkapena:

	<i>Onargarria</i>	Puntuazioa: 1,00 - 3,00
	<i>Adierazgarria</i>	Puntuazioa: 3,01 - 6,00
	<i>Larria</i>	Puntuazioa: 6,01 - 16,00

Arriskuen matrizea:

ERAGINA	Eragina larria	4				
	Eragin esanguratsua	3				
	Batez besteko eragina	2				
	Inpaktu mugatua	1				
			1	2	3	4
			Oso kasu gutxitan gertatuko da	Noizbait gerta daiteke	Gerta liteke	Maiz gertatuko da
			PROBABILITATEA			

Ondorioa

Matrizearen helburua da arrisku garbian lortutako puntuazioak, bai arrisku bakoitzerako, bai haiei lotutako arrisku-adierazleetako bakoitzerako, erakundearen erreferentzia gisa balio izatea arrisku bakoitzean iruzurra edo irregulartasunak saihesteko, eta, kasu horretan, ekintza-plan bat ezartzea kontrol kopurua edo intentsitatea handitzeko.

Beraz, lortutako arrisku garbiaren puntuazioaren arabera, entitateak kontrol osagarriak (ekintza plana) sartu beharko ditu, arau hauei jarraikiz:

- Guztizko arrisku garbia txikia bada (onargarria), printzipioz, ez da beharrezkoa izango lehendik daudenen kontrol osagarriak sartzea, erakundeak komenigarritzat jotzen ez badu behintzat. Hala ere, gomendagarria litzateke kontrolak hobetzeko edo birdiseinatzeke neurriak hartzea arrisku handia izan dezaketen arrisku-adierazle zehatzen kasuan.
- Guztizko arrisku garbia ertaina (esanguratsua) bada, aplikatu nahi diren kontrol eta neurri gehigarriak sartu behar dira, arduraduna zein den eta hori gauzatzeko epea zein den adierazita. Epe ertain edo laburrerako epe bat egokitzat jotzen da, neurrien izaeraren arabera. Betiere, urtebetetik beherako epea hartu beharko da.
- Guztizko arrisku garbia handia bada (larria), aplikatuko diren kontrol eta neurri gehigarriak sartu behar dira, arduraduna zein den eta hori gauzatzeko epea zein den adierazita. Arrisku garbi handia izanez gero, berehala jardun beharko da; beraz, aurreikusitako kontrolak eta neurriak aplikatzeko gehieneko epea ahalik eta laburrena izan beharko da.

Arrisku bakoitzaren guztizko arrisku garbiaren puntuazioak (arrisku-adierazleen batez bestekoak) zehazten ditu, batez ere, egin beharreko jarduerak. Hala ere, matrizeak arrisku-adierazle bakoitzaren puntuazioa eskaintzen du, erakundea kontrol-beharrei buruz edo ekintza-plana norantz zuzendu behar duen orientatzeko. Beraz, kontuan hartu behar da proposatutako kontrolek eta hobekuntza-neurriek arriskuak arintzera jo behar dutela kontrolik ez duten edo dauden kontrolak eraginkorrak ez diren adierazle zehatzetan.

Informazio gisa, tresnak automatikoki kalkulatu du guztizko arrisku garbia eta kudeaketa-metodo bakoitzeko guztizko arrisku objektiboa adierazten dituen koefizientea. Koefiziente horiek entitateak arriskuaren aurrean duen egoeraren irudi laburtua besterik ez dute eman nahi (kudeaketa-metodo bakoitzaren karatulan errenkadak eta arrisku berriei dagozkien orriak gehitu edo kentzen badira, formula eguneratuta dagoela egiaztatu beharko da).

Azkenik, ebaluazioaren aldizkako berrikuspena arau hauen arabera egin beharko da:

- Guztizko arrisku garbia bada, maila onargarriko puntuazioa lortu badu, aldizkako berrebaluazio bat egingo da, entitateak ezarritakoa oinarri hartuta. Arau orokorra urtero egin badaiteke ere, bi urtean behin egin daiteke, baldin eta identifikatutako arriskuen maila oso txikia bada, eta aurreko urtean ez bazen jakinarazi iruzur, ustelkeria, interes-gatazka edo finantzaketa bikoitzeko kasurik.
- Guztizko arrisku garbiak garrantzi handiko edo larriko puntuazioa lortu badu, ebaluazioa berrikusi egingo da kontrolak eta neurri gehigarriak ezartzeko ezarritako epea igaro ondoren. Arrisku garbi larriaren kasuan, berehalakoa izan behar du, ahalik eta eperik laburrenean.

Era berean, berehala berrikusi beharko dira autoebaluazioaren zati egokiak, baldin eta beste iruzur-kasu bat agertzen bada edo erakundearen inguruan aldaketa esanguratsurik gertatzen bada, hala nola arau-aldaketak, prozedura-aldaketak, teknologia, langileak, etab.

Iturriak:

Arrisku-matrize horietan erabilitako metodologia Europako Batzordeak iruzur-arriskua eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak ebaluatzeko emandako jarraibideetan oinarritzen da (EGESIF_14-0021-00).



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Berreskuratze, Eraldaketa
eta Erresilientzia Plana



BERARIAZKO IRUZUR-ARRISKUEKIKO ESPOSIZIOAREN EBALUAZIOA - KONTRATAZIOA

ARRISKUAREN DESKRIBAPENA					AUTOEBALUAZIOAREN EMAITZA	
